

Kultura arteko zirkuitu ekonomiko
solidarioak eta emakumeen eskubide
ekonomikoetan duten ekarpena:
Lojako kasua

Leticia Urretabizkaia eta Maite Fernández-Villa

kultura arteko zirkuitu
ekonomiko solidarioa

Leticia Urretabizkaia. Ikertzailea eta trebatzaile independentea, Hegoa Institutuan doktoregaia izateaz gain. Euskadin izandako ibilbide akademiko zein profesionalean eta landan egindako ikerketan nahiz praktikan oinarrituta, Andeen inguruko herrialdeetan feminismoen eta elikaduraren burujabetzaren bidez ekonomia alternatiboa eratzen duten sare eta erakundeei buruzko doktoretza-tesia egiten ari da, bi testuinguruetako ikasbideak eta antzeko eraldaketa-proposamen osagarrien arteko sinergiak estrapolatzeko asmoz.

Maite Fernández-Villa. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Nazioarteko Garapen eta Lankidetzako masterra. Gaur egun, Hegoako koordinatzaile nagusia da. Aldez aurretik, ordea, Lojako Ekonomia Sozial eta Solidarioako Programa koordinatu zuen, eta, batez ere, jarduera ekonomiko bateratu bezain alternatiboen ezarpenak emakumeen jabetzaren eduki ditzakeen eraginak aztertu ziren bertan. Espezializazio-arloak: proiektuko zikloaren kudeaketa, prestakuntza, genero-berdintasuna eta ekonomia sozial eta solidarioa.



Kultura arteko zirkuitu ekonomiko solidarioak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan duten ekarpena: Lojako kasua

Leticia Urretabizkaia eta Maite Fernández-Villa

Honako hauexen emaitza da argitalpen hau: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 2010eko deialdian *Andeetako eskualdeko proposamen ekonomiko eraldatzaileak: tokiko garapen ekonomikoaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko loturak* (PGM-2010BA/002) izenburupean onartutako programa eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013ko deialdian *Ekudorko hegoaldeko eskualdeko ekonomia sozial eta solidarioko eragileak eta mugimendua sendotzeko prozesua* (2013-LANK-46) izenburupean onartutako proiektua.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Koordinatzailea: Maite Fernández-Villa (maite_fernandez-villa@ehu.es)

Autoreak: Leticia Urretabizkaia eta Maite Fernández-Villa

Argitaratzailea:



www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

hegoa@ehu.es

UPV/EHU

Carlos Santamaría

Elhuyar plaza 2 • 20018 Donostia

Tel.: 943 01 74 64 • Faxa: 94 601 70 40

maribi_lamas@ehu.es

UPV/EHU

Campuseko Liburutegia, 138. posta-kutxa

Nieves Cano 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

gema_celorio@ehu.es

2015eko abuztua

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lege-gordailua: BI-798-17

ISBN: 978-84-16257-19-5

Hegoa Institutuak eta Amerika Latinoko Intercooperation Fundazioak ez dituzte ezinbestean partekatzen autoreek adierazitako iritzirik, eta autoreek eurek ere ez dituzte euren zerbitzuen helburu diren instituzioak konpromisoan jartzen.



Creative Commons Lizentzia Atribuzioa-EzKomertziala-Eratorpenik gabe 3.0 Unported.

Agiri hau Creative Commonsen lizentziapean dago. Lan hau askatasunez koptatu, banatu eta jendaurrean komunikatu ahal izango da, betiere, autoretza aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ez dago lan honetan oinarritutako lana aldatzerik, eraldatzerik edo sortzerik.

Lizentzia horren kopia ikusteko: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/>



Aurkibidea

Eskerronak	7
Aurkezpena	9
1. Emakumeen Eskubide Ekonomikoak: Nazioarteko arauzko testuinguruan egindako ekarpen feministak	15
1.1. Nondik gatozen: emakumeen eskubide ekonomikoak, eratzen ari den aldarrikapena	17
1.2. Nora goazen: ibilbidearen eskema	18
1.3. ...aireratzen ari gara	20
1.3.1. Eskubide unibertsalak?	20
1.3.2. Lan egiteko eskubidea... eta lana banatzekoa...	22
1.3.3. “Soldata bera lan berberagatik”: ordainsaria eta lan-baldintzak	28
1.3.4. Afiliaziorako baldintza errazagoak	31
1.3.5. Gizarte-segurantzarako banakako eskubidea	32
1.3.6. Eskubideak babesteko partaidetza	34
2. Kultura arteko zirkuitu ekonomiko solidarioak: Ekuadorrek ekonomia sozial eta solidarioan egindako ekarpenak	39
2.1. Nondik gatozen: printzipio etikoak partekatzen dituzten jarduketara ekonomiko alternatiboak	41
2.2. Nora goazen: bizimodu onerako ekonomia	44
2.3. Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidariora egindako lehenengo hurbilketa	45
2.3.1. ESSren azalpena eta printzipioak Ekuadorko meSSEren arabera	45
2.3.2. Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioko trazuak	46
2.3.3. KAZESen printzipioak, dimentsioak eta harremanak	50
3. Kultura arteko zirkuitu ekonomiko solidarioek emakumeen eskubide ekonomikoetan eragiteko daukaten ahalmenaren gainera hegan	55
3.1. Nondik gatozen: alternatiben bidegurutzea	57
3.2. Nora goazen: goitik begiratutako elkarloturak	57

3.3. Jakin-nahizko begirada	58
3.3.1. Printzipioak eta eskubideak harreman teorikoan?	58
3.3.2. Oskarbian egindako galderak	61
4. Prestaketa	67
4.1. Nondik gatozen: gure tresnak	69
4.2. Nora goazen: Loja, emakumeen eskutik	69
5. Lojan lurreratzen	71
5.1. Lojako probintziari buruzko zenbait datu	73
5.2. Tailerrean parte hartu duten erakundeak	76
5.3. KAZESen inguruan egin ditugun egituraketak	79
6. Jakitateen emakume ekoizleen esanetan	85
6.1. <i>“Lana lana da: batak txanponak sortzen ditu, eta bestea ezinbestekoa da beste jarduera batzuk egin daitezen”</i>	87
6.2. <i>“Dirutxoa hartzen ikasi beharra...”</i>	97
6.3. <i>“Protestatik proposamenera igaro gara”</i>	108
7. Ibilbidearen ondorioak edo memoria nabaria	115
8. Etorbizunari begira: erronkak eta proposamenak	123
Bibliografia	137
Eranskinak	143
I. eranskina: Tailer honetako jarduerak: “Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioan elkartzeko esperientziak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan izandako eragina”	145
II. eranskina: Inkestetarako gidoiak	149

Taulen aurkibidea

1. taula. PIDESCen zehar egindako ibilbidea eta irakurketa feminista	19
2. taula. Zeregin hirukoitzaren esparrua	24
3. taula. Ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioak	43
4. taula. KAZESetan egituratzen diren jarduerak	49
5. taula. KAZESen dimentsioak	52
6. taula. KAZES, harreman-modua. Truke ekonomikoko arrazionaltasun berrietarantz	54
7. taula. Goitik begiratuta: KAZESen printzipioen eta emakumeen eskubide ekonomikoen arteko loturak	58
8. taula. PIDESCeko artikulua azterketa-taldeetan	62
9. taula. Azterketa-taldeak, azpigaiak eta adierazleak	64
10. taula. Lojako Sare Agroekologikoa – RAL: Randy Namá azoketako nekazarien ekonomia solidarioaren barraskiloa	80
11. taula. meSSEren partaidetzapeko KAZES	81
12. taula. FUPOCPSen partaidetzapeko KAZES	81
13. taula. UPMLren zuhaitza	82
14. taula. Lanetan gertatutako aldaketak	96
15. taula. Lanen baldintzetan gertatutako aldaketak	107
16. taula. Partaidetzako eta politika publikoetako aldaketak	113
17. taula. Gainditu gabeko erronkak	125
18. taula. Jarduketarako gomendioak	127

Eskerronak

Testu hau sortzeko, hainbat hitz jarri dira sutan.

Lan hau hainbat lanen gurutzaketaren emaitza izan da.

Idazten ditugun izenek beste izen batzuk sorrarazi dituzte, eta, guztiak inoiz aipatuko ez ditugula jakin arren, batzuk, behintzat, ez ditugu ahaztu nahi. Izan ere, haritik tira egin eta jakintza inplizituaren mataza askatzen da apurka-apurka, ikaskuntza partekatu bihurtzeko.

Halaxe izan da gure prozesua: emakume-talde batekin batzartu gara, geure jakitateak partekatu ditugu eta ideien truke horrekin itzuli gara etxera, gure topaketaren ospakizuna izan den azokaren ostean.

Bizitako denboragatik eman nahi dizkiegu eskerrak euren jakintzak eta esperientziak gurekin partekatu dituzten emakume kideei: Beatriz Iñiguez, Carmen Cumbicus, Carmen Minchay, Francisca Prado, Gloria Ochoa, Juana Maza, Laura María Sáez, María Cacay, María Augusta Rodríguez, María Rojas, Martha Jimbo, Nancy Huaca, Orfelina Jumbo, Paola Guajala, Rosa Abrigo, Rosa Díaz, Rosa María Guayllos, Rosa Lozano, Rosa Margarita Guayanay, Rosa Macas, Rosa Victoria Paccha, Victoria Lapo, Yadira Sarango eta Yaneth Romero.

Era berean, lan hau garatzeko abian jarri behar izan diren jardueretarako logistikan landu digutenei ere eman nahi dizkiegu eskerrak haien ahalegin eta arduraldiagatik: Amerika Latinoko Intercooperation Fundazioko Ángeles Carrión, Patricia Carrillo eta Ruth Mora eta Hegoako Tatiana Montenegro.

Bestetik, gure eskerrik beroena ere Lojako Sare Agroekologikoko Patricio Guamáni eta, berriro ere, Lojako Emakumeen Herri Batasuneko Yaneth Romerori, datuak biltzeko egindako lan nekezagatik.

Horrez gain, gure leialtasuna eta aitortpena jabekuntzaren bidean aurkitu ditugun hainbat emakume kideri eta, zeharkaldi luzean aldeko haizea izango balitz bezala, bidea emakumeekin batera egitea erabaki duten gizon kideei ere bai.

Autoreak



Aurkezpena

Ekuadorko araubide ekonomikoaren eraldaketa bultzatzen ari diren zenbait prozesuren lekuko moduan sortu da liburu hau. Hain zuzen ere, *Sumak Kawsay* rako ekonomia sozial eta solidariorantz abiatu da, eta euskal lankidetzak babestutako bi ekimenetako esperientziak hartu ditu adibide moduan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako *Andeetako eskualdeko proposamen ekonomiko eraldatzaileak: tokiko garapen ekonomikoaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko loturak*¹ eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako *Ekuadorko hegoaldeko eskualdeko ekonomia sozial eta solidarioko eragileak eta mugimendua sendotzeko prozesua*².

Ekimen biak Lojako probintzian garatu ziren, batez ere, eta lurraldeko eragileak sendotzea zeukaten helburu, politika publikoen inguruko proposamenak eratzeko eta emakumeen eskubideak kontuan hartzen zituzten ekonomia sozial eta solidarioko (aurrerantzean, ESS) esperientziak sustatzeko.

Ekimen horiek garatu bitartean, bertako ibilbide zabalagoaren osagai moduan, Ekuadorko Ekonomia Sozial eta Solidariorako Mugimendua (meSSE) bere proposamena egin zuen Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioari begira (KAZES), merkatu neoliberalaren botereari aurre egiteko jarduera alternatibo moduan eta ikuspegiaren, tresnen zein emaitzen arloko ezaugarri bereziak kontuan hartuta. Hartara, ESSko produktuak eta zerbitzuak ez ezik, bertako jakitateak, jardunak eta esperientziak ere egituratzeko eta trukatzeko eremua da Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioa. Beraz, arlo ekonomikotik harago doan harreman-eremua da, eta, bertan, zainketak eta elkarbizitza nabarmentzen dira, besteak beste. Zirkuitu hori era guztietako tresnen bidez sortzen da (weba, topaketak, trukerako hitzarmenak, merkatuak...), eta, haien artean, azoka solidarioak dira agerikotasun handiena dutenak.

Gure esperientziaren eta ESSko mugimenduen diskurtsoaren arabera, emakumeak KAZESeko protagonistak direnez, haien jabeakuntzarako estrategia izan liteke emakumeak horren inguruan antolatzea. Ideia honek mobilizatu egin gintuen: egia ote da?, ESSko jarduerak eta haien egituraketa eraginkorragoak ote dira emakumeen jabeakuntzari begira ohiko jarduera ekonomikoak baino? Gainera, mugarik balute, zer faktore landu beharko lirateke, KAZESek eraldaketarako daukan ahalmena sustatzeko?

Galdera horiei erantzuteko, hausnarketarako tailerra egin genuen nekazarien erakundeetan, sare agroekologikoetan, emakumeen mugimenduan eta meSSEn lan egiten duten emakume lojarren talde batekin. Horrela, haien esperientziak

¹ PGM-2010BA/002 kodea. 2010. urteko programetarako deialdian onartutakoa.

² 2013-LANK-46 kodea. 2013. urteko proiektuetarako deialdian onartutakoa.

aztertu ahal izan genituen elkarrekin, emakumeen eskubide ekonomikoetan duten ekarpena kontuan hartuta, behar besteko ikasbideak ateratzeko eta ESSko jardueretan nahiz jarduera horiek indartu eta sustatzen dituzten politika publikoetan erabiltzeko, zainketako lanak eta ekonomia feministaren proposamenak ahaztu gabe. Liburu honetan partekatutakoak dira hausnar horren emaitzak.

Hurrengo orrialdeetan, irakurle maiteok, bidaiari ekingo diogu. Jakin badakigu emakumeen eskubide ekonomikoak eta kultura arteko zirkuitu ekonomiko solidarioak nolabait azaldu beharreko kontzeptuak direla ondo ezagutzen ez dituztenentzat –gainera, aztertu ere egin behar dira kontzeptuok ezagutzen dituztenentzat–. Neurri handi edo txikiagoan, guztiok badakigu zein diren gure eskubideak, baina “ekonomikoak” eta “emakumeenak” abizenak eransten ditugunean, konturatu egin gara ez dagoela oso argi nola lurreratu behar diren zehaztasunean. Beraz, aieratzen baino ez gaude. Hegan gaudela, kultura arteko zirkuitu ekonomiko solidarioetara hurbilduko gara (aurrerantzean, KAZES), ezagutzeko eta, horren ostean, aitortzeko gai ere izan gaitezen. Horri esker, behar besteko aukerak arakatu ahal izango ditugu, zirkuitu horiek emakumeen eskubide ekonomikoen betearazpena sustatzen duten eremuak izan daitezkeen jakiteko. Maila praktikoan egiaztatzeko, Lojako kasuan lurreratuko gara ekimen ekonomikoetan parte hartu duten emakumeek eurek euren praktiken zein esperientzien abalpean sortutako jakintzaren bidez, eta lortutako emaitzak erkatuko ditugu taldean. Iragaitzan, ordea, zenbait ondorio eta gomendio atera ahal izango ditugu, eta Lojako emakumeek etorkizuneko bidaietan eraman ahal izango dituzte irakurgai moduan, halaxe nahi izanez gero.

Gure ustez, kapitulu bakoitzaren hasieran oso garrantzitsua da zenbait seinale orientagarri ematea, nondik gatozen eta nora goazen kontu-kontuan hartzeko. Gure iritziz, egile moduan abiapuntu daukagun *ikuspegi kokatua* (Haraway, 1995) aitortzeko modua da. Gainera, geure gain ere hartzen dugu kontzeptuak eta jardunak ulertzeko zenbait modu daudela eta egon daitezkeela mundu zabalean. Hori dela eta, geurea aitortzen dugu, itxurazko neutraltasun edo objektibotasunpean jatorri dugun mendebaldeko paradigma unibertsalizatzeko nahitako edo nahi gabeko asmoan dauden botere-harremanak ezkututzen dituzten lengoaiak eta ikuspegiak ez erabiltzeko.

Horren guztiorren bidez, etengabe aldatzen ari den testuinguruan jorratu beharreko eztabaida eta azterketetara lurreratu behar garelakoan gaude, eragin ekonomiko, sozial eta politiko handiak dituelako. Lurraldeari begira, batetik, behar besteko lan-agiria eskaini nahi diegu ESSko erakundeetako emakumeei eta Lojako emakumeen mugimenduari, haien eskubide ekonomikoei buruz eztabaidatu eta gizarteratu ditzaten, eskubideen titularrak direla onartzeko prozesuan aurrera egin dezaten, euren ekarpenak formatu eskuragarrian eduki

ditzaten eta, horrela, ekarpen horien inguruan deseratzen eta eratzen jarraitzeko aukera izan dezaten. Bestetik, lurraldeko eragile anitzen aurrean emakumeek ESSn daukaten zeresana, haien eskubideak eta eskaerak agerian jartzeko garaia dela uste dugu. Era berean, nazioko eta lurraldeko politika publikoak ere orientatu behar dira, sistema ekonomiko sozial eta solidarioak berdintasunaren zein justiziaren irizpideak eta biziaren jasangarritasunaren agindua kontuan hartu ditzan.



1. Emakumeen Eskubide Ekonomikoak: Nazioarteko arauzko testuinguruan egindako ekarpen feministak

1.1. Nondik gatozen: emakumeen eskubide ekonomikoak, eratzen ari den aldarrikapena

Giza eskubideei buruz hitz egitean, nazioarteko garapen juridikoa hartu behar dugu abiapuntutzat, esparru horren inguruan bilakatu direlako gizarteekin eta, batez ere, aldarrikapenekin batera. Haien definizioaren arabera, eskubideak berezkoak dira pertsonentzat, ezeztaezinak, besterenezinak, eskualdaezinak, ukaezinak eta unibertsalak. Esparru horretan, eskubide ekonomikoak eskubide sozial eta kulturalekin batera garatu dira. Zentzu horretan aurkitzen dugun tresna nagusia Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna da (aurrerantzean, PIDESC), eta 1976ko urtarrilaren 3an sartu zen indarrean. Eskubide horiek emakumeen errealitate eta egoeretara egokitzeko prozesuari dagokionez, nazioarteko esparru juridikoan Emakumeen aurkako Era Guztietako Bereizkeriak Desagerrarazteko Konbentzioa da tresna nagusia (CEDAW), 1981eko irailaren 3an sartu zena indarrean. Kontu-kontuan hartu dezakegu nazioartean bertan hitzarmen horiek ikuskatzen dituzten batzordeak direla maila globalean emakumeen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen arloko estandarrak ezartzen dituztenak.

CEDAWetik aurrera, egiaztatu egin zen ordura arte giza eskubideen garapenerako iturria izan zenak talde eta kolektibo sozialak eta, batez ere, emakumeak utzi zituela kanpoan. Nazio Batuetako erakundeen xedapenen eta gomendioen bitartez, giza eskubideen arloko nazioarteko jurisdikzioan ikusezinak ziren emakumeak nazioarteko tresna juridikoetan agertzen dira orain. Aldi berean, posizio periferikoan zeuden eta instituzioek zein GKE-ek oso gutxitan lehenesten zituzten eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak ere lehen planoan daude orain.



Erreferentziako nazioarteko bi tresna

- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna – PIDESC.
- Emakumeen aurkako Era Guztietako Bereizkeriak Desagerrarazteko Konbentzioa – CEDAW.

Edonola ere, oraindik ere bidean aurrera egin beharra dago, sozialekin eta kulturalekin nahastu gabe batez ere emakumeentzako eskubide ekonomikoak zehaztu eta sakon aztertzen dituen nazioarteko benetako esparrua egon dadin. Oro har, emakumeen eskubide ekonomikoen betearazpena ez da gobernuen eta garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen (aurrerantzean, GGKE) ardatz

estrategikoa izan. Hori dela eta, hainbat eta hainbat kontraesan agertzen dira praktikan zehazteko orduan, eta haien aldeko jarduketak ez dira sistematikoak izan, eta ezin izan diete politika makroekonomiko handiei aurre egin. Azkenik, neoliberalismoa bera eta haren berezko akatsei aurre egiteko ezarritako neurriak hedatzean, askatasun ekonomikoak gero eta gehiago murriztu direnez, are zailagoa da eskubide ekonomikoak defendatzea eta ezartzea.

Eztabaida hauetan guztietan, funtsezkoa izan da mugimendu sozialek eta, batez ere, feminismoek egin duten ekarpena, emakumeen giza eskubideen benetako erabileraren gaia jarri dutelako mahai gainean. Arlo ekonomikoan, beraz, halaxe sortzen da ekonomia feminista, eta aztertu egiten du prozesu ekonomikoek beste era bateko eragina dutela emakumeen artean sistema sozio-ekonomikoan bertan desberdintasunezko posizioan daudelako gizonen aldean. Horren ondorioz, sistema bera sustraitik bertatik jarri da kolokan. Ekonomia feministak ohiko ekonomiaren porrotaren erruduntzat hartzen ditu nagusi den ikuspegiaren oinarri diren banakako harreman arrazional, berekoi bezain lehiakorrak, eta, horren ordez, mugitzen gaituzten elkarmendetasunezko harreman korapilotsuak nabarmentzen ditu. Edonola ere, ez dugu zehatz-mehatz azalduko, hurrengo orrialdeetan horren ondorioz sortutako zenbait inplikazio ikusi ahal izango ditugulako.

Atal honi amaiera emateko, zertxobait azpimarratu nahi dugu, zenbait lekutan eta gure hurbilketaren helburu diren Andeetako herrialdeetan ere “feminista” hitzarekin lotutako guztiaren inguruan sortzen diren minberatasunen eta gaizkiulertuen jakinaren gainean gaudela adierazteko. Batzuen ustez, feminismoa matxismoaren bertsio baliokide eta kontrajarria da, eta gizonen zein emakumeen ustezko desberdintasunak gainditzen ari dira apurka-apurka, baina, batez ere, gazteen artean. Beste batzuen iritziz, ostera, gai horiek nabarmentzean, emakumeak eta gizonak banatu eta aurka jartzen dira, haien arteko osagarritasuna sustatu beharrean. Beste batzuen esanetan, ordea, inposatutako eragile kolonizatzailea da feminismoa. Mendebaldeko diskurtso feministaren inguruko beste begirada eta kritika horiek aitortuta, diskurtso hori berori hartuko dugu abiapuntutzat, logika europazalean erori gabe. Testuan bertan, batzuetan emakumeak eurak oro har aipatu beharko ditugu, oso mugatuta gaudelako begirada guztiak kontuan hartzeko eta aukera guztiak jorratzeko orduan.

1.2. Nora goazen: ibilbidearen eskema

Bidaia egingo dugu Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean zehar, bertako artikuluek babespean dituzten eskubide ekonomikoak zein diren azaldu diezaguten. Artikulu bakoitzaren edukiek eta hutsuneek behar besteko aztarnak emango dizkigute, emakumeek eskubide horien inguruan

dituzten baldintzei eta jarrerai buruzko esparru juridiko horren atzean zer ezkututzen den jakiteko.

Horretarako, emakumeek euren buruari galderak egiteko daukaten esperientziari utziko diogu nazioartean aitortutako eskubideekin hitz egiten. Horri esker, begirada feministak errealitatea interpretatzeko darabiltzan zenbait azterketa-giltzarri zehaztu ahal izango ditugu, bere ekarpenen bitartez PIDESCen ezarritako eskubide ekonomikoen edukia aberasten duelako eta ohiko interpretazioetik harago daramatzalako. Eskubide ekonomikoen aurkezpen hau garatzeko, iparraldean nahiz hegoaldean gaiari buruz eztabaidatzeko antolatutako jardunal-dietako ondorioak, zabalkunderako testuak eta ikerketak hartu ditugu kontuan.

Hurrengo taula egin beharreko ibilbidearen aurrerakina da, bisitatuko dituzten lekuen izenak zein diren jakitea gustuko duten adimen ikusnahien gozamenerako.

1. taula. PIDESCen zehar egindako ibilbidea eta irakurketa feminista			
PIDESCeko artikulua	Eskubide ekonomikoen kontzeptuak	Irakurketa kritiko feminista	Proposamen feminista
2. art.	Unibertsaltasuna	Unibertsaltasunaren jardun alboratua	Bereizgarritasuna
3. art.	Emakumeak gizarteratzeko prozesua / Eskubide-berdintasuna	Berdintasunerako bideko zenbait abiapuntu / Emakumeen lekuak	Generoaren ikuspegia
6. art.	Lan emankorra	Lanaren banaketa sexuala	Etxeko eta zainketako lanen berdintasunezko banaketa
7. art.	Berdintasunezko lan-baldintzak	Baliabideen eta mozkinen eskurapena eta kontrola	Jabekuntza ekonomikoa
8. art.	Antolamendua, afiliazioa	Esparru publikoan sartzeko baldintzatzaileak	Jabekuntza politikoa
9. art.	Gizarte-segurantza	Familia-unitaterako sarbide menderatua	Banakako eskubideen menpean dauden emakumeak
10. art.	Familiarentzako eta amentzako babesa	Ama-zereginarekiko menderakuntza	Emakumeen autonomia ekonomikoa
11. art.	Politika publikoak	Generoaren ikuspegia zeharkakotzeko prozesua	Partaidetza eta eragin politikoa

Iturria: Berton egina

1.3. ...aireratzen ari gara

1.3.1. Eskubide unibertsalak?

PIDESCen zehar egingo dugun bidaiaren hasieran, hizpide ditugun errealitateekin lotutako artikuluak nabarmenduko ditugu. Bidaiako lehenengo geldialdia 2. artikuluan egingo dugu. Bertan, unibertsaltasuna eta ez-bereizkeria funtsezko printzipioak direla eta giza eskubideen gorputz kontzeptualaren oinarria direla adierazten da:



2.2. artikulua

“Itun honetako estatu alderdiek behar besteko konpromisoa hartzen dute, bertan aipatzen diren eskubideak honako arrazoi hauengatiko inolako bereizkeriarik gabe erabiliko direla bermatzeko: arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste era batekoa, jatorri nazional edo soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein izaera sozial”³.

Hasteko, PIDESCen aitortu egiten da zeinen garrantzitsua den eskubideak eurak arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politikoagatiko... inolako bereizkeriarik gabe bermatzea. Abiapuntua bereizkeria zehatzei buruzko artikulua nabari-nabaria da, egiaztatuta dagoelako bereizkeriarik egon badagoela eta, horren ondorioz, munduko biztanle askok eskubideen “unibertsaltasuna” lortzerik izan ez dutela. Eskubide “unibertsalak” “modu unibertsalean” ezartzen ez badira, baliteke beharrezkoa izatea “unibertsaltzat” zer hartzen dugun azaltzea. Hasiera batean, giza eskubideetarako unibertsaltzat jotako giza taldea erdi edo goi mailako gizon zuri, gazte, osasuntsu eta hiritarrek osatutakoa izan da, hau da, eskubideen euren azalpenean zuzenean inplikaturik zeudenak⁴. Emakumeak, beste arraza eta larruazal-kolore bateko jendea, adinekoak eta behe-mailakoak (nekazariak, batez ere), ordea, ez zituzten eskubide unibertsaletan kontuan hartzen eta, are gutxiago, horrelako zenbait ezaugarri zeuzkatenak. Logika horren arabera, politikak, legeak, irudiak eta, azken batean, mundua prototipo ezin hobe (eta gutxiengodun) horren antzera eratu dira, euren androzentrismoari, arrazakeriari, antropozentrismoari eta klasismoari erreparatu gabe. Jardun alboratu horren aurrean, giza eskubideen oinarria den unibertsaltasun irrikatua zehaztu behar

³ PIDESC: 2. artikulua, 2. zenbakia.

⁴ 1789ko abuztuaren 26an, Frantziako Asanblada Nazional Konstituziogileak *Gizonen eta Herritarren Eskubideen Adierazpena* onartu zuen, emakumeak eta garai hartan indarrean zegoen esklabotza aipatu gabe.

izan da berriro, kontuan hartzen ez zituztela uste zuten pertsonen eta giza taldeek eurek eskubide horiez jabetzeko garatutako prozesuen bidez.

Emakumeen eta begirada feministaren kasuaz ari gara, unibertsaltasunaren hutsuneak kolokan jarri ondoren partikularitasuna nabarmendu eta logika horren barruan ez dauden egoerak agerian jartzen dituelako. Hori dela eta, emakumeen eskubide ekonomikoak buruz hitz egin behar da zehatz-mehatz. Feminista ezagunenak eta aztertuenak ere zuriak, hiritarrak eta erdi edo goi mailakoak badira ere eta, horren ondorioz, haien proposamenak jatorri duten testuinguruaren zein posizioaren adierazgarri badira ere, gaur egun aitortu egin beharra dago hainbat eta hainbat feminismo daudela eta gero eta gehiago zabaltzen direla ikerketen, argitalpenen edo interneten bidez⁵. Guzti-guztiek badute elkarrengandik zer ikasirik eta, azken batean, aberasterik, aberastean emakumeek jasandako bereizkerien bidegurutzeak aztertzeko aukera daukagulako. Hartara, unibertsaltasunari buruzko kritika eztabaida feministan bertan ere hartzen da kontuan bertako zereginaren barruan, eta, horri esker, badago zenbait arlotan azaldutako alboraketei erreparatzerik, hurrengo artikuluan xedatzen den bezala:



3. artikulua

“Itun honetako estatu alderdiek behar besteko konpromisoa hartzen dute, gizonen eta emakumeen itun honetan zehaztutako eskubide ekonomiko, sozial eta kultural guztiak modu berean edukiko dituztela bermatzeko”⁶.

Artikulu honek emakumeak lehen aitaturako “unibertsaltasunean” sartzea dauka helburu, eta, horretarako, estatuak behar besteko konpromisoa hartzen dute, gizonen eta emakumeen eskubide guztiak modu berean edukiko dituztela bermatzeko. Edonola ere, esperientziak egiaztatu egin du ez dagoela konpromiso hori betetzerik eskubide horiek zer testuingurutan eratu diren kontuan hartu gabe, azken batean funtsezkoa delako eskubide horiek benetan erabiltzen direla zehazteko. Hori dela eta, testuinguru hori *generoaren ikuspegiaren* bidez aztertzea proposatzen du begirada feministak.

⁵ Aipamen berezia egin behar dugu Francesca Gargalloren liburuari buruz (2013): *Feminismos desde Abya Yala. Ideas y propuestas de las mujeres de 607 pueblos en nuestra América* (2014ko maiatzaren 6an egindako kontsulta). Hementxe dago ikusgai: <<https://francescagargallo.files.wordpress.com/2014/01/francesca-gargallo-feminismos-desde-abya-yala-ene20141.pdf>>.

⁶ PIDESC: 3. artikulua.

Eraketa sozialtzat hartutako generoak adierazten digu zer den gizarteek eta erkidegoek gizon eta emakumeentzat egokitzen jotzen dutena haien desberdintasun biologikoen arabera, hau da, haien sexuaren arabera. Berezitasun kulturalak alde batera utzita, oro har emakumeak amatasunarekin nahiz zainketarekin lotzen dituzte; eta gizonak, etxetik kanpoko munduarekin. Horren ondorioz, emakumeak eta gizonak lotzen dituzte horretarako egokiak diren ezaugarri, kezka, jarduera, ahalmen, muga eta jarrerekin. “Berezko” lotura hori kontuan hartuta, zenbait jarduera edo adierazpide ere “berez” sailkatzen dira gizon edo emakumeentzako moduan, eta, horren arabera, modu desberdinean balioesten dira, jarduera bera modu desberdinean balioesten den bezala gizon batek edo emakume batek egiten duenean. Emakumeak eta gizonak izateagatik emakumei eta gizonei esleitutako jokabide sozial egokien inguruko eginkizunak, betebeharrak, onesprenak, debekuak eta aurreikuspenak generoko *zereginak* dira.

Ikuspegi horretatik, lehenengo eta behin, adierazi beharra dago hizpide dugun arlo ekonomikoa etxetik kanpo garatutakoa dela tradizioaren arabera eta, horren ondorioz, gizonen esparrua dela eta ez emakumeena. Beraz, ez da harrizkoa esparru ekonomikoan gizonetzkoen azterketa nagusitu izana. Honako hau da emakumeen eskubide ekonomikoei buruz hitz egitean sortzen den lehenengo baldintzatzaile handia: tradizioari begira gizonei esleitutako gaiak ari gara emakumeak subjektutzat hartuta. Hori dela eta, ikusi egingo dugu PIDESCeko zer artikulutan hitz egiten den berariaz eskubide ekonomikoei buruz eta zer gertatzen den emakumeen esparru nahiz zereginekin.

1.3.2. Lana egiteko eskubidea... eta lana banatzekoa...



6.1. artikulua

“Itun honetako estatu alderdiek lan egiteko eskubidea aitortzen dute, eta, bertan kontuan hartutakoaren arabera, pertsona guztiek eskubidea dute askatasunez aukeratutako edo onartutako lanaren bidez bizibidea ateratzeko aukera edukitzeko”⁷.

Gure gizarteetako oinarrizko lehenengo eskubide ekonomikoa lan egiteko eskubidea da, hau da, pertsona guztiek eskubidea dute askatasunez aukeratutako edo onartutako lanaren bidez bizibidea ateratzeko aukera edukitzeko. Dena dela,

⁷ PIDESC: 6. artikulua, 1. zenbakia.

pertsona guztiek benetan daukate askatasunez aukeratutako edo onartutako lanaren bidez bizibidea ateratzeko aukera? Egia esan, ez da dirudien bezain erraza sektore sozial askorentzat. Sektore kaltetu handiena, munduko biztanleen erdiak, gutxi gorabehera, emakumeak direla esan dezakegu, esleitzen dizkieten lanen bitartez ez dagoelako bizibidea *irabazterik, eustea baino ez*.

PIDESCen aitatzen den lana *lan emankorra* da, mozkina ematen duena, alegia. Bertan, hain zuzen ere, ondasunak ekoitzi edo zerbitzuak ematen dira, eta hainbat jarduera-mota kontuan hartzen dira; esate baterako, nekazaritza, abeltzaintza, artisautza, merkataritza, inoren konturako enplegua, zerbitzu publikoetako enplegua, garraioko enplegua... Lehen esan dugun bezala, lanaren kontzeptu “unibertsalak” tradizioari begira gizonek garatu duten lan horrekin dauka zerikusia. Nolanahi ere, bidelagun daukagun begiradatik, oso kontuan hartu behar dugu ordainpekoak ez diren eta gizonek garatzen ez dituzten zereginak eta jarduerak ere badirela lana. Lanaren kontzepzio zabal horretatik, lan emankorrek batera garatzen diren bi eratako lanak daudela esan behar dugu, sarritan doakoak diren arren eta, horren ondorioz, ohiko ekonomiarentzat ikusezinak diren arren: lan bateratua eta ugalketako nahiz zainketetako lana.

Lan bateratuan, norberak taldeko prozesuetan edota erkidegoaren onerako prozesuetan parte hartu behar du. Honako hauexek inplikaturik daude lan horretan: lidergoa, batzorde zein elkarteetako partaidetza, hezkuntzako jarduerak, ospakizunen prestaketa, jarduera erlijiosoak, gizarte-zerbitzuak...

Bestetik, *ugalketako eta zainketetako lana* behar-beharrezkoa da pertsona guztien bizitzari eusteko; esate baterako, etxerako janaria, energia, ura eta egurra lortzea; elikagaiak prestatzea; adingabeak eta adinekoak zaintzea; garbitzea... Lan hori emakumeek eurek egin ohi dute dohainik etxean bertan, eta ez du inolako kosturik ez enpresentzat ez estatuentzat. Izan ere, sortzen dizkien mozkin handi-handiei ateratzen diete onura.

Gizonek eta emakumeek hiru eratako lan horietan parte hartzen dute, haien zereginak desberdinak badira ere (ikusi 2. taula).

2. taula. Zeregin hirukoitzaren esparrua		
	Emakumeei esleitutako zereginak	Gizonei esleitutako zereginak
Ugalketarako lana	“Amak eta etxeko andreak” Ugalketa, seme-alaben zainketa, adinekoen atentzioa eta etxeko lanak.	“Familia-buruak (agintea, babeslea, hornitzailea...)” Ez dute inolako erantzukizun iraunkorrik, eta lantzean behin egiten dituzte etxeko lanak.
Lan emankorra	Agerpen txikiagoa dute ekonomia formalean; eta handiagoa, informalean. Soldata txikiagoak jasotzen dituzte. Bigarren mailako hornitzailetzat hartzen dituzte, familia txiroen diru-sarreretan ekarpen handia egiten duten arren. Diru-sarrereren hornitzaile bakarrak dira, emakumeen ardurapean dauden familietan.	Lan-indar gehiena dute ekonomia formalean. Diru-sarrereren hornitzaile bakartzat hartzen dituzte, langabezia egon arren. Sarritan, gizarte-mailako erakundeetako afiliatuak dira.
Lan bateratua	“Kudeatzaile bateratuak” Ugalketa-zeregina hedatzen da. Erakunde mistoen hierarkian, hain garrantzitsuak ez diren karguak betetzen dituzte, eta nekez daude lidergoko karguetan. Euren partaidetza politikoa mugatuta dago ugalketarako zereginean duten arduraldiगतिक eta indarreko arau sozial zein kulturalengatik.	“Auzo-agintea” Erkidegoko zuzendariak dira, eta gai publikoak kontrolatzen dituzte. Jarduera publikoetako arduradunak dira: sindikatuen bilerak, alderdiak, elkarteak, azpiegituraren erosketak... Mugikortasun eta ospe handiagoa dute.

Iturria: Rede Mulher de Educação (1996)

Ikusten dugunez, emakumeek eta gizonek hiru eratako lanetan duten partaidetza ez da berdintasunezkoa. Emakumeek erantzukizun gehiago hartzen dituzte euren gain ugalketaren arloan. Gizonak, ostera, laneko indartzat hartutakoaren gehiengoa dira (lan emankorra), eta lidergoak betetzen dituzte erkidegoetan. Hau da, *lanaren banaketa sexuala* gertatzen da, eta kontzeptu horrek emakumeek zein gizonek egindako era guztietako lanekin daukate zerikusia, baita esleitzen zaizkien balio bereziarekin ere. Hartara, balio sozial eta ekonomikoa esleitzen zaio ordaindutako esparru emankor publikoari. Ugalketan eta zainketetan oinarritutako eta ez ordaindutako esparru pribatuak, ordea, ez dauka inolako aitorten ekonomikorik eta sozialik. Ideia horiek irudi kolektiboan hain sustraituta daudenez aldaezinak direla dirudien arren, gogoratu egin beharra dago lanaren banaketa sexuala berezkoa dela kultura zein une historiko bakoitzean eta urteen joan-etorrian nahiz kanpoko inguruabarrengatik aldatu daitekeela.



Emakumeen testuinguruari leku honetatik begiraten badiogu, ikusi egin ahal izango dugu abiapuntua zein den kontuan hartuta ezin dituztela euren eskubide ekonomikoak gizonen baldintza berberetan erabili. Biziari eusteko lan horien ondorioz ez da berezko eskubiderik sortzen, kasu onenean egilearen diru-sarrera eta eskubide sozialak “beste pertsona batekin daukan harremanagatik” sortzen direlako (Jubeto, Dema eta Larrañaga, 2010). Praktikan, soldatadun gizonarekiko menpetasuna daukan soldatarik gabeko emakumea izan ohi da. Gaur egun, oraindik ere, emakume asko daude egoera horretan. Bestetik, soldatapeko enplegua lortu duten emakumeek zailtasun handiak dituzte etxeko lanekin eta zainketako lanekin bateratzeko. Hori dela eta, agerpen bikoitzagatik ginkargaren eta absentzia bikoitzagatik erruduntasunaren arteko continuum horretan daude murgilduta⁸: emakumeek agerpen bikoitza dute etxean eta soldatapeko lanean, baina ezin dira ehuneko ehuneko egon ez batean ez bestean. Dena dela, ez dirudi oso egokia denik gizonen eta emakumeen lanerako eskubide bera daukatela bermatzeko orduan, PIDESCen bertan xedatzen den bezala. Beraz, “bizibidea ateratzeko” lanerako eskubidea ez ezik, “biziari eusten dioten” lanak banatzeko eta partekatze eskubidea ere izan behar dute emakumeek. Begirada feministari erreparatu gero, honako hauxe dugu hizpide: *etxeko eta zainketetako lanak berdintasunez banatzeko benetako eskubidea* (Jubeto, Dema eta Larrañaga, 2010).

⁸ Ideia hori Magdalena Leónek garatu du hemen: *Topaketa: Feminismoak garapenerako agendan*. 2010eko maiatzaren 27an eta 28an egin zen Bilbon.

Proposamen bakun bezain konplexua da, lan guztiak kontuan hartu eta partekatu egin behar direlako. Horretarako, lehenengo eta behin, bizia ahalbidetzen duen lana zein horrekin lotutako erantzukizun sozial eta bateratua balioetsi behar dira, eta, bigarrenez, lanaren karga globala banatu behar da berdintasunez. Hori bermatzeko, emakumeak eurak garapen ekonomikoko eragileak eta partaideak izan behar dira, baina, era berean, gizonak, enpresak eta estatua biziaren garapenerako eragileak eta partaideak ere izan behar dira. Hori dela eta, ekonomia feministaren ustez, ekonomiaren helburua ezin da izan kapitala ugaltzea bizia bera ugaltzea baizik.

TRABAJO MASCULINO EN EL CAMPO	
HORA	ACTIVIDADES
05H00	aseo personal
05H15	Apoyo a preparación de alimentos
06H00	Alimentación de animales menores
06H00	Preparación de herramientas
06H30	Desayuno familiar y peones
07H00	Inicio de trabajo agropecuario
10H00	Receso (toma de panela y agua) y arreglo de herramientas
12H00	Almuerzo y receso de una hora
13H00	Continuación de Jornada
16H00	Finalización de jornada de trabajo
16H30	Actividades extras (apartar el ganado abastecimiento de productos (alimentos)
17:30	Cena y organización del trabajo posterior



6.2. artikulua

“Eskubide horren erabateko eraginkortasuna lortzeko neurrien artean [...], orientazio eta prestakuntza tekniko profesionala eskaini eta programak, arauak eta teknikak prestatu beharko dira, [...] gizakien funtsezko askatasun ekonomiko eta politikoak bermatzen dituzten baldintzetan erabateko okupazio emankorra erdiesteko”⁹.

PIDESCeko bidean egindako hurrengo geldialdian, artikulua honetan adierazten denez, lan emankorrerako eskubidearen erabateko eraginkortasuna lortzeko, *gizakiek* orientazio zein prestakuntza tekniko profesionala eta arlo horretarako programak nahiz arauak eduki behar dituzte, erabateko enplegurako askatasun politiko eta ekonomikoak erdietsi ahal izateko. Hala ere, berriro ikusiko dugunez, egoera ez da berbera izango gizonentzat eta emakumeentzat.

Ama-zeregina eta etxeko zaintzaile-zeregina betetzean, emakumeentzat lan emankorra lortzea zaila bada, badirudi prestakuntza tekniko profesionala jasotzeko zailtasunak ere izango dituztela. Batetik, prestakuntza horrek ez dauka inolako zerikusirik emakumeak garatzen ari diren zereginekin. Bestetik, bateraezina izan ohi da pertsonak ardurapean dituztenen bizitzako erritmo, ordutegi eta eskakizunekin. Horren ondorioz, gainera, zailtasunak ere badituzte lanpostu hobekak lortzeko orduan. Hori dela eta, askotan, informaltasunera jo beste aukerarik ez dute emakumeek.

Familia-erantzukizunik eta zailtasun ekonomikorik gabeko gazte hiritar gehienek prestakuntza berdintasunez jasotzeko aukera badute ere, maila globalean arlo horretan desberdintasun asko daude oraindik, eta, gaur egun ere, genero-eten handiak daude bertan. Beraz, begirada feministak azpimarratzen du emakumeek euren ekoizpen-ahalmena hobetzeko beharrezkoak diren jakintzak jasotzeko eskubidea izan behar dutela benetako emakumeek euren testuinguruan daukaten denborara egokitutako formatuetan. Gainera, behar den moduko prestakuntza ere eskaini behar diete, erabateko okupazio emankorra erdietsi eta, horren bidez, euren garapen ekonomiko, sozial eta politikoa lortu dezaten.

⁹ PIDESC: 6. artikulua, 2. zerbakia.

1.3.3. “Soldata bera lan berberagatik”: ordainsaria eta lan-baldintzak

PIDESCeko 7. artikuluan, pertsona guztiak berdintasunez lan-baldintza egokiak edukitzeko eskubidea dutela adierazten da. Artikuluaren garapenean bertan, baldintza horiek zein diren zehazten da, hau da, laneko segurtasuna eta higieena, aukera-berdintasuna, atsedena eta aisialdia eta ordainsari egokia. Lege-testuari erreparatuko diogu une batez, emakume eta gizonentzako asmo irrikatua azaltzen delako bertan:



7. artikulua

“Itun honetako estatu alderdiek aitortu egiten dute pertsona guztiak berdintasunezko lan-baldintza egokiak edukitzeko eskubidea dutela, baina, batez ere, honako hauxe bermatzeko:

- a) Langile guztiei gutxienez honako hauxe eskaintzen dien ordainsaria:
 - i) Berdintasunezko soldata berbera balio bereko lanagatik, inolako bereizkuntzarik egin gabe; eta, batez ere, gizonenak baino txarragoak ez diren lan-baldintzak bermatu behar zaizkie emakumeei, lan berberagatik soldata bera izan dadin.
 - ii) Eurentzako eta haien familientzako izaera-baldintza duinak [...].
- b) Laneko segurtasuna eta higieena.
- c) Lanean bertan, guztiak dagokien goragoko kategoriara igotzeko aukera berbera eduki behar dute, zerbitzu-epealdia eta gaitasuna bakarrik kontuan hartuta.
- d) Atsedenaldea, aisialdia, lan-orduen zentzuzko muga, ordaindutako aldian aldiko oporrak eta jaiegunen ordainketa”¹⁰.

Lehenengo eta behin, guretzat oso deigarria da nolako lengoia erabiltzen den artikulua honetan. *Pertsona guztiak* eskubide horren titularrak direla dioenean, legegileak *langile guztiak* ditu hizpide, eta *eurentzako eta haien familientzako* izaera-baldintza duinak lortu behar dituzte. Lan-baldintza horiek lehen aipatu dugun unibertsal horrentzakoak dira, hain zuzen ere. Dena dela, PIDESCen bertan emakumeei buruzko aipamen berezia egiten da puntu batean: soldataz hitz egitean. Horrela, bada, bertan xedatutakoaren arabera, *soldata berdintasunezkoa eta berbera* izan behar da *balio bereko lanagatik, inolako bereizkuntzarik egin gabe; eta, batez ere, gizonenak baino txarragoak ez diren lan-baldintzak bermatu behar zaizkie emakumeei, lan berberagatik soldata bera izan dadin*. PIDESCen

¹⁰ PIDESC: 7. artikulua.

aipamen berezi hori egiten da, oraindik ere oso agerikoa delako soldata-eten handia dagoela iparraldean nahiz hegoaldean. Gainera, egiaztatu egiten da emakumeek eta gizonak ez dutela berbera kobratzen lanpostu berberetan, eta lan-baldintza berberak ere ez dituztela.

“Emakumeok [...] behin-behinekotasun tasa handienak ditugu, lanaldi mugatuko lan gehienak garatzen ditugu eta hainbat bereizkeria horizontal nahiz bertikal jasaten ditugu merkatuko lanean. Hegoaldean, joera horiek are larriagoak dira, emakume askok egindako lan informalak nagusi direlako eta kolokatasunez, segurtasunik gabe eta estaldura sozialik gabe garatzen dituztelako” (Jubeto, Dema eta Larrañaga, 2010).

Emakumeek jasaten dituzten bereizkeriek badute zerikusirik merkatuak kontuan hartu nahi ez duen etxeko lan zorrotz bezain ernegagarriarekin. Horrek PIDESCen ezarritako lan-baldintzetan dauka eragina. Horren ondorio agerikoena, beraz, gainkarga eta aisialdirako eskubide mugatua dira, baina emakumeek kontratazioarako eta lanpostu-igoerarako dituzten aukeretan jasandako bereizkeria ere bai. Biziari eusteko eta bizibidea ateratzeko lanen arteko bateraezintasun horrengatik, familia eratzeko adina eta guraria dituzten emakumeei susmopean begiratzen diete lan-merkatuan, aurreikusitako lan-eskakizunak nekez beteko dituztelakoan.

Segurtasunari dagokionez, emakumeek eta gizonak giro osasungarri bezain seguruan lan egiteko eskubidea dute, laneko arriskuetatik babestuta egon daitezen eta elbarritasuna edo heriotza sorrarazi ditzakeen kalterik gertatu ez dadin. Edonola ere, segurtasun hori bermatzeko, emakumeen gorputza kontuan hartzen duen azterketa berezia egin behar da, haurdunaldian eta edoskitzaroan egon daitezkeelako eta zenbait jarduera are arriskutsuagoak izan daitezkeelako haientzat.

Emakumeentzako lan-baldintza horiek hobetzeko, zainketaren inguruko erantzukizun soziala sustatu behar da, eta lan-baldintzak pertsonen zein gizartearen ongizatearen zerbitzura egon behar dira eta ez merkatuaren eta gutxiengodunen interesen zerbitzura. Alde horretatik, honako arlo hauetako aldaketak proposatzen ditu begirada feministak: laneko eta merkataritzako ordutegiak, ordaindutako lanaldiaren iraupena eta emakumeen nahiz gizonen bizi-zikloekin bateratzeko modua, *“emakume eta gizonok etxetik kanpoko eta etxeko lanak berdintasunezko baldintzetan geure gain hartzeko gai izan gaitezen”* (Jubeto, Dema eta Larrañaga, 2010).

Gainera, funtsezko beste gai bat ere badago, emakumeei *eurentzako eta haien familientzako izaera-baldintza duinak* bermatu behar dizkiegula badiogu.

Ekoizpenaren arloan, jarduera guztiak ez dira soldatapekoak. Aitzitik, jarduera gehienak norberaren ekimenaren, ekimen pertsonalaren edo ekimen familiarraren eraginpean daude, eta, ekimen hori garatzeko, baliabide emankorrek eduki behar dira. Puntu horretan, beraz, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna gertatzen da berriro, eta are modu argiagoan antzematen da bi kontzepturen laguntzaz.



Lorpena eta kontrola

- Lorpena: ondasuna erabiltzeko aukera.
- Kontrola: jabetza eta ondasun horren erabilerari buruzko erabakia (erabilera zehazteko boterea).

Guztion eskubidepean dauden era askotako baliabideak daude, eta, lanari erreparatzeko geldialdia egitean gertatu den bezala, ikuspegi zabaletik edo mugatutik ikusi dezakegu. Haien artean, “baliabide naturalak” daude, baina guk gustukoago dugu *ondasun erkideak* direla esatea, lurra edo ura, adibidez. Era berean, ekoizpen-prozesuarekin lotutakoak ere badaude; esate baterako, makinak, intsumoak, trebakuntza... Halaber, baliabide sozial eta politikoak ere badaude; hala nola, zerbitzu publikoak (hezkuntza, osasuna, edateko ura edo elektrizitatea), elkarri laguntzeko sare sozialak eta biztanleak ordezkatzeko dituzten erakundeak. Horrez gain, gaur egun esaten den bezala, denbora baliabide preziatuena denez, aztertu beharreko baliabidea ere bada. Guztiguztiak askatasunekin daukate zerikusia, lortu egiten diren eta kontrolatzeko aukerarik dagoen kontuan hartuta.

Lurralde bakoitzeko azturen eta ohituren arabera, emakumeek zailtasunak izan dituzte heredatzeko, parte hartzeko, edukitzeko eta baliabideei zein diru-sarrerei buruz erabakitzeke orduan. Desberdintasuneko abiapuntu hori kontuan hartu ezean, nekez bermatu ahal izango dira gizonentzako eta emakumeentzako *berdintasuneko lan-baldintza egokiak*. Hori dela eta, begirada feministak baliabideak eta mozkinak lortzeko eta kontrolatzeko eskubidea eskatzen du emakumeentzat. Hizpide dugun arlo ekonomikoan, gainera, jarduera ekonomikorako funtsezkoak diren bi baliabide nabarmentzen ditu. Lehenengo eta behin, emakumeek badute eskubiderik lurraren eta beste ekoizpen-baliabide batzuen jabe zuzenak eta titularrak izateko eta, horri esker, ekoizpen-prozesuak askatasunez nahiz independentziaz garatzeko. Bigarrenez, emakumeek badute eskubiderik ekoizpen-jardueren garapenerako finantziazio-iturriak zuzenean, berdintasunez eta baldintza berberetan eskuratzeko. Beraz,

emakumeen jabeakuntza ekonomikoa izango da helburua, hau da, *“euren diru-sarrerak sortzeko eta administratzeko eta baliabide emankorrak lortzeko eta kontrolatzeko gaitasuna edukitzean erdiesten den autonomia ekonomikoa”* (Escobar, Landa eta Romero, 2007).

1.3.4. Afiliatorako baldintza errazagoak



8. artikulua

“Pertsona guztiek sindikatuak sortzeko eta hautatzen duten sindikatuan afiliatzeko eskubidea daukate, eta kasuan kasuko erakundeko estatutuei baino ez diete heldu behar, euren interes ekonomiko eta sozialak sustatzeko eta babesteko”¹¹.

PIDESCeko bidean aurrera egiten badugu, pertsona guztiek sindikatuak sortzeko eskubidea eta afiliatzeko askatasuna dituztela ikusi ahal izango dugu. Artikulu honetan aipatutakoaren arabera, taldean antolatu beharra dago, norberaren eskubideak defendatzeko. Dena dela, pertsona guztiek antolatzeko aukera eduki dezaten, horretarako baldintzak eman behar dira. Afiliatorako beharrezkoak diren baldintzak nabarmentzen direnean, pertsonak esparru publikoetan sartzeko eta antolatzeko dituzten oztipoak ere azpimarratu behar dira.

Emakumeek familian bertan duten zeresan handiagatik denbora eta espazio arloko eskari etengabea jasotzen dutenez, antolatzeko aukera gutxiago dituzte. Antolamendu politikorako denbora eta kokapen arloko eskariak ere ez dira bateragarriak izaten pertsonen biziari eusteko lanekin. Bestetik, familien eremuak eta bertan garatzen diren lan-motak ere ez dira toki onenak, jendaurrean hitz egiteko moduko trebetasunak eta gaitasunak garatzeko, proposamenak egiteko eta, azken batean, kanpoko munduko harremanetako kodeak zein diren jakiteko. Hori dela eta, esparru publikoranzko urrats hori ematea prozesu osoa izan daiteke. Antolatzeko gaitasunari begira, emakume askok kalean edo etxean modu informalean eta bakarrik lan egiten dutenez, eurentzat oso zaila da elkartzea euren eskubide ekonomikoak defendatu nahi dituztenean.

Azken batean, baldintza horien guztien jakinaren gainean egon behar gara, emakumeen antolamendurako mekanismo egokiak sortzeko. Azken finean,

¹¹ PIDESC: 8. artikulua, 1. zenbakia, a literala.

emakumeak antolatzen ez badira eta eragin politiko etengaberi ez badute, ez da inolako aldaketarik lortuko ez lan-arloan ez arlo politikoan, oso beharrezkoak izan arren. Kasu honetan, beraz, emakumeen jabekuntza politikoa izango da helburua.

1.3.5. Gizarte-segurantzarako banakako eskubidea



9. artikulua

“Itun honetako estatu alderdiek aitortu egiten dute pertsona guztiek gizarte-segurantzarako eta aseguru sozialerako eskubidea dutela”¹².

Hurrengo geltokian, gizarte-segurantzarako eta aseguru sozialerako eskubidea daukagu zain, hau da, gizonak eta emakumeak daukaten eskubidea epe laburrerako osasun-asegurua eta erretiroa bermatzen duen aseguru soziala edukitzeko. Artikulu honetan, argi eta garbi azaltzen da eskubideen subjektua “gizabanakoa” dela, eta, berriro ere, enpleguaren bidez eskubide hori lortzeko aukera eduki ohi duen subjektua hartzen da kontuan.

Egia esan, egiaztatu egiten da emakume askok modu informalean, kolokatasunez, segurtasunik gabe eta estaldura sozialik gabe lan egiten dutela. Emakume horientzat eta beste hainbat emakumerentzat, askotan gizarte-segurantzarako edo aseguru sozialerako eskubidea familia-unitatearekin daukaten loturaren baldintzapean dagoenez, ezin izan dira berezko eta banakako eskubide ekonomikoak dituzten subjektu moduan eratu. Begirada feministaren proposamenaren arabera, ordea, emakumeek prestazio sozial eta ekonomikoak jasotzeko eskubidea eduki behar dute, eta ez dira familia-unitatearen baldintzapean egon behar. Kultura askotan familia eta erkidego arloko batasuna oinarria dela aitortuta ere, ezin da aitzakia horren eraginpean onartu emakumeek banakakotasunarekin lotutako eskubiderik ez edukitzea (gizonen eskubide horiek badituztela kontuan hartuta). Familiako pertsona bakoitza eskubidedun subjektua izatea da xedea.

Ikuspegi hori Ekuadorko 2008ko Konstituzioan hartu zuten kontuan:

“Gizarte-segurantzarako eskubidea pertsona guztien eskubide ukaezina da, eta estatuaren funtsezko betebeharra eta erantzukizuna izango da [...].

¹² PIDESC: 9. artikulua.

Estatuak gizarte-segurantzarako eskubidea bermatu eta benetan betearazi beharko du, eta, bertan, honako hauexek hartu beharko ditu kontuan: etxean ordaindu gabeko lana egiten dutenak, landa-ingurunean automantenurako garatutako jarduerak, era guztietako lan autonomoak eta langabetuak”¹³.



10.1. artikulua

“Gizarteko berezko eta funtsezko elementua denez, familiari ahalik eta babes eta laguntza handiena eman behar zaio, baina, batez ere, eratzeko orduan eta ardurapean dituen seme-alabak zaindu eta hezi egin behar dituztenen”¹⁴.

Hain zuzen ere, artikulua hau da familiari emandako balioa zein den erakusten diguna. Zeharka, artikulua ugalketako zein zainketetako lanaren garrantzia ere aitortzen duela esan dezakegu, *gizarteko berezko eta funtsezko elementuaren eraketa* sustatzen duen lana dela adieraztean: familia. Edonola ere, ez da lan horien inguruko erantzukizunik ezartzen, eta familietan bertan ugalketako nahiz zainketetako lanaz nor arduratzen den ere ez da aipatzen. Hona hemen azalpen argigarria:



10.2. artikulua

“Erditu baino lehen eta ostean, amei babes berezia eman beharko zaie zentzuzko epealdian. Epealdi horretan, lan egiten duten amei ordainpeko edo gizarte-segurantzako prestazio egokidun lizentzia eman beharko zaie”¹⁵.

Hartara, argi eta garbi diosku nor den lan horietaz arduratzen den subjektu nagusia: amak. Hala ere, *lan egiten duten amek* baino ez dute ordainpeko edo prestazio egokidun lizentzia edukiko. Orain, ordea, azpian dagoen lanaren kontzeptuari etxean ordaindu gabe egiten diren lanak ahazten zaizkio. Artikulu honetan, emakumeak eurak protagonistak dira, baina amatasunarekin eta etxetik kanpoko ordainpeko lanarekin daukaten lotura estupean baino ez.

¹³ CRE: 34. artikulua.

¹⁴ PIDESC: 10. artikulua, 1. zenbakia.

¹⁵ PIDESC: 10. artikulua, 2. zenbakia.

Benetan bete dadin, zehaztu egin beharra dago zer den *zentzuzko* epealdia, zein diren *prestazio egokiak*, zer gertatzen den “lan egiten ez duten” amekin eta zer jazotzen den amek oro har izan beharreko babesarekin *erditu aurretik eta ostean* ez daudenean. Hori dela eta, interpretazioak subjektibizatu dira, eta, bertan, erakunde kontratugilearen interesak lehenetsi ohi dira amen interesen aldean.

10. artikuluko 1. eta 2. zenbakiak batera egituratzean, ageri-agerikoa da gizartearen onartu egiten dela amek lotura banaezina dutela *berezko* familia-ingurunearekin eta haren *eraketarekin*. Izan ere, 3. zenbakian, familia-amatasuna-hazkuntza-emakumea sekuentzia osatuko da berriro. Horretarako, haurtzaroaren eta nerabezeroaren inguruko eskubideak jorratuko dira, eta familiako aita ez da inoiz inon agertuko, bizitzako etapa horretako partaidea izango ez balitz bezala. Hartara, familia heterosexuala unibertsal moduan ezartzen da, eta, bertan, ama-zereginaren menpean geratzen da emakumea.

Laburbilduta, ikusi dugun bezala, PIDESCen bertan behar besteko neurriak ezartzen dira, emakumeek gizonen esparruetan sartzeko aukera gehiago eduki ditzaten (esate baterako, *berdintasunezko soldata berbera balio bereko lanagatik*, etxetik kanpoko ordainpeko lanerako). Hala ere, ez ditu esparru pribatuaren eraketa eta horren ondorioz sortutako genero-zereginak ukitzen. Azken batean, ordainpeko lanak emakumeen funtseko lanean, hau da, seme-alaben zainketan eta hazkuntzan eraginik ez edukitzea da xedea. Testuinguru hori zabaltzeko, honako honexetarako benetako eskubidea proposatzen du begirada feministak: “*banakako eskubidea den emakumeen autonomia ekonomikoa, familiaren antolaera edo pertsonen elkarbizitza-eredua edonolakoa dela ere*” (Jubeto, Dema eta Larrañaga, 2010).

1.3.6. Eskubideak babesteko partaidetza

Bidearen amaierara iristear gaudela, pertsona guztiek eurentzako eta euren familientzako bizi-maila egokia edukitzeko daukaten eskubidea azaltzen da (elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak barne), baita izaera-baldintzak etengabe hobetzeko eskubidea ere.

Eskubide hori benetan betetzen dela ziurtatzeko, estatuek behar besteko neurriak hartu behar dituzte. Hartara, bete-betean sartzeko gara eskubideak praktikan ezartzeko eta erabiltzeko orduan funtsezko tresna diren politika publikoen arloan. Nolanahi ere, herrialdeetako politika publikoen arloan nagusi den eredua ez dago zeharkatu ditugun testuinguruen ikuspegian oinarrituta.



11.1. artikulua

“Pertsona guztiek eurentzako eta euren familiarentzako bizi-maila egokia edukitzeko eskubidea dute [...] Estatu alderdiek behar besteko neurriak hartuko dituzte, eskubide hori benetan betetzen dela ziurtatzeko”¹⁶.

Politika publikoak ez dira neutroak generoari dagokionez: datu makroekonomikoetako zenbaki aseptiko samarren atzean ezkututzen direnean ere, ondorioak desberdinak dira gizonentzat eta emakumeentzat. Amerika Latinoan egiturazko egokitzapenerako epealdietan bizitako esperientziak eta Europako politika sozialetako oraintsuko murrizketen ondorioz bizitako esperientziak egiaztatu egiten digute krisialdietan emakumeen kalteberatasun sozial eta ekonomikoa areagotzen dela. Emakumeen ordaindu gabeko lana da osasunean, laguntza sozialean, mendetasunean... egindako murrizketen ondorioak bere gain hartu eta arintzen dituen. Ondorio horiek politika publikoan kontuan hartzen ez badira, oso zaila izango da emakumei PIDESCen aipatutako *bizi-maila egokia* bermatzea.

Begirada feministak behin eta berriro dio orrialdeotan landu dugun genero-ikuspegiaren zeharkakotasunarekin batera politiken azterketa egin beharra dagoela maila eta fase guztietan. Horretarako, proposatu egiten da ugalketa sozialaren eta pertsonen ongizatearen bermatzaileak diren –benetan izan diren– emakumeek politika publikoetan parte hartzea: haien diseinuan, erabakietan eta kontrolean.

Emakumeen partaidetza hori beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Genero-berdintasuna politika publiko guztietan eta, batez ere, politika ekonomikoan kontuan hartzen dutela ziurtatzea da helburua –hau da, generoaren azterketa laguntza sozialerako politiketara ez mugatzea, orain arte egiten den bezala–. Jubetok, Demak eta Larrañagak (2010) honelaxe azaltzen dute eskubide ekonomikoen lengoaian: “*genero-berdintasunaren ikuspegiak politika ekonomikoan daukan ezarpen-mailaren jarraipena egiteko eskubidea*”. Horretarako, behar besteko baldintzak sortu behar dira, emakumeek erantzukizun hori euren gain hartu dezaten, eta behar besteko neurriak ere hartu behar dira, zaintza hori gizonekin eta eragile politikoeekin batera garatzeko eta berriro ere emakumeen erantzukizunpean eginkizun sozial handirik ez jartzeko, gainkargatuta duten zereginaren luzapena izango balitz bezala.

¹⁶ PIDESC: 11. artikulua, 1. zenbakia.

Laburbilduta, PIDESCen bidetik egindako ibilbideari erreparatuz gero, emakumeen eskubide ekonomikoan txertatuta daudeneko sistemaren epe laburrerako begirada mugatua aztertu beharra dago berriro. Emakumeen egoeren berezitasunak ez dira giza eskubideen unibertsaltasun alboratu bezain androzentrikoan kontuan hartzen. PIDESCeko zenbait artikulutan kontuan hartzeko berriazko moduren bat bilatzen den arren, genero-ikuspegiaren zabaltasuna barik ez dira emakumeen testuinguruetan islatzen. Azterketa egin bitartean, horren guztiorren adibideak ikusi ahal izan ditugu.

Batetik, sorleku duen testuinguru ekonomikoaren ondorioz, PIDESCek lan emankorra baino ez du ekonomiaren sustatzailetzat jotzen, eta ez ditu biziari begira funtsezkoak diren beste lan batzuk kontuan hartzen, ezta bertan garatutako zereginen banaketa sexuala ere. Beraz, lana berdintasunez eta egokitasunez garatzeko orduan, soldatapeko lanetarako beharrezkoak diren baldintzak baino ez ditu kontuan hartzen, eta, bertan, ez dira lan bateratuak, ugalketako lanak eta zainketetako lanak agertzen, ezta nagusi den logikaren barruan sartzen ez diren beste lan emankor asko ere; esate baterako, ekintzailetza informalak, familiarrak eta nekazaritzakoak –emakumeen agerpen handia daukaten zenbait adibide aipatzearen–.

Bestetik, PIDESC bera idaztean, ez dute kontuan hartu hasiera-hasieratik emakumeek desabantaila handia dutela baliabideak eta diru-sarrerak lortzeko eta kontrolatzeko orduan eta haien ekoizpen-jarduerak kolokakoak direla. Halaber, pertsona guztiek antolatzeke duten eskubidea ezartzeko orduan, ez dira kontuan hartzen nolako zailtasunak dituzten emakumeek eta gizonek esparru publikoetan sartzeko eta antolamendua bera eratzeko. Gainera aitatzten da emakumeek *aurretiaz* lortu behar dutela jabeak ekonomiko eta politikoa, jarduera ekonomiko eta politikoak pertsona berdin moduan garatu ahal izateko.

Azken finean, PIDESCen bertan, eskubidedun subjektua gizabanakoa bera da, eta familietan bertan ama-zereginaren menpean dauden emakumeak ez ohi dira ohiko ekonomian eskubidedun subjektua den gizabanako aske, berekoi eta arrazionalaren kategorizazio horren barruan sartzen. Hartara, PIDESCen bertan, emakumei buruzko berriazko aipamena egiten da soldaten berdintasunean eta ama-zereginen eduki behar duten babesean, baina ez dira behar besteko mekanismoak sakon aztertzen, euren ezkontza-loturak edonolakoak direla ere emakumeak eskubidedun benetako subjektuak izan daitezken –hau da, gizarte-segurantza eta beste prestazio batzuk eduki ditzaten– eta euren autonomia ekonomikoa lortu dezaten. Azkenik, bilbe hori guztia arautzen duten politikek eta instituzio publikoek ez dute gai horiek kontuan hartzen zeharkakotasunez laguntzen duen genero-ikuspeirik.

Azken batean, begirada honek kapitalaren ugalketaren eta biziaren ugalketaren arteko berezko gatazka dakarkigu eskutik. Gatazka hori hain handia denez eta emakumeen errealitateak kontuan hartzeko orduan begirada zabaltzea oso garrantzitsua eta zaila denez, eredu bera baliozkoa den aztertu beharra dago berriro, baita banakoko irabazi eta hazkuntza ekonomiko mugagabeei ematen dien lehentasuna ere. Emakumeak kontuan hartzea nahikoa ez dela pentsatu ohi dugu, baldintza berberetan egiterik ez dagoelako seguruenik. Beraz, baldintza horiek sorrarazten dituzten oinarriak aldatu beharko dira, eta, nazioarteko eztabaidan, garapenerako prozesu alternatiboak beste oinarri batzuen gainean bultzatzeko interesa sortu da. Hurrengo kapituluan, zentzu horretan sortzen ari den proposamena izango dugu aztergai.



2. Kultura arteko zirkuitu ekonomiko solidarioak: Ekuadorrek ekonomia sozial eta solidarioan egindako ekarpenak

2.1. Nondik gatozen: printzipio etikoak partekatzen dituzten jarduketa ekonomiko alternatiboak

Ekonomia sozial eta solidarioaren (ESS) inguruko eztabaida eta jarduna gero eta nabariagoak dira gaur egungo munduan. Ohiko ereduaren ondorioz elkarren artean lotuta dauden krisiak sortzen ari direnez (ekologikoa, finantzarioa, zainketen arlokoa...), gero eta pertsona, erakunde, instituzio akademiko¹⁷ eta estatu gehiago ari dira pentsatzen nola sustatu dezaketen abian dagoen ekonomia berri hori. Garatzen eta hedatzen ari den arren, ez da hain ohikoa ekonomia sozial eta solidarioaren eta ekonomia feministaren arteko loturei eta egituraketei buruz hausnartzea¹⁸.

Horrela, bada, zenbait ikuspegitatik, hainbat eta hainbat leku, enpresa kooperatibo, nekazarien eta emakumeen erakunde, landa-ingurune eta hirigunetan sortzen ari dira ondasunak hornitzeko eta zerbitzuak emateko modu berriak, eta bizia bera ugaltzea daukate helburu nagusi. Andeen inguruko herrialdeetan, modu berri horiek zenbait izen eta kontzeptualizazio dituzte; esate baterako, herri-ekonomia, ekonomia bateratua, ekonomia anitza... Lan honetan, *ekonomia sozial eta solidarioaren* kontzeptua izango dugu aztergai, Ekuadorko meSSEk¹⁹ darabilen terminoa delako. Mugimendu sozial horretan, hain zuzen ere, horrelako jardun eta antolaera ugari ari dira egituratzen.

“Ekonomia solidarioa jarduera ekonomikoaren ikuspegia da, eta pertsonak, ingurumena eta garapen jasagarria hartzen ditu kontuan beste edozein

¹⁷ Akademiaren kasuan, ikerlanetan eta prestakuntza-ikastaroetan islatu da hori; esate baterako, Argentinako Sarmiento Unibertsitate Nazional Nagusiko Ekonomia Sozialeko Maisutza edo Boliviako San Andresko Unibertsitate Nagusiko Garapenaren Zientzietako Graduondoko Ekonomia Anitz, Solidario eta Bateratuko Maisutza. Ekuadorren, honako ikastaro hauek aipatu ditzakegu, besteak beste: Andeetako Simon Bolivar Unibertsitateko Ekonomia Herritar eta Solidarioko Goi Espezializazioa edo Lojako Unibertsitate Nazionaleko Ekonomia Sozial eta Solidarioko Ikastaroa. Euskal Herriko Unibertsitatean, Gezki Institutuaren lidergopeko Ekonomia Sozial eta Solidarioko Unibertsitate Masterra nabarmetzen da, eta Hegoa Institutuak ikerketa, prestakuntza eta ekimen emankorrak sustatzen ditu; esate baterako, argitalpen hau txertatuta dagoen Lankidetzta Programa osatzen dutenak.

¹⁸ Ekuadorren egindako lehenengo esperientzia Sendasek honako lan honetan garatutako kontzeptualizazioa izan zen: CABRERA, Mary eta Lorena Escobar (2014): “Equidad de género y economía social y solidaria: Aportes de la economía feminista” in JUBETO, Yolanda, Luis Guridi eta Maite Fernández-Villa (ed.): *Diálogos sobre Economía Social y Solidaria en Ecuador. Encuentros y desencuentros con las propuestas para otra economía*, Hegoa, Bilbo.

Euskadin, EHUko eta Hegoako zenbait lagunek REAS Euskadiren (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareen Sarearen) lidergopeko ikerketa-ekintzako taldean parte hartu dutela nabarmendu beharra dago. Taldeak generoaren ikuspegia eta ikuspegi feminista kontuan hartzen dituen ESS sustatu nahi du, hausnarketaren, eztabaidaren eta diskurtsoaren zein tresnen sorreraren bidez. Aldi berean, ikuspegi hori REASeko jardueran eta bertako erakundeetan ere txertatu nahi du, ekonomia solidarioko erakundeek generoaren arloko autodiagnostikoak sustatu ditzaten.

¹⁹ Ekuadorko Ekonomia Sozial eta Solidariorako Mugimendua.

interesen ginetik. Era guztietako adierazpideak baditu ere, biziera da, pertsonen integritasuna hartzen du kontuan eta haren benetako xedearen menpean jartzen du ekonomia: gizakien garapen pertsonal, sozial eta ingurumen-arlokorako oinarri materialak jasangarritasunez hornitzea.

Ekonomia solidarioak jarduera ekonomikoaren kudeaketan txertatu nahi ditu gizartea eta herritar guztien arteko harremanak arautu behar dituzten balio unibertsalak: berdintasuna, justizia, senidetasun ekonomikoa, elkartasun soziala eta demokrazia zuzena. Gainera, ekoizteko, kontsumitzeko eta banatzeko modu berria ere badenez, banakako eta taldeko premiei aurre egiteko alternatiba bideragarri eta jasangarri moduan proposatzen da, eta gizartea eraldatzeko tresna moduan sendotzea dauka helburu” (Guridi eta Jubeto, 2014: 44).

Eragile sozial eta ekonomiko horien harreman-moduak ohiko ekonomiakoekin inolako zerikusirik ez daukaten logiken eta printzipioen arabekoak dira. Printzipio horiei izena jartzean, euren burua aitortzeko eta balio bateratuen inguruan elkartzeko aukera daukate. Lan honen helburua, ordea, ESSren printzipioei buruzko eztabaida kontzeptuala egitea ez denez, berehalako ikusmira edukitzeko Guridik eta Jubetok egindako laburpena joko dugu (2014: 54). Horretarako, José Luis Coraggioren²⁰ proposameneko printzipioetan oinarritu ziren (Amerika Latinoan egindako teorizazioetako bat kontuan hartzearen), baita Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareko (REAS)²¹ Ekonomia Solidarioaren Gutunean ere²² (Europako testuinguruko esperientziaren adibidea jartzearen). Printzipio horiek zein diren azaltzen da hurrengo taulan.

²⁰ Ikus CORAGGIO, José Luis (2011): *Economía Social y Solidaria. El trabajo antes que el capital*, Alberto Acosta eta Esperanza Martínez (ed.), FLACSO eta Abya Yala, Quito.

²¹ “REAS EKONOMIA ALTERNATIBO ETA SOLIDARIOKO Sareen Sarea da, eta lurraldeko zein sektoreko sareetan elkartuta gauden bostehunetik gora erakunde ditu kide. Nazioartean, RIPPESen bidez daukagu agerpena (Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sustapenerako Kontinente Arteko Sarea). Arlo juridikoari begira, REAS inolako irabazi-asmorik, alderdi-afiliaziorik edo erlijio-afiliaziorik gabeko elkarrekin da, eta bere jarduketaren eremua Estatu espainoleko lurralde osoa da” (2015eko maiatzaren 14an egindako kontsulta). Hementxe dago ikusgai: <http://www.economiasolidaria.org/red_redes>.

Sareko kideak diren enpresa eta erakunde sozialek pertsonen eta haien ingurunearen zerbitzura dagoen ekonomia bultzatzen dute. Horretarako, gizartea eta, batez ere, ekonomiako fase guztiak (finantziarioa, ekoizpena, merkaturaketa eta kontsumoa) eraldatu nahi dituzten proposamen kolektiboak sendotzen ditu. Esparru horren barruan, hainbat eratako jardunak sustatzen ditu: banka etikoa, auditoria soziala eta merkatu soziala, besteak beste. Azken hori, hain zuzen ere, pertsonak eta ekoizleen zein kontsumitzaileen erakundeak elkartzeko eremua da, eta ekoizpenaren zein kontsumoaren zikloa ekonomia sozial eta solidarioaren barruan itxi ahal izatea du helburu. REASeko kideak diren erakundeak bat datoz sare horren arabera ekonomia sozial eta solidarioaren ezaugarri bereizgarriak diren printzipioekin.

²² Ikus REAS – Sareen Sarea (2011): “Ekonomia solidarioaren gutuna” (2015eko maiatzaren 14an egindako kontsulta). Hementxe dago ikusgai: <http://www.economiasolidaria.org/files/2011_EKONOMIA_SOLIDARIOAREN_GUTUNA_REAS.pdf>.

3. taula. Ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioak

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea (REAS)	José Luis Coraggio
<p>BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pertsonak, duintasun bereko subjektuak. - Pertsona guztien interesei berdintasunez emandako erantzuna. - Desberdintasunen eta aniztasunaren elkarrekiko aitorpena. - Aukera-berdintasuna. - Geure bizitzako arlo guztietan parte hartzeko eskubidea. - Informazio eskuragarri, argi eta ohikoa jasotzeko eskubidea. - Informazioaren gardentasuna. <p>LANAREN PRINTZIPIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Giza dimentsioa. - Dimentsio soziala. - Dimentsio politikoa. - Dimentsio ekonomikoa. <p>JASANGARRITASUNAREN PRINTZIPIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontsumo arduratsua. - Elikaduraren burujabetza. - Espezieen eta lurraldeen babesa. - Deshazkuntza. - Ekoizpen garbia. - Lurraldearen antolamendua eta hirigintzako plangintza. <p>LANKIDETZAREN PRINTZIPIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehia barik lankidetzat sustatzea. - Gizarte-eredua taldean eratzea. - Ikaskuntza eta lankidetzapeko lana bultzatzea. - Lankidetzaren kultura sustatzea. <p>“IRABAZI-ASMORIK GABETASUNAREN” PRINTZIPIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Onura integrala kontuan hartu beharra: ekonomikoa, soziala, ingurumenekoa eta kulturala. - Ekimen ekonomiaren jasangarritasuna eta proiektuen xede sozialaren hobekuntza edo zabalkuntza helburu duten mozkinak. - Gizartearen zerbitzura dagoen aberastasuna eta ez kapitalaren metaketa pribatuaren zerbitzura. - Erakundeko fluxu ekonomikoetako finantziario etikoa. <p>INGURUNEAREKIKO KONPROMISOAREN PRINTZIPIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lurraldearen tokiko garapen jasangarri eta bateraturako partaidetza. - Sareetako inplikazioa eta gizarte-sareko beste erakunde batzuekiko lankidetzat. - Inguruneko alternatiba sozio-ekonomikoekin hartutako konpromisoa. <p>ZEHARKAKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Autonomia, autokudeaketa, kultura askatzailea, pertsonen garapen integrala, naturarekiko batasuna eta giza elkartasuna. 	<p>EKOIZPENAREN ARLOKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Guztiontzako lana. - Langileen aukera era guztietako jakintza eskuratzeko. - Langileen aukera ekoizpen-baliabideak eskuratzeko. - Lankidetzat solidarioa. - Gizarteari begira arduratsua den ekoizpena. <p>BANAKETAREN ARLOKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Justizia, ugalketaren bermea eta guztion garapena. - Norberari banan-banan metatutako baliabide emankorretan izandako ekarpenaren eta bere lanaren arabera eman beharra. - Inoren lana ez ustiatzeko prozesua. - Pertsonen edo erkidegoen ez-bereizkeria. <p>ZIRKULAZIOAREN ARLOKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Autosufizientzia (autarkia). - Elkarrekikotasuna. - Birbanaketa. - Trukea. - Plangintza. - Diruak ez du dirurik sortzen (lukurreriarik ez). <p>KONTSUMOAREN ARLOKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontsumo arduratsua. - Bizi-baliabide kolektiboen lorpena eta autokudeaketa. <p>ZEHARKAKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekimen askea eta gizarteari begira arduratsua den berrikuntza. - Aniztasuna/dibertsitatea. - Konplexutasuna. - Lurraldetasuna. - Arlo ekonomikoa arlo kultural eta politikoarekin egituratzeko prozesua.

Iturria: Guridi eta Jubeto (2014: 54)

2.2. Nora goazen: bizimodu onerako ekonomia

Honako haxe xedatzen da Ekuadorko 2008ko Konstituzioan:



Ekuadorko Konstituzioa. 283. artikulua

“Sistema ekonomikoa soziala eta solidarioa da. Subjektutzat eta helburutzat hartzen du gizakia. Gizartearen, estatuaren eta merkatuaren arteko harreman dinamikoa bezain orekatua lortzea eta naturarekin harmonian egotea du helburu. Horrez gain, bizimodu ona ahalbidetzen duten baldintza materialak eta inmaterialak sortzea eta ugaltzea ere badu xede”²³.

Konstituzioan, beraz, aitortu egiten da sistema ekonomiko sozial eta solidarioaren bitartez badagoela bizimodu ona lortzerik. Bizimodu onaren kontzeptua *Sumak Kawsayaren* itzulpena da (hizkuntza kitxuan). *Sumak* terminoak “betetasuna, ezin hobea, bikaina, zoragarria, ederra, goi-mailakoa” adierazi nahi du; eta *Kawsayak*, “bizitza, egonean izatea”. Beraz:

“Sumak Kawsaya bete-betean bizitzeko prozesua da. Bizitza material eta izpiritual orekatua. Harmonia eta erkidegoaren barruko nahiz kanpoko oreka eskuzabaltasunaren eta hobezintasunaren erakusgarri dira [...] Horretarako, bizitzen jakin behar da lehendabizi; eta elkarrekin bizitzen, ondoren. Bizitzen dakigunean, geure buruarekin gaude harmonian [...] Gero, izaera-modu guztiekin harremanetan jartzen edo bizitzen ere jakin behar dugu” (Huanacuni, 2010: 15).

Sumak Kawsaya ekuadortarrek partekatutako xedea dela kontuan hartuta, bete-betean bizitzeko prozesurantzko bidean alternatibatzat jotako ekonomia sozial eta solidarioa hurbilduko gara, Ekuadorko Ekonomia Sozial eta Solidarioarako Mugimenduak (aurrerantzean, meSSE) proposatutako ikuspegia kontuan hartuta. Mugimenduaren eskutik, Andeetako mundu-ikuskeraren elementuak egituraketarako jardunetan adierazten direla ikusiko dugu; esate baterako, kultura arteko zirkuitu ekonomiko solidarioak. Izan ere, zenbait dimentsiotan dihardute, konstituzioan aldarrikatutako sistema ekonomiko sozial eta solidarioantz igarotzeko prozesuan nortasunak, harremanak eta eraldaketak sortzeko.

²³ CRE: 283. artikulua.

2.3. Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidariora egindako lehenengo hurbilketa

2.3.1. ESSren azalpena eta printzipioak Ekuadorko meSSEren arabera

Sumak Kawsaya antzinako mundu-ikuskeran dauka jatorria, eta aukera politiko hau ohiko zentzuaren arabera hazkuntza ekonomikotzat jotako garapenaren alternatibetakoa da gaur egun. Aukera horren aldeko apustua egiteko orduan eta testu konstituzionalean nahiz instituzionaltasun publikoan sistema ekonomiko sozial eta solidarioarekin lotzeko orduan, zeresan handia eduki dute erakunde sozialek, ESSren inguruko antzinako eta gaur egungo jardunak aitortu daitezen mobilizatu direlako. Horra hor bere burua honelaxe azaltzen duen Ekuadorko Ekonomia Sozial eta Solidariorako Mugimendua:

“Ekuadorko Ekonomia Sozial eta Solidariorako Mugimendua agerpen nazionaleko talde soziala da, eta eragileen ekimenak egituratu, partekatu eta sendotu egiten ditu ekonomia solidarioko jardueren eta esperientzien bidez. Era berean, natura eta gizakia errespetatzen ditu, eta elkarrizketak, jakintzak zein jakitateak sustatu, balioetsi eta eratu egiten ditu ikaskuntza bateratuaren bidez. Horretarako, proposamenak sortu, zabaldu eta lekuratu egiten ditu tokian-tokian, nazio-mailan, eskualdean eta maila globalean, elkartasunezko ekonomiaren esparruan gizartea eraldatzeko, bizia bera ospatzeko eta Sumak Kawsaya lortzeko (bizimodu ona)” (Ochoa et al., 2015).

Mugimendu honentzat, *Sumak Kawsayak* erkidegoan oinarritutako antzinako jatorrizko kontzepzioan dauka zentzua. Hori dela eta, behin eta berriro azaltzen da *ondo (elkar)bizi* beharra dagoela mendebaldeko garapen-ereduaren ezaugarri bereizgarria den *bizitza hobearen* ideia indibidualistatik aldentzeko. *Sumak Kawsaya* horrela ulertzen dutela kontuan hartuta, Ekuadorren ekonomia sozial eta solidarioa kulturaren osagaia eta ondare kulturala ere bada, belaunaldi belaunaldi gorde, zaindu eta igorri delako eta nagusi den ereduaren ondorioz isolatua eta desegituratua izateko eduki duen arriskuari aurre egin ahal izan diolako. Esparru horretan, ESS ekoizpen-eredutik harago doa, eta elkarbizitza-eredua dela esan daiteke:

“Ekonomia sozial eta solidarioa pertsonen eta naturaren arteko elkarbizitza-eredua da, GIZA premiei aurre egiten die eta BIZIAREN euspena bermatzen du begirada INTEGRALAREN bidez. Horretarako, ANTOLAMENDUAREN indarra nabarmentzen du eta ANTZINAKO jakitateak nahiz jardunak ezartzen ditu, GIZARTEA eraldatzeko eta BAKEAREN kultura eratzeko” (meSSE, 2010).

Hona hemen azalpen horrekin lotutako eta meSSEko kideek partekatutako printzipioak:

- *“Elkartuta, elkartasunez eta erkidetasunez egindako lana.*
- *Erabaki demokratikoak eta elkarketa-arlokoak hartzeko prozesua.*
- *Pertsonaren eta naturaren inguruko erantzukizuna.*
- *Kultura artekotasuna, errespetuzko harremanetarako eredia.*
- *Justizian, elkarrizketan eta elkarrekikotasunean oinarritutako harremanak.*
- *Autonomiaren eraketa eta erakundeetako autokudeaketa”.*

2.3.2. Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioko trazuak

Printzipio horiek ezarri nahian, meSSEk ondare kulturala bera hartzen du abiapuntutzat, ikasbideen trukearen eta jakitateen elkarrizketaren bitartez ekonomia sozial eta solidarioako erakunde, sare eta mugimenduen diskurtsoa eta esperientziak sustatzeko eta bizimodu onean dauzkaten ekarpenak agerian jartzeko. Esparru horretan, 2010. urteaz geroztik, mugimenduak partaidetzazko ikerketa-ekintzarako prozesua garatzen du Ekuadorko ESSko erakunde eta erkidego bultzatzaileekin, eta gaur aztergai dugun proposamen kontzeptual, metodologiko eta estrategikoa etorri da horrekin batera: Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioak (KAZES).

Labur-labur esanda, KAZESen kontzeptuak lurraldeetan lekuratu nahi ditu ESSko esperientziak, eta haien artean ere jarri nahi ditu harremanetan, lotu egin nahi ditu, baina pertsona eta erakunde ekoizle zein ekonomikoekin ez ezik, kontsumitzaileekin ere bai. Hona hemen lotura horiek ezartzeko erabiltzen diren bi estrategia: 1) batetik, *“merkatu solidarioen eraketa eta sendotasuna [...] trukeak sustatzen dituzten gune moduan, baita azokak, saskiak, dendak, salmenta zuzena eta beste era bateko merkataritza”*²⁴; eta, 2) bestetik, kontsumo solidarioa. Hartara, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena eta zirkuitu laburrak bultzatzen dira. Bi strategiak abian jartzean, emakumeen agerpena oso handia da Ekuadorren, haien partaidetza nagusi delako azoken, saskien... bidez merkaturatzen dituzten ekoizle agroekologikoen artean nahiz erosketak eremu berberetan egiten dituzten kontsumitzaileen artean.

²⁴ JIMÉNEZ, Jhonny (2015): “Movimiento de Economía Social y Solidaria del Ecuador: Circuitos económicos solidarios interculturales” in OCHOA, William *et al.*: *Diálogo de Saberes para la Economía Solidaria. Guía pedagógica MESSE, meSSE*, Quito.



Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioak

“KAZESak ekonomia solidarioaren printzipioak bizi dituzten eragile sozio-ekonomikoen multzo egituratua da, eta, bertan, elkartegintzako ‘C’ faktorea abian dago prozesu ekonomiko guztietan. KAZESak subjektuen arteko trukeak dira, eta elkarrekiko harreman arduratsuen mugimendu biribilean gertatzen dira (Silva, 2013).

[...] Alde horretatik, KAZESak ekonomia solidarioko jarduerak eta eragileak elkartzeko eremuak dira, eta honako arlo hauekin daude lotuta: ekoizpen osasungarria, finantza solidarioak, bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, kontsumo ostekoa, turismo bateratua, antzinako osasuna... Gainera, ekonomia solidarioaren printzipioekin bat egiten dute, eta egituratu egiten dira, gizakien funtsezko premiak estaltzeko eta bakearen kulturako gizartea eratzeko, hau da, berezko terminoen arabera, bizimodu ona (elkarbizitza) sustatzeko, Sumak Ally Kawsaya, alegia”²⁵.

Ekuadorren, KAZESen eraketa –kontzeptual eta praktikoa– berez sortzen da bere testuinguruan, baina ez dago beste prozesu batzuetatik isolatuta. Antzeko elementuak dituen pareko esperientzia Euskadi Merkatu Soziala da:

“Merkatu soziala REASek sustatutako ekimena da, eta pertsonen nahiz biziaren jasangarritasunaren zerbitzura dauden jarduera ekonomikoak bultzatzea dauka helburu. Merkatu horretan, ekonomia solidarioko erakundeek eta enpresek elkarrekin lan egiten duten, adierazgarritasun ekonomikoa edukitzeko. Merkatu horretan, ekoizle txikiek ekoizten dutenaren salmenta eta banaketa kontrolatzen dituzte. Merkatu horretan, kontsumitzaile arduratsuek bete-betean parte hartzen dute, isolatuta daukaten indarra biderkatzeko. Merkatu horren helburua ez da irabazi-asmoa, bidezkoagoak eta jasangarriagoak diren ekonomiaren eta munduaren eraketa sustatzea baizik.

Azken batean, ondasun zein zerbitzuen ekoizpenerako, banaketarako eta kontsumorako eta ikaskuntza bateraturako sarea da, irizpide etikoak, demokratikoak, ekologikoak eta solidarioak hartzen ditu kontuan eta

²⁵ Ibid.

*ekonomia solidarioko enpresak zein erakundeak eta banakako zain taldeko kontsumitzaileak ditu kide*²⁶.

Honako hauexek dira Euskadiko Merkatu Sozialak eta Ekuadorko KAZESek dituzten antzeko zenbait elementu:

- Kulturari begira testuinguru bakoitzera egokituta dauden terminoetan zehaztutako xedea: *“bizimodu ona (elkarbizitza), Sumak Ally Kawsaya”, “pertsonen eta biziaren jasagarritasunaren zerbitzura”*.
- Jarduerak orientatzen dituzten printzipio etikoak.
- Xede hori eta printzipio horiek partekatzen dituzten subjektuen multzoa, jarduera ekonomikoan daukaten posizioa edozein dela ere.
- Eragileak elkartzeko borondatea.
- Merkatua bera premiak estaltzeko edo mundu bidezkoagoa eratzeko tresnatzat hartzea eta ez berezko helburutzat.



²⁶ Iturria: “Merkatu Soziala Euskal Herria. Katalogoa 2014-2015”. Euskal Herriko Merkatu Sozialaren 2014-2015eko katalogoan, ekonomia solidarioko zenbait sektoretako 75 enpresaren eta erakunderen produktuak eta zerbitzuak agertzen dira: *“Kontsumo kritiko, arduratsu eta eratzailerako proposamenen katalogoa, merkatu kapitalistaren logikatik ahalik eta gehien alden du gaitzan”*. Honako arlo hauetako ekimenak azaltzen dira katalogoan: elikadura eta nekazaritza; energia eta ingurumena; jarduketa soziala; komunikazioa eta irudia; finantzak eta aseguruak; industria eta eraikuntza; merkataritza; osasuna, hezkuntza eta zainketak; lankidetzeta eta sentsibilizazioa; ostalaritza eta turismoa; garbiketa eta artapena; eta aholkularitzako zerbitzuak.

Hori guztiori lortzeko, tokiko ingurunean ekoizpenerako, trukerako, kontsumorako eta lan bateraturako lehendik zeuden jarduerak bereganatu, suspertu, birsortu eta bultzatu egin behar dira. Hartara, lehenengo eta behin, KAZESek lurralde zehatz batean ekonomia sozial eta solidarioarekin konpromisoa daukaten ekoizleak eta kontsumitzaileak elkartzen dituzte, eta, ondoren, zabaldu egiten dira *“modu sekuentzialean, ekonomia sozial eta solidarioarekin konpromisoa daukaten eragileen antolamendu eta eragin mailen arabera”* (Jiménez, 2015). KAZESen egituratutako jarduerak hainbat sektoretakoak izan daitezke, eta elkarren arteko menpetasuna dute aurrera egiteko orduan, 4. taulan azaltzen den bezala.



²⁷ JIMÉNEZ, Jhonny (2013): “Circuitos Económicos Solidarios Interculturales”, ASOCAM Amerika Latinoko XVI. Mintegirako aurkezpena, azaroa, Quito.

2.3.3. KAZESen printzipioak, dimentsioak eta harremanak

KAZESen inguruan egituratzean, zenbait printzipio hartu behar dira kontuan, eta, neurri batean, ekonomia sozial eta solidariokoak badira ere, modu berezian ere garatzen dira trukerako sarean esku hartzean sortutako mugimendu biribilean. Laburbilduta, honako hauexek dira (Jiménez, 2014)²⁸:

- *Elkartegintza*. Antolamendua, lan kolektiboa, lan bateratua, C faktorea²⁹. Pertsonen elkarrekin erabakitzeko aukera ematen dieten elkarteen jardura eta erabaki-gaitasuna kidetzaren beraren baldintzapean dago (eta ez jarritako kapitalaren kopurupean).
- *Elkarrekikotasuna*. Harreman simetrikoan, horizontalean emateko eta jasotzeko egintza. Ekonomia bateratuko funtsezko printzipioetakoa da Andeatako mundu-ikuskeran, ematea Pachamamatik jasotzeko eskertzea delako bertan, berehalako konpentsazioaren zain egon gabe eta beharrezkoa denean jasoko delakoan. KAZESeko elkarrekikotasun-egintzetan, *“helburu bakarra ez da produktuak eta zerbitzuak trukitzea, elkarrekikotasunaren produktuak ere badiren egintza izpiritual, korporal eta emozionaletan ere badaudelako murgilduta (besarkada, irribarrea)”*.
- *Osagarritasuna*. *“Pertsona edo erkidego batek produkturen bat ez badauka, erkidegoaren gaineratikoa eman egingo dio”*. Hain zuzen ere, osagarritasuna bera trukearen oinarria denez, landatzen diren produktuen aniztasuna babestea ere bada horren adierazgarri; esate baterako, finka agroekologikoetan. Bertan, produktu-aukera ugaria –familiaren elikadura eta lurzoruaren aberastasunari eusten dion txandaketa ere ziurtatzeko– kontraesanean dago ekoizpen-katearen ikuspegiarekin, kate horretan produktu bakarraren abantaila lehiakorra lehenestean monolaborantza sustatzen dela bereizgabe eta, horren ondorioz, biodibertsitatea eta antzinako hazi-barietateak suntsitzen direlako. Horrela, bada, osagarritasunaren alde eginez gero, oparotasunari berari darion guztia ekoizti beharra dago, gainerakoen oparotasunarekin trukatu ahal izateko.

²⁸ Atal honetako kontzeptuak eta aipamenak hemendikxe atera dira: JIMÉNEZ, Jhonny (2014): “Movimiento de economía social y solidaria del Ecuador. Circuitos económicos solidarios interculturales” (2015eko abuztuaren 6an egindako kontsulta). Hementxe dago ikusgai: <http://www.economiasolidaria.org/files/CIRCUITOS_ECONOMICOS_SOLIDARIOS_INTERCULTURALES.pdf>.


²⁹ C faktorea Luis Razetok proposatu zuen (1988), honako hitz hauek letra horretatik hasten direlako gatzelaniaz: kidetasuna, lankidetzeta, erkidegoa, partekatua, batasuna, kolektibitatea, karisma... C faktorea *“kohesiorako, batasunerako eta indarrerako elementua da, funtsezko ekarpena dauka ekoizpenean eta, horren ondorioz, faktorea da, hau da, ekoizpen-indar bihurtutako elkartasuna da. Gauzak kidetasunez, batasunez, lankidetzapean eta elkartasun sakonez egiten badira, produktua ugariagoa da, eta jardura ekonomiko horien eraginkortasuna zein emankortasuna ere areagotzen dira”*.

- Jakintzen, jakitateen, produktuen, diru-sarrereren... berdintasunezko *birbanaketa*. Horretarako, guztien premien estaldurari lehentasuna ematen zaionez, ez dator bat baliabideen boterearen metaketarekin, *“pertsoneri eta giza taldeei behar dutena ematea”* delako helburua. Beraz, *“bost laguneko familiak biko familiak baino premia gehiago izango ditu seguruenik”*.
- Pertsonen arteko eta naturarekiko *lotura*. Horretarako, honako hauexek izango dira helburu nagusia: pertsonak, haien harreman familiarrak, bateratuak zein izpiritualak eta euren ingurumenarekin daukaten harremana:
“Ekonomia solidarioak errentagarritasuna eta irabazia albo batera uzten ez baditu ere, [...] oso kontuan hartzen du nola dauden parte-hartzaileon arteko harremanak [...]. Atsedena eta irribarrea sustatzen dira. Guztiek ikastea da helburua, eta ez dago berekoikeriarik, norberaren gaitasunak suspertu behar direlako. Pertsonak eta familiak ondo egotea da xedea”.
- *Genero-berdintasuna, belaunaldi-arlokoa eta kultura artekoa*. Lankidetzapeko harreman harmoniatu eta horizontal horiek ez dira benetakoak izango erakundearentzat, pertsonen familietan eta bizitzetan erabiltzen ez badira. Gizonen eta emakumeen arteko harremanak errespetuan, baterako erantzukizunean eta ez-indarkerian oinarrituta ez badaude, ez dago berdintasunezko jardun solidarioez hitz egiterik. Gazteek parte hartzen ez badute, ezin izango dira urteen joan-etorrian jasangarriak eta inklusiboak diren jardunak ezarri, planeta etorkizuneko belaunaldientzat babesten duten arren. Logika beraren arabera, herri, kultura zein nortasunetako jardunak berriro balioesten ez badira eta haien begirada anitzak kontuan hartzen ez badira, ezin izango dugu proiektatzen duten balioetarantz hazi eta bilakatu nahi duten jarduera integratzaileez hitz egin.
- *Autonomiaren eraketa*, kanpoko eragile edo faktoreen menpe egon gabe erabakiak hartzeko daukagun gaitasun moduan. Autosufizientziarekin, autodeterminazioarekin eta buru-estimuaekin dago lotuta, pertsonak euren errealitateko eragile protagonistak direlako, baina, aldi berean, banakako zein taldeko nortasunekin ere bai, sen ona eratzeko aukera ematen duten elementu egituratzaile bezain finkatzaileak direlako. Azken batean, taldean bertan, bere eskubideak eta ametsak lortzeko apustua egiten duen subjektu soziala izatea da helburua.

Printzipio horiek ezartzean, ekonomiaren ikuspegi honetan ohiko ekonomian baino dimentsio, eragile, harreman eta sentipen gehiago sartzen dira jokoan. Prozesu ekonomikoak bere dimentsio ekonomikoa gainditu eta esparru soziokulturalari, politikoari eta ingurumenari erreparatzen die.

Hartara, Jiménezen esanetan (2015), KAZES egituratzen duen elementua ez da hainbeste ohiko truke ekonomikoa, subjektuen eta haien arteko harremanen eraketa baizik:

- Lehenengo eta behin, KAZESeko eragileek jarduera ekonomikoak sustatzen dituzte, euren nortasuna eratzen dute –dimentsio kulturala– eta, horrez gain, subjektu politiko egiten dira.
- Nortasun horretan oinarrituta, euren arteko harremanak ezartzen dituzte, eta trukerako sareak eratzen dituzte euren premiei aurre egiteko –dimentsio ekonomikoa–.
- Naturarekin berarekin daude harremanetan, eskubidedun subjektua delako berez –ingurumenaren dimentsioa–.
- Bestetik, ezarritako botere-harremanak kolokan jartzen dituztenez –dimentsio politikoa–, gizartea eraldatzeko subjektu bihurtzen dira.



Iturria: Jhonny Jiménezen edukien arabera egindako grafikoa (2015)³⁰

³⁰ JIMÉNEZ, Jhonny (2015): “Movimiento de Economía Social y Solidaria del Ecuador: Circuitos económicos solidarios interculturales” in OCHOA, William *et al.*: *Diálogo de Saberes para la Economía Solidaria. Guía pedagógica* MESSE, meSSE, Quito.

Prozesu ekonomikoaren harremanezko kontzepzio horren ondorioz, errazago da KAZESen bertan ohiko ekonomiak sarritan ahaztutako eta zainketaren ekonomian aintzat edukitako beste faktore batzuk kontuan hartzea: sentipenak, sentsazioak, aliantzak, elkarri laguntzeko sareak... Hartara, ez da harritzekoa KAZESen bertan ekonomia sozial eta solidarioko eragileek euren esperientziak beste ikuspegi batzuetatik balioestea eta, esate baterako, eurentzat oso garrantzitsua eta lehentasuneko izatea azokan elkartzea, aukera-kostuak edo errentagarritasun ekonomikoaren beste adierazle batzuk albo batera utzita. Jardueraren ondorioz sortutako sentimenduak jarraipenerako eta ebaluaziorako dinamiketan kontuan hartzen direnean, berariazko egiten dira KAZESeko antolamenduari zentzia ematen zioten zenbait arrazoi-emozio, 6. taulan islatzen den bezala.

Beraz, KAZES kontzeptu-tresnan dauden eragileak –ekonomia sozial eta solidarioko “jarduleak”– euren artean daude harremanetan, printzipioak partekatzen dituzte eta, elkartzen direnean, elkar sendotzea lortzen dute, gizartea bizimodu onerantz (elkarbizitza) eraldatu nahi duten subjektu politikoak izateko. Eragile horien artean, emakumeek agerpen handia dute, eta elkarketa hori gauzatzen deneko forma zehatzak abian jartzeko ekimena hartu dute: azokak, saskiak, dendak, salmenta zuzena, kontsumo solidarioako taldeak... Hori dela eta, geure buruari galdetu behar diogu emakumeek jarduera horien alde egindako apustuak inolako eraginik daukan ala ez emakumeen interes estrategikoen lorpenean. Bidaia honetan, beraz, Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioaren eta emakumeen eskubide ekonomikoaren arteko bidegurutzera iritsi gara. Orain, bi bide horiek bila dabiltzan berdintasun-leku berera doazen ala ez ikusi beharko dugu.

6. taula. KAZES, harreman-modua. Truke ekonomikoko arrazionaltasun berrietarantz			
Prozesu ekonomikoa	Norekin gauden harremanetan	Jarduera egitean ditugun sentipenak	Zer mailatan dauden norberaren esperientziak
Natura	Natura, lurra, mundua.	Harmonia, konfiantza, bakea.	Erakundean.
Ekoizpena	Natura, lurra, izpiritueltasuna, astroak, intsumoen hornitzaileak, haziak, erkidegoa, familia.	Naturari eta munduari emandako eskerrak, lankidetzeta, elkartasuna, duintasunik eza, ezintasuna, uzta biltzeko itzaropena.	Ekoizpen-taldean. Erakundean. Udalerrian.
Transformazioa	Ekoizleak, intsumoen hornitzaileak, giza baliabideak, ekipamendu teknikoak, zerbitzuak.	Adorea, aukeren ustiapena (ureztaketa), motibazioa.	Udalerriarekiko harremanak. Nazio-mailan. Nazioartean.
Merkaturaketa (merkatuak)	Operadoreak, supermerkatuak, komunikazioko erakundeak. Erakundeen artean. Kontsumitzaileekin. Trukeetarako azoka-eremuak.	Zoriontasuna, gure premien estaldura. Produktu osasungarriak eskaintzeagatiko harrotasuna. Pachamamaren babesak.	Tokian-tokian. Nazio-mailan. Nazioartean (turismoko operadoreak).
Trukea	Ekoizleak, kideak, auzokideak, pertsonak.	Zoriontasuna, alaitasuna. Herrien arteko harremana (elkar ezagutzea, hurbiltzea). Informazioa, aberastasun kulturala, balio izpirituala. Elkartasunaren erabilera.	Tokiko erakundean.
Kontsumoa	Familia, erkidegoa, ingurunea, arbasoak.	Premien estaldura, eskerrona, indarra.	Kontrola eta globalizatuak.

Iturria: Jhonny Jiménez (2013)³¹

³¹ JIMÉNEZ, Jhonny (2013): “Circuitos Económicos Solidarios Interculturales”, ASOCAM Amerika Latinoko XVI. Mintegirako aurkezpena, azaroa, Quito.



**3. Kultura arteko zirkuitu ekonomiko
solidarioek emakumeen eskubide
ekonomikoetan eragiteko daukaten
ahalmenaren gaintetik hegan**

3.1. Nondik gatozen: alternatiben bidegurutzeara

Bi bide egin ditugu orain arte. Lehenengoan, PIDESC zeharkatu dugu mugimendu feministaren begirada eta emakumeen eskubide ekonomikoaren inguruan egiten duen aldarrikapena kontuan hartuta. Bigarrenez, ekonomia sozial eta solidarioaren bidetik ibili gara meSSEren eskutik, eta KAZESi buruz daukan proposamena aurkeztu digu, hain zuzen ere. Bien arteko bidegurutzeara bilatzeko garaia da orain.

Azaletik esan dezakegu ekonomia feministak eta ekonomia sozial eta solidarioak sistema ekonomikoaren eta haren helburuen zein printzipioen ikuspegi alternatiboa proposatzen dutela. Biek ekonomiaren kontzeptua zehazten dute berriro, eta kolokan jartzen dute nolako pisua ematen dieten harreman ekonomikoaren oinarri bakartzat hartutako merkatuari, diruari eta norberaren interesari. Horren ordez, merkatutik kanpo dagoenari ematen diote lehentasuna, ugalketa birdimentsionatzen dute eta dimentsio sinboliko eta kulturala aitortzen dute. Lanen eta espazioen arteko mendetasuna aitortzen dute, publikoa eta pribatua, ekoizpena eta kontsumoa, enplegu emankorrak eta ez-emankorrak bereizten duten dikotomien aurka, bertan botere-harremanak daudelako ezkutuan. Botere-harreman horien oinarrian, naturaren eta mendeko giza taldeen ustiapena dago. Hortik aurrera, berdintasunezko eta lankidetzapeko harremanak –lehiakorren ordez– kontuan hartzen dituen zainketaren etikaren oinarriak ezartzen dituzte, benetako premiak estaltzeko –gurariaren ordez–. Ekonomia feministak eta ekonomia solidarioak bizia balioesten dute kapitalaren ordez.

Beraz, badirudi zentzuzkoa dela bi ikuspegiak elkarren osagarri direla pentsatzea. Gainera, haien aldarrikapenak eta jardunak bateratzen badira, elkar indartzeko aukera ere izango lukete emakumeen eskubide ekonomikoek eta KAZESek. Hain zuzen ere, hipotesi horretatik abiatuko gara, bisitatuko dugun errealitatearekin bat datorren ala ez egiaztatzen saiatzeko.

3.2. Nora goazen: goitik begiratutako elkarloturak

Bide horiek elkarren artean lotuta dauden ala ez egiaztatzeko, gainera hegan egiten, behatzen eta hitz egiten jarraituko dugu, eta, oraingoan, antzeko elementuei erreparatuko diegu. PIDESCen irakurketa kritikoa egitean sortu diren proposamen feministak gogoratu eta KAZESen printzipioekin erkatuko ditugu. Elkar ezagutzeko prozesu horretan sortuko diren galderak oso lagungarriak izango dira lurreratzen garenean eta jardueretako protagonistek erantzun behar ditugunean.

Hurrengo taulan, erreferentziako zenbait puntu agertzen dira, eta landa lehen aldiz miatzen dugunean izango ditugu gidari.

7. taula. Goitik begiratuta: KAZESen printzipioen eta emakumeen eskubide ekonomikoaren arteko loturak		
PIDESCeko artikulua	Proposamen feminista: emakumeen eskubide ekonomikoak	KAZESen printzipioak
6. art. Lan egiteko eskubidea	Etxeko eta zainketetako lanen berdintasunezko banaketa.	Pertsonen arteko eta naturarekiko lotura
7. art. Berdintasunezko lan-baldintza egokiak edukitzeko eskubidea	Jabekuntza ekonomikoa. Baliabideen eta mozkinen lorpena eta kontrola.	Birbanaketa
8. art. Sindikatuaren elkartzeko, antolatzeko eta parte hartzeko eskubidea	Jabekuntza politikoa. Esparru publikoa antolatzea eta bertan sartzea.	Elkartegintza, erakundea
9. art. Gizarte-segurantzarako eskubidea	Emakumeen autonomia ekonomikoa, banakako eskubideak dituzten subjektu moduan. Prestazioen jasoketa, emakumeak familia-unitatearen menpean jarri gabe.	Autonomiaren eraketa
10. art. Familiaren eta amen babesa	Familiaren eta amen babesa, emakumeak ama-zereginera mugatu gabe.	Elkarrekikotasuna
11. art. Bizi-maila egokia edukitzeko eskubidea	Emakumeen partaidetza politika publikoak diseinatzeko eta kontrolatzeko orduan.	Osagarritasuna
	Generoaren ikuspegiaren zeharkakotasunaren jarraipena politika publikoetan –politika ekonomikoa barne–.	Berdintasuna

Iturria: Berton egina, PIDESCeko edukietan oinarrituta; Jubeto, Dema eta Larrañaga (2010); eta Jiménez (2014).

3.3. Jakin-nahizko begirada

3.3.1. Printzipioak eta eskubideak harreman teorikoan?

Lan egiteko eskubidea (6. artikulua) funtsezko eskubide ekonomikoa da. Ordainpeko lanera mugatzen ez den ikuspegi zabaletik ikusi ahal izan dugu

gure gizarteetan *lanaren banaketa sexuala* egiten dela eta, bertan, emakumeak eurak etxeko zaindaria direla eta euren nahiz inoren etxeko eta zainketetako lanak dohainik egiten dituztela; edo, ordainpean, kolokako baldintzetan. Testuinguru hori aldatzeko, *etxeko eta zainketetako lanaren banaketa* jo behar da eskubidetzat, gizonak eta emakumeak baterako erantzukizunpean garatu dezaten. Edonola ere, horretarako, goitik behera aldatu beharra dago ekonomiak nola ulertzen dituen lanak, denborak eta lehentasunak. Hori lortzeko, bizia bera eta pertsonen arteko harremanak izan behar dira helburu nagusia –ez kapitala, ezta errentagarritasun ekonomikoa ere–, *meSSEk pertsonen arteko eta naturarekiko loturaren* printzipioan adierazten duen bezala. Printzipio horrek lotura zuzena dauka ekofeminismoko bi kontzeptuekin: elkarren arteko mendetasuna (elkarren arteko mendetasuna dugu bizirik irauteko orduan) eta ekomendetasuna (norberak naturarekin daukan mendetasuna). Pertsonen arteko loturak eta pertsonak haien bizilekua den planetarekin daukaten lotura hartu behar ditugu abiapuntutzat, lan guztiak maila sozial eta bateratuan geure gain hartu ahal izateko.

Lana *berdintasunezko baldintza egokietan* (7. artikulua) garatu beharra dago. Hori benetan erdiesteko, ordea, lan-merkatuaren antolamendua bateragarria izan beharko da gizonen eta emakumeen bizitzako zikloekin eta premiekin. Nolanahi ere, ekoizpenari aurre egiteko orduan, gaur egun gizonen eta emakumeen abiapuntuko baldintzak ez dira berberak *baliabideen eta mozkinen lorpenaren zein kontrolaren* arloan. Hori dela eta, KAZESen printzipioetakoa da jakintzak, jakitateak, produktuak, diru-sarrerak... birbanatzea. Teorian, behintzat, birbanaketaren printzipioa abian jartzen denean, baliabideen lorpena (“denbora” baliabidea barne) eta erabaki-boterea ere birbanatzen dira gizonen eta emakumeen artean, berdintasunezko emaitzak lortu ahal izateko.

Lana bera eta lan-baldintza duinak defendatzeko, *sindikatueta antolatze*ko eskubidea (8. artikulua) xedatzen da PIDESCon bertan. Emakumeen kasuan ikusi dugunez, emakume askoren lanen inguruko informaltasunak eta antolamendufaltak haien eskubideen lorpena eragozten dute. Horrez gain, sarritan, haien antolaerak, arduraldiak edo ordutegiak ez datoz bat emakumeek etxean nahiz zainketetan garatzen dituzten denborekin eta erritmoekin. Hala ere, baldintza mugatzaile horiek aldatu nahi izanez gero, funtsezkoa da emakumeak eurak antolatzea. KAZES bera *elkartegintzaren, antolamenduaren, lan kolektiboaren eta lan bateratuaren* printzipioan (Luis Razetoren C faktorea) oinarritzen denez, argi eta garbi dugu PIDESCon, eskubide ekonomikoen ikuspegia eta KAZES erabat bat datozela antolamendua premia kolektiboetara erantzuteko bitarteko moduan defendatu beharra dagoela diotenean. Baterakuntza teoriko hori, oster, jabeakuntza politikorako prozesu praktikoen eraginpean dago, emakumeak esparru publikoan modu eutsian sartzeko beharrezkoak diren baldintzak benetakoak izan daitezten.

Gaur egun, emakume askok ordainpeko langile batekin lotura familiarra daukate-nean baino ez dituzte *gizarte-segurantza eta aseguru soziala* (9. artikulua). Hori ekiditeko, emakumeak *euren banakako eskubideak modu independentean dituzten subjektuak* izan behar dira. Bestetik, KAZESen printzipioetako bat *autonomiaren eraketa* bada, kanpoko eragile edo faktoreen menpe egon gabe erabakiak hartzeko daukagun gaitasun moduan, emakumeentzako aukeraren bat egon ahal izango da KAZESen inguruan egituratzeko orduan, jarduera ekonomiko solidarioek emakumeen eta haien erakundeen autonomia ekonomikoa ere sustatzen duten neurrian.

PIDESC berrikusten jarraituz gero, *familiak eta amak babestu* beharra (10. artikulua) agertzen da. Amatasuna eta horrekin lotutako zainketak emakumeen *elkarrekikotasuneko*³² jarduera direla eta, berehalako ordainik jaso gabe, familien esanetara jartzen direla kontuan hartuta, amak babesteko betebeharra beharrezko elkarrekikotasun sozialeko jarduera dela ulertu genezake, emakumeak eurak direlako ugalketa soziala bermatzen ari direnak. KAZESek Andeetako mundu-ikuskeraren elkarrekikotasunaren printzipioa berreskuratzen du jarduera ekonomikoan, prezioen sisteman oinarritutako trukearen alternatiba moduan. Jauzi kualitatiboa da, beraz, eta lan zein ondasun guztiak, ekarpen emozionalak barne, elkarrekikotasunezko harremanetan sartzeko abantaila eskaintzen du, monetizatzeke premiarik eduki gabe. Alde horretatik, elkarrekikotasuna bera etxeko esparrutik atera eta, berriro ere, esparru sozio-ekonomiko eta politikoan ezartzen duenez, berriro ere bat dator ikuspegi feministarekin.

Azkenik, PIDESeko 11. artikuluan *pertsona guztiak eurentzako eta euren familiarentzako bizi-maila egokia lortzeko eskubidea* dutela xedatzen bada, gure ustez politika publikoak dira estatuak daukaten bitartekoa eskubide hori bermatzeko orduan. Dena dela, orain arteko politika publikoak diseinatzeko orduan ez dituzte emakumeen premia bereziak kontuan hartu, ezta politika horiek haien izaeran nahiz posizioan daukaten eragina ere. Behar-beharrezkoa da *emakumeek politika publikoen diseinuan, jarraipenean eta kontrolean parte hartzea*. Andeetako mundu-ikuskeraren arabera, emakumeek eremu politikoetan parte hartzen ez badute, gizonek ez dute euren pare *osagarri*rik edukiko erabakiak hartzeko orduan. Gainera, generoaren ikuspegiaren ezarpenaren jarraipena ere egin beharra dago. KAZESen printzipioen arabera, politika publikoetan zeharkakotasunez kontuan hartu beharko lirateke *genero-berdintasuna, belaunaldi-arlokoa eta kultura artekoa*, eta behaketarako berariazko mekanismoak ere egon beharko lirateke zeharkakotasun hori bermatzeko.

³² Hemen hizpide dugun elkarrekikotasuna Jiménezek (2014) honako hauxe idaztean karakterizatzen duena da: *“ez da jasotzeagatik ematen, Pachamamatik jasotako emateagatik baizik [...] kosmosaren pertzepzio biribilaren arabera, hau da, ‘ematea eta egunean batean jasotzea’”*.

Azken batean, emakumeek euren eskubide ekonomikoen arabera dituzten premiek KAZESei bizia ematen dieten printzipioetan aurkitu dezakete babeslekua. Horrez gain, ekonomia sozial eta solidarioa arlo politikoa, soziala, kulturala eta ingurumenekoa kontuan hartzen duen sistema integrala denez, badirudi esparru egokia dela emakumeen eskubideak elkarbizitza-eredu berriaren barruan txertatuta proposatzeko eta ez beste sektore baten eskaerak izango balira bezala. Hipotesia hori berori da, behintzat. Emakumeen bizipen eta esperientzia praktikoen arabera egiaztatzeko ala ez, gure azterketa zehazten lagunduko diguten zenbait galdera proposatuko ditugu.



3.3.2. Oskarbian egindako galderak

KAZESen printzipioen eta emakumeen eskubide ekonomikoen eskakizunen artean bateratasun-elementuak daudenez, oskarbidun kliman lurreratzeko prest gaude. Dena dela, horrek ez du esan nahi zalantzarik ez dagoenik, galderarik sortzen ez denik. Galderek mugitzen jarraitzera garamatzate, airean edo lurrian.

Esate baterako, emakumeek KAZESetan duten zereginari buruz galdetzen diogu geure buruari; eta, alderantziz, KAZESek emakumeen bizitzan daukan zeresanari buruz. Ba ote dago emakumeak KAZESen inguruan egituratzeko prozesuaren eta haien jabekuntzaren arteko loturarik? ESSko jarduerak eta haien egituraketa eraginkorrakoak ote dira emakumeen jabekuntzarako ohiko jarduera ekonomikoak baino?³³ Gainera, mugarik edukiz gero, zer faktore landu beharko lirateke KAZESek eraldaketarako daukan ahalmena sustatzeko?

³³ Bestela esanda, ESSko jarduerak ohiko jarduera ekonomikoak baino ahalmen handiagoa ote dute genero-harremanak eraldatzeko orduan?

Galdera orokor horien ondorioz, erantzunak Lojako kasu-azterketaren bitartez bilatzeko erabakia hartu dugu. Horretarako, galdera zehatzagoak ere egin behar izan ditugu. Ikuspuntu metodologikotik, horren ondorioz, sailkatu egin behar izan ditugu, azterketarako elementuak bilatu behar izan ditugu eta aurrerapena balioesteko moduko adierazleak zehaztu behar izan ditugu.

Hasteko, eskubideak hiru azterketa-taldetan sailkatuko ditugu haien artean duten mendetasunaren arabera. Talde bakoitzak beste galdera zehatzago batzuk eskainiko dizkigu KAZESei buruz. 8. taulan, hiru azterketa-taldeak eta haiekin lotutako eskubideak agertzen dira.

8. taula. PIDESCekeo artikulua azterketa-taldeetan	
Azterketa-taldeak	PIDESCekeo artikulua
Lanak	6. art. Lan egiteko eskubidea
	6.2. art. Orientazio eta prestakuntza tekniko profesionala
Lanen baldintzak	7. art. Berdintasunezko lan-baldintza egokiak edukitzeko eskubidea
	9. art. Gizarte-segurantzarako eskubidea
	10.2. art. Amen babesa
Partaidetza eta politika publikoak	8. art. Sindikatuetan elkartzeko, antolatzeko eta parte hartzeko eskubidea
	10.1. art. Familiaren babesa
	11. art. Bizi-maila egokia edukitzeko eskubidea

Iturria: Berton egina

Lehenengo taldea lan egiteko eskubidean eta eskubide hori bermatzeko prestakuntza egokiaren premian dago oinarrituta. Eskubide horren erabilerak KAZESen esparruan dituen zenbait ondorio aztertu nahian, honako galdera hauek egingo ditugu:

- Emakumeek KAZESetan daukaten partaidetzak nolako eragina dauka gizonen eta emakumeen familietan bertan dituzten harremanetan? Tentsiorik sortzen ote da?
- KAZESek zer neurritan eusten ote dio zereginen ohiko banaketari edo emakumei zer neurritan ematen ote die zeregin berriak egiteko aukera gehiago (garraioa, merkaturaketa)?

- Zer neurritan ematen ote ditu aukera gehiago etxeko bertako lanak partekatu daitezzen?
- Zer estrategia izan dira eraginkorrak?

Bigarren azterketa-taldea emakumeen lan-baldintzen, baliabide emankorrek lortzeko eta kontrolatzeko orduan hasieratik jasaten dituzten desberdintasunen eta lan egiteko moduen inguruan dago egituratuta. Hemen, geure buruari galdetzen diogu zein den KAZESen eragina eta nolako gaitasuna daukan desberdintasunezko faktore horiek gainditzeko ala ez:

- KAZESen inguruan egituratu diren emakumeek baliabideak lortzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago dituzte prozesuaren ostean?
- Emakumeek euren diru-sarrerak lortzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago eduki behar dituzte. Premia horri aurre egiten ote dio KAZESek?
- Emakumeen zeregin emankorra sustatzean, lan-gainkarga handiagoa ote dute?
- Emakumeen mugikortasun handiagoa bultzatzen ote du KAZESek?

Hirugarren azterketa-taldea partaidetzan eta politika publikoetan dago oinarrituta, eta beste galdera hauek iradokiko dizkigu:

- KAZESek eremu publikoetara irteteko aukera gehiago ematen ote dizkiete emakumeei?
- Emakumeen eta haien erakundearen arteko harremanak sendotzen ote dituzte?
- Emakumeen lidergoak sustatzen ote dituzte edo gizonen lidergoekiko menderakuntzari eusten ote diote?
- KAZESei esker, eragin politiko handiagoa ote dute emakumeek?

Galdera horiei esker, kontuan hartu beharreko zenbait azpigai zehaztu ahal izan ditugu azterketa-talde bakoitzean, baita emakumeen erakundeek gure aztergaietan izan dituzten aurrerapenak (edo atzerapenak) balioesten lagunduko diguten adierazleak ere.

9. taula. Azterketa-taldeak, azpigiak eta adierazleak		
Azterketa-taldeak	Azpigiak	Adierazleak
Lanak	Lan emankorra	Ekoizpenaren kopurua eta kalitatea
		Merkaturaketa
		Buru-estimua
		Laneko harremanak
	Ugalketako lana	Etxeko lanaren balioespena
		Etxeko lanen banaketa
		Estrategiak eta erresistentziak
	Prestakuntza	Eragin pertsonala
		Lan emankorrean daukan eragina
		Ugalketako lanean daukan eragina
Lanen baldintzak	Ondasun naturalak	Lurra
		Ura
	Baliabideak	Emankorrek
		Denbora
		Elkarri laguntzeko sareak
	Diru-sarrerak	Emakumeen ekintzaitzak
		Kontsumorako jarraibideak
	Askatasunak	Erabakiak hartzeko gaitasuna
		Mugikortasuna
	Partaidetza eta politika publikoak	Erakundea
Lidergoak		
Tentsioak		
Eragin politikoa		Politika publikoak
		Partaidetza
		Eremu publikoak

Iturria: Berton egina

Lanen taldean, nabarmendu beharreko hiru azpigai daude: lan emankorra, ugalketako lana eta prestakuntza. Lehenengo biek lan guztiak berdintasunez garatzeko eskubidearekin daukate zerikusia, eta azkenak eskubide hori bermatzea dauka helburu. Hartara, hasiera batean, lan emankorra garatzen ari deneko moduaren ezaugarri zehatz batzuk ikusiko ditugu, eta lotura estu-estua izango dute emakumeen eskubide ekonomikoekin. Horrela, ekoizpenaren eta merkaturaketaren kopuruan eta kalitatean gertatutako aldaketek lotura estu-estua daukate emakumeek ondasunak eta diru-sarrerak lortzeko daukaten gaitasunarekin. Haien buru-estimuan jazotako aldaketek, ordea, haien jabekuntzarekin daukate zerikusia, eta laneko harremanetako aldaketek inplikazioak dituzte hainbat mailatako harremanezko faktoreetan; harreman familiarretan eta bateratuetan, esaterako. Ugalketako lanari dagokionez, guretzat oso garrantzitsua da balioestea KAZESetan parte hartzeko prozesuan aurrera egin den ala ez lan hori aitortzeko, balioesteko eta partekatzeke orduan. Halaber, emakumeek bidean nolako estrategiak eta erresistentziak aurkitu dituzten ere jakin nahi dugu, aurrerapenak eta erronkak zein izan diren zehazteko. Azkenik, prestakuntzari dagokionez, bere eraginkortasuna aztertzeke orduan lan emankorretan eta ugalketako lanetan nolako aldaketak sorrarazi dituen hartuko dugu kontuan, baita maila pertsonalean bizitako aldaketak ere.

Lanen baldintzei dagokienez, ondasun naturalen, baliabideen, diru-sarreraren eta berezko askatasunen lorpenari eta kontrolari emango diegu lehentasuna. Gurekin lan egin duten Lojako emakumeen erakundeek landa-ingurunean dihardutenez, honako hauexei emango diegu lehentasuna: lurra eta ura –ondasun naturalen artean–, baliabide emankorrak, denbora baliabidea eta elkarri laguntzeko harremanak. Hartara, ohiko azterketa ekonomikoan baliabidetzat hartzen ez diren baliabideak jarri nahi ditugu agerian, funtsezkoak direlako emakumeen ekimen ekonomikoak garatzeko orduan. Diru-sarreraren lorpenari eta kontrolari dagokienez, emakumeen lidergopeko ekintzailetzetara hurbilduko gara, baita KAZESen sartu direnetik kontsumorako jarraibideetan gertatu ahal izan diren aldaketak ere. Azkenik, emakumeen askatasunen inguruko aldaketak ere izango ditugu ikergai, jabekuntza sozio-ekonomiko eta politikoaren erakusgarri dira-eta. Alde horretatik, KAZESen parte hartzen dutenetik erabaki-prozesuetan duten autonomia zer neurritan aldatu den ikusiko dugu eta haien mugikortasun askea nola aldatu den.

Partaidetzaren eta politika publikoen arloan, erakundean bertan eragiteko duten gaitasuna eta politika publikoetan daukaten eragina bereiziko ditugu. Erakundean bertan, harremanetan zein lidergoetan gertatutako aldaketak behatu behar ditugu, aldaketa horiei esker emakumeek partaidetzarako eskubidea erabiltzeko erraztasun gehiago dituzten ala ez jakiteko. Bestetik, prozesu horietan erresistentzia moduan sortzen diren tentsioak ere izango ditugu aztergai. Eragin

politikoari dagokionez, emakumeek eurengan eragina duten politika publikoei buruz zer uste duten jakin nahi dugu, haien diseinuan nolako partaidetza-maila daukaten eta, azken batean, KAZESetik aurrera nolako aldaketak egon diren eremu publikoetan daukaten partaidetzan eta nola bizi izan dituzten.

Orain, ibilbidea orientatzeko iparrorratza dugunez, lurreratzeko soilgunea bilatuko dugu.



4. Prestaketa

4.1. Nondik gatozen: gure tresnak

Azterlan hau egiteko orduan, metodologia kualitatiboak eta kuantitatiboak erabili ditugu, batetik, aztergaiaren inguruko faktore subjektiboak eta bizipenezkoak zein diren jakiteko eta, bestetik, hasiera batean neurgarriak diren eta jardueretako aldaketa-joeretara hurbilduko gaituzten zenbait datu lortzeko. Bi kasuetan, emakumeak eurak izan dira jakintzako subjektuak eta eragileak.

Ikerlanaren zati kualitatiboa Lojan garatutako partaidetzazko tailer honen barruan dago kokatuta: “Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioan elkartzeko esperientziak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan izandako eragina”³⁴. Bertan, KAZESen oinarri teorikoak eta emakumeen eskubide ekonomikoak aurkeztu ziren, eta eztabaida-taldeak ere antolatu ziren tarteka, parte-hartzaileek azaldutako kontzeptuek haien bizipenekin nolako lotura zeukaten eta inplikazio praktikoak zein ziren erkatzeko eta eztabaidatzeko aukera izan zezaten. Hartara, tailerreko jarduerak errealitatea bera aztertzeko eta ulertzeko uneak izan ziren, baita osteko antolamendu-prozesuetan berregiteko moduko tresnak ere. Tailer horretan, Lojako 11 erakundetako 23 emakumek parte hartu zuten. Taldeko jarduerak I. eranskinean daude ikusgai.

Helburu diren taldeetan lortutako informazioaren osagarri, emakumeen jabekuntzaren zenbait adierazleren bilakaerari buruzko inkestak egin ziren, baliabide emankorren zein diru-sarreraren lorpenaren eta kontrolaren ingurukoak, hain zuzen ere, baita inolako murriztapenik gabe mobilizatzeko askatasun mailan gertatu ahal izan diren aldaketei buruzkoak ere. Inkesta horiek bi unetan egin ziren (emakumeei KAZESen inguruan egituratzen laguntzeko proiektuko jarduketaren aurretik eta ostean)³⁵. Emakumeen jabekuntzaren adierazleei buruz egindako lehenengo inkestan, 82 emakumek parte hartu zuten; eta, diru-sarrerei buruzko inkesta berezian, 82 emakumek eta 8 gizonak. Inkestetarako gidoiak II. eranskinean daude ikusgai.

4.2. Nora goazen: Loja, emakumeen eskutik

Gure tresnak aurkeztu ondoren, lehenengo bisitaldia egingo dugu Lojara, bertako erakundeak, KAZESen inguruan egituratzeko moduak eta bizia ematen dieten emakumeak ezagutzeko. Antolatutako emakumeen eta haien bizipenen nahiz hausnarketen eskutik, emakumeen partaidetzapeko KAZESek haien eskubideen

³⁴ 2014ko abenduaren 1a eta 2a.

³⁵ Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013ko deialdian *Ekualdeko hegoaldeko eskualdeko ekonomia sozial eta solidarioko eragileak eta mugimendua sendotzeko prozesua* (2013-LANK-46) izenburupean onartutako proiektua. 2014. urtean egin ziren inkestak.

garapena sustatzen duten ala ez zehazten ahaleginduko gara. Lehenengo bisitaldi horretarako, probintzian egindako aurretiazko azterlanetan oinarrituko gara, baita geure lan-esperientzian ere. Emakumeek eurek eta haien hitzek hurrengo topaketetan sakontzen lagunduko digute. Beraz, hitz egiten jarraitu dezagun. Oraingoan, ordea, solaskideak ez dira printzipioak eta eskubideak izango, jakitateen eta jakintzen ekoizleak baizik.





5. Lojan lurreratzen

5.1. Lojako probintziari buruzko zenbait datu³⁶

Lojako probintziaren azalera 10.793 km²-koa da. Ekuadorko mendikateko hegoaldean dago kokatuta, hegoaldeko eskualdearen barruan dago eta honako hauexek ditu mugakide: El Oroko probintzia, mendebaldean; Zamora Chinchipeko probintzia, ekialdean; Azuayko probintzia, iparraldean; eta Peru, hegoaldean. 16 kantoietatik 76 parrokia daude bertan.

Probintzia Ekuadorko bi multzo geografiko handitan dago kokatuta: Andeetako mendikatea eta kostalde inguruko mendiak. Hori dela eta, ezaugarri menditarrak eta malkartsuak ditu. Bertako topografiak eta mendikateen orientazioak, kostaldeko eta ekialdeko eraginek, arro hidrografikoek eta Peruko basamortuaren hurbiltasunak eragin handia dute bertako klima, ekosistema eta nekazaritzako ekoizpen anitzean.

Ikuspuntu demografikotik, 2010eko erroldaren arabera, Lojako probintziako biztanleen kopurua 448.966 lagunekoa da (%50,82, emakumeak). Probintziako emakume guztiak kontuan hartuta, %56,69 hirian bizi dira; eta %43,40, landa-ingurunean. Lojako 16 kantoietatik 13tan, gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa da, landa-inguruneke kantoietan gizon gehiago daudelako.

Lan egiteko adinean dauden biztanleak kontuan hartuta (PET), laneratu daitezkeen emakumeen ehunekoa (%52) gizonena (%48) baino handiagoa da. Edonola ere, ekonomiari begira aktiboak diren biztanleak kontuan hartuz gero (Ekuadorko INECen azalpenaren arabera), emakumeak PEAREN %35 baino ez dira, gizonen %65en aldean. Hori dela eta, batetik, ordainpeko lana eskuratzeko aukera gutxiago dute emakumeek, eta, bestetik, ordainpeko lanik ez daukatenez (hau da, enplegua), emakume asko “ekonomiari begira aktiboak” ez direla esaten da, gehienek zainketetako lanak, lan bateratuak eta familiaren autokontsumorako lan emankorrak egiten badituzte ere.

“2010eko erroldan, egiaztatu egin da emakumeen agerpena txikiagoa dela ordainpeko lanean; eta handiagoa, ordainduta ez dagoen lanean [...]. Nabarmendu beharra dago Lojako emakumeen lan-karga orokorra gizonena baino 20 ordu gehiagokoa dela astean. Azken batean, nahiz eta Lojako emakumeak laneratu diren, ordainduta ez dauden etxeko lanekin partekatatu behar dute euren denbora. Hori dela eta, hobeto

³⁶ Atal honetako datuak zenbait iturritatik ateratakoen laburpena dira: ART (2013): *Prioridades para el desarrollo integral. Loja, Ecuador*; Lojako Probintziako Gobernua (GPL): *Agenda de igualdad, no discriminación y buen vivir de las mujeres de la provincia de Loja*, GPL, Quito; POMA, José eta Lorena Salcedo (2016): “Diagnóstico de la economía social y solidaria en la provincia de Loja, particularmente en los sectores agropecuario y financiero”.

*ordaindutako enpleguak lortzeko aukera gutxiago dituzte, eta lanez gainezka daude*³⁷.

Hiriguneetan, zenbakizko terminoetan honako hauexek dira kategoria adierazgarrienak: enplegatu pribatua (%19,9), norberaren konturako langilea (%38,2), estatuko enplegatua (%16) eta eguneko soldatako langilea edo peoia (%13,3). Ordainpekoak ez diren langileen kopurua %2,1ekoa da, ordea. Kategoria horietan guztietan, gizonen kopurua handiagoa da, baina “aitortu gabe” eta “etxeke enplegatua” kategorietan, emakume langileen kopurua da nagusi. Emakumeek gehiago lan egiten dute zerbitzuetan eta salmentan; eta gizonek, nekazaritzan. Hala ere, emakumeek zabal-zabal gainditzen dute adar profesional, zientifiko eta intelektualetan dagoen aldea.

Landa-inguruneko jarduera-arloak aztertuz gero, ostera, nekazaritza-adarraren mailak besteenak baino esanguratsuagoak dira. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreak murriztapen ekonomikoak eta azpiegitura-arlokoak izan ditu, ez du nekazaritzaren eraldaketa behar bezala ezarri eta fenomeno klimatikoek aurre egin behar izan die (lehortea eta Niño, esaterako). Era berean, Perurekin izandako gerra eta dolarizazioa ere hartu behar dira kontuan. Faktore horien guztien ondorioz, Lojako jende askok bertako baratzeak bertan behera utzi eta beste herrialde eta probintzia batzuetara migratu dute.

Probintziako azalera landatua 279.696 hektareakoa da. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen-unitateen %79n, lehorreko modalitatea edo aldi baterakoa da nagusi landatutako eremuaren %85en. Nekazaritza-sistema hori oso arriskutsua da probintziako baldintza klimatikoengatik, denboraldi lehorra oso luzea delako (8 hilabete) eta aldian-aldian lehorreak daudelako eta Niño fenomenoak agertzen delako. Nabarmendu beharra dago Lojako probintziak ez duela ureztaketa teknifikatu eta modu tradizionalen egiten duela. Hori dela eta, landatutako azalera guztiaren %14,7ra baino ez da iristen. Gainerakoak lantzean behin ureztatu beharreko laborantzak dira; esate baterako, kafe-oroak, fruten baratzeak edo nekazaritzarako egokiak ez diren guneak. Hala ere, egoera sozialengatik, oraindik ere errendimendu urriko produktuak landatzen dira bertan, baina biziraupenerako nekazaritzari begira baino ez.

Sekzioetako gobernuek ureztaketarako proiektu handiak bultzatu badituzte ere, ekoizle nekazari txikiek ureztaketarako proiektu erraldoi horiek euren benetako premiei erantzuten ez dietela uste dute. Izan ere, finka txikientzat askoz hobea izango litzateke ureztaketarako sistema bakunagoak eta sakabanatuagoak abian

³⁷ Lojako Probintziako Gobernuak (GPL): *Agenda de igualdad, no discriminación y buen vivir de las mujeres de la provincia de Loja*, GPL, Quito.

jartzea eta, familien baratzeetako laborantza agroekologikoei begira, isurialdeko ura berreskuratzeko gai izatea.

Landatutako azaleraren okupazioari dagokionez, honako hauexek dira laborantza nagusiak: arto leuna, kafea, arto gogorra, banana, babarrunak, azukre-kanabera, kakahueteak eta, neurri txikiagoan, zitrikoak, arroza, juka, babak, platanoa, tipula gorria...

Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lur-azalera probintzial handiena abeltzaintzarako erabiltzen da, bertako lurren %47 bazkatarako dira-eta. Lojako probintzian, era guztietako ganadua hazten dute (behiak, txerriak, ardiak, ahuntzak eta mandoak), baita akuriak, untxiak eta hegaztiak ere. Lojako abeltzaintzan, sailtxo txikiak sustatzen dira; eta, lantzean behin, ertainak.

Emakume asko eta asko nekazaritza familiarrean inplikaturik badaude ere, *“emakumeek lurraren jabetzaren inguruan nolako egoera bizi duten azaltzeko orduan, argi eta garbi ikusi zen hiriko eta, are gehiago, landa-ingurunekeo lurraren jabetzako erregistroetan ez dela lurraren jabetza sexuaren arabera sailkatzen, jakintzat ematen delako ezkontideen sozietatekoa dela. Halaber, ia-ia aitortu ere ez da egiten emakumeek nolako ekarpena duten baliabide naturalen artapenean eta babesean eta nola zaintzen dituzten, ezta haien kudeaketari eta erabilerari buruz dituzten jakintzak ere”*³⁸.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktu gehienak bitartekarien bidez merkaturatzen dira (%75,8), eta produktuen askoz ere ehuneko txikiagoa (%15) erabiltzen da autokontsumorako. Salmentarako bitartekaritza oso handia denez, ageri-agerikoa da trukerako beste sistema batzuk sustatu behar direla ekoizleak eta kontsumitzaileak hurbiltzeko.

Loja Ekuadorko eskualde australean dago kokatuta, eta bertako giro geologikoa oso egokia da lehengai mineralak arakatzeko eta ustiatzeko. Gaur egun, meatzaritako emakida asko eta asko eskatzen dira (eta haien helburuak espekulatiboak dira, antza).

Sektore industrialean –oso ahula probintzia osoan–, honako hauexen ekoizpena da nagusi: azukrea, esnekiak, hestebeteak, artisautzako lanak, elikagaiak eta edariak. Lojako industria gehienak industria txikiak dira, eta egurra, elikagaiak, edariak eta tabakoak industrializatzen dituztenak dira ugarietak. Manufaktura-industria hastapenekoa da Lojan, azukrea ekoizten duen Monterrey edo Malca enpresa izan ezik, probintziako garrantzitsuenetakoa delako enpleguaren nahiz inbertsioen eta ekoizpenaren ikuspuntutik. Turismoaren sektoreak gora egin

³⁸ Ibid.

du azken hamarkadan, eta Lojako hirian nabarmentzen da, baina, are gehiago, Vilcabamban.

Emakumeen partaidetza politikoari dagokionez, 2009-2014ko erregistroetan egiaztatu da ordezkari politiko formaleko mailak oso txikiak direla. Izan ere, probintziako 16 kantoietako alkate bakar bat ere ez da emakumea, eta 10 emakume presidente baino ez daude landa-inguruneko 76 parrokiabatzarretan³⁹. Ordezkaritzako demokraziatik harago, partaidetza *“agerikoagoa eta dinamikoagoa da partaidetzazko demokraziaren arloan [...] Bost erakundek (CODEMUF, Lojako Emakumeen Sarea, Lojako Emakumeen Herri Batasuna–UPML, COSDEMUS eta Catamayo-Chira Arroko Emakumeen Plataforma Binazionala) ekarpenak egin dituzte herritarren elkarbizitzaren demokratizazioan, eta lan-mahai tematikoak eratu dituzte, egoera aztertzeko eta proposamenak egiteko (behaketak barne). Horrela, zenbait gaitako kudeaketa publikoaren gaineko kontrola eduki ahal izango dute herritarrek”*⁴⁰.

5.2. Tailerrean parte hartu duten erakundeak

Pomak eta Salcedok (2016) Ekonomia Sozial eta Solidarioko (ESS) erakundeen inguruan egindako diagnostikoaren arabera, ESSko erakunde-masa kritikoa dago Lojako probintzian, eta hiru motatakoak dira:

- *Autoekoizpena*: ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzte autokontsumorako eta lanekuaren ugalketarako.
- *Biziraupena*: ondasun eta zerbitzuen merkatuan ekoizti edota merkaturatu egiten dute lanekuaren ugalketarako. Horretarako, lan familiarra darabilte (ekintzaitza txikiak edo pertsona bakarreko edo familiako enpresa txikiak, esaterako), baita elkarteko ordainpeko lana ere (zenbait forma juridikoren arabera elkartean edo taldean egindako ekintzaitza txikiak, adibidez: izatezko sozietateak, kooperatibak, elkarte zibilak...).
- *Kapitalizatuak*: ondasun eta zerbitzuen merkatuan ekoizti edota merkaturatu egiten dute, bizi-maila edo bizi-kalitatea hobetzeko. Lana diru bidez ordaintzen da.

Emakumeen lidergoan jarduera ekonomikoak sustatu dituzten erakundeei dagokienez, batzuek *autoekoizpenerako* mailetan jarraitzen dute, baina, oro

³⁹ Ibid. Datu horiek sekzioetako 2014ko hauteskundeak baino lehenagokoak dira. Hauteskunde horietan, kantoiko 16 alkateetatik 2tan baino ez zituzten emakumeak hautetsi. Beraz, ageri-agerikoa da ordezkari politiko formalaren maila txiki-txikia dela.

⁴⁰ Ibid.

har, haien ekimen ekonomiko kolektiboak *biziraupenerako* erakundeen artean lekuratu daitezke, nahiz eta jasotzen dituzten laguntzen helburua kapitalizazio-maila handiagoak lortzea den.

“Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioan elkartzeko esperientziak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan izandako eragina” tailerlean, honako erakunde hauek egon ziren ordezkatuta:

- *San Pedro de Vilcabambako Erlezainen Elkarte (AASPV)*. Erle-etzia ekoitzi eta industrializatu egiten dute, batez ere. Bere helburua da Ekuadorko hegoaldeko basoetako erabiltzaileen elkartegintza sustatzea, erlezaintzako, turismoko eta agroekologiako jarduerak jasangarriak izatea eta ekoizleen zein kontsumitzaileen arteko elkarte-merkaturaketa harmoniatsua lortzea. Lojako Sare Agroekologikoko kidea da.
- *Las Lagunaseko Aurrezki eta Kreditu Kooperatiba (Lagunaseko COAC)*. Saraguroko kantoian lan egiten du (Lojako probintzia), eta finantza-zerbitzu solidarioak ematen ditu. Hegoaldeko Eskualdeko Berdintasunezko Finantza Erakundearen Sareko kidea da (REFSE).
- *Ekuadorko Emakumeen Koordinakunde Politikoa (Lojako CPME)*. Erakunde politiko honek aniztasuna aitortzen du, eta emakumeen herritartasunaren erabateko erabilera eta haientzako boterearen lorpena sustatzen ditu, gizarte eta genero arloko berdintasuna eskaintzen duen gizartea eratzeko. 1995. urteaz geroztik autonomiaz lan egiten du, generoaren ikuspegiaren bidez politika publikoetan eragiteko.
- *Ekuadorko Ekonomia Sozial eta Solidarioarako Mugimendua (Lojako meSSE)*. Agerpen nazionalerako kolektibo sozial honek eragileek ekonomia solidarioko jardueretan eta esperientzietan garatutako ekimenak egituratu, partekatu eta sendotu egiten ditu, natura zein gizakiak errespetatzen ditu eta elkarrizketak, jakintzak nahiz jakitateak bultzatu, balioetsi eta eratu egiten ditu ikaskuntza bateratuaren bitartez. Horretarako, behar besteko proposamenak sortu, zabaldu eta lekuratu egiten ditu tokian-tokian, nazio-mailan, eskualdean eta maila globalean, gizartea bera elkartasunezko ekonomiaren esparruan eraldatzeko, bizia ospatzeko eta Sumak Kawsaya lortzeko (bizimodu ona)⁴¹.
- *Pózuleko Ohorea eta Lana Komunako Kafegileen Gunea (NCCHTP)*. Elkarte-entresa honek kafe txigortua eta ehoa metatu eta merkaturatu egiten du. Kafegileen Gunea Pózuleko parrokiaren sortu zen oinarrizko erakunde

⁴¹ 2014ko azaroaren 23an egindako kontsulta. Hementxe dago ikusgai: <<http://www.messe.ec/p/conocenos.html>>.

ekonomiko moduan, arlo juridikoan erakunde bateratu moduan erantzuten duen Ohorea eta Lana Komuna izeneko erakunde sozial handiagoaren barruan.

- *Lojako Sare Agroekologikoa (RAL)*. Lojako probintziako nekazarien erakundeen egituraketa da (17 talde), eta ekoizpen agroekologikoa sustatzea, erakundea sendotzea eta tokiko truke solidarioa bultzatzea dauka helburu. Bere proiektua honako honexetan dago oinarrituta: jatorrizko herrien balio eta jarduera harmoniatsuak; emakumeen nahiz gizonen eta landa-inguruneko zein hirietako langileen integrazioa eta prestakuntza; eta azoka agroekologikoen ezarpena. Ekuadorko Agroekologiako Koordinakundeko kidea da (CEA).
- *Paltaseko Nekazarien eta Herritarren Erakundeen Kantoiko Batasuna (UCOCP)*. Paltaseko kantoiko erakunde hau Hegoaldeko Nekazarien eta Herritarren Erakundeen Probintziako Batasun Federazioko kidea da (FUPOCPS). Bere jarduketa-mailan, honako xede hau partekatzen du FUPOCPSekin: familiak Lojako probintziako nekazarien mugimenduaren batasun-premiaren inguruan sentibilizatzea eta haien familien jabekuntzarako prozesua sustatzea, honako hauexen bidez: boterearen eraketa demokratikoa, ekoizpenerako teknologien lorpena eta nekazarien ingurunea-ekin bat datozen trebakuntza-prozesu integratuak.
- *Espíndolako Nekazarien eta Herritarren Erakundeen Kantoiko Batasuna (UCOCP)*. FUPOCPSeko filiala ere bada, baina, oraingoan, Espíndolako kantoian.
- *Lojako Emakumeen Herri Batasuna (UPML)*. Irabazi-asmorik gabeko erakunde sozial hau 1984. urtean sortu zen, zenbait arloren inguruko kezkei erantzuteko asmoz: generoa, baliabideen banaketa, herritarren partaidetza, boterearen erabilera eta jakintza, teknologia eta informazioa eskuratzeko aukera. Gaur egun, Lojako landa-sektoreetako emakumeak eta gizonak elkartzeko dituzte, eta sektore horietako emakumeen lidergoa bultzatzen du. Zazpi kantoitan lan egiten du: Puyango, Zapotillo, Sozoranga, Espíndola, Catamayo, Pindal, Chaguarpamba eta Suyo-Peruko barrutian.
- *Puyangoko eta Zapotilloko Nekazarien Batasun Mistoa (UMCAPZ)*. Irabazi-asmorik gabeko erakunde sozial hau 1988. urtean sortu zen, UPMLko filiala da eta Puyangoko kantoian dago kokatuta.
- *Espíndolako Emakumeen Herri Batasuna (UPME)*. UPMLko filiala da, eta Espíndolako kantoian dago kokatuta.

Aurreko erakundeetatik: 1) Ekuadorko Emakumeen Koordinakunde Politikoa (CPME) emakumeen erakundea da; 2) Lojako Emakumeen Herri Batasuna (UPML)

eta Puyangoko nahiz Espíndolako filialak emakumeen erakunde moduan sortu ziren, eta, gero, gizonak sartu ziren urteen joan-etorrian, baina ezinbesteko baldintza da emakumeen lidergoari eustea; 3) Lojako Sare Agroekologikoa (RAL) eta bere filialak, Vilcabambako Erlezainen Elkartea, adibidez, elkarte mistoak dira, emakumeen oinarri sozial sendoa dute eta, neurri handi batean, erakundeko lidergoa hartzen dute euren gain; 4) gainerako erakundeak mistoak dira, eta emakumeak nahiz gizonak berdintasun juridikoko posizioan daude, nahiz eta oraindik emaitzetan berdintasun hori ez igarri erabakiak hartzeko orduan.

Izan ere, ESSko nekazarien erakundeei erreparatzen diegunean, honako hauxe antzematen dugu lehenengo hurbilketan:

- Oro har, lanaren banaketa sexualak bere horretan dirau, gizonen jarduera nagusia ganadu handia eta kafearen edota artoaren monolaborantzak direlako eta emakumeak ganadu txikiaz eta finka agroekologikoez arduratzen direlako. Bertan, gainera, era guztietako produktuak landatzen dituzte, elikaduraren burujabetza bermatzeko asmoz.
- Emakumeek baliabide emankorrak lortzeko eta kontrolatzeko aukera gutxiago dituzte (lurraren jabetza, ureztaketa, teknologia, prestakuntza espezializatua...).
- Emakumeek partaidetza mugatua dute erakundeetako botere eta erabaki guneetan: erabakitzeko gaitasun handia dago emakumeen lidergopeko erakundeetan, eta emakumeen partaidetza politikoa askoz txikiagoa da erakunde mistoetan.

Azterlan honen zati batek lehenengo hurbilketa horretatik harago miatuko du, antolatutako emakumeen iritziak eta erantzunak kontuan hartuta. Parte-hartzaileak emakume nekazariak dira, autokontsumorako elikagaiak ekoitzi eta soberakinak saltzen dituzte, gehienak familiako amak dira (batzuetan, etxeko buruak), batzuk ugaltzeko adinean daude eta beste batzuk adinekoak dira (halakoetan, hogei edo hogeita hamar urteko militantzia dute erakundean) eta, apurka-apurka, jabetzuntza-mailak lortzen ari dira honako hauexen bitartez: barruko prestakuntzarako segidako prozesuak, karguen txandaketa, zailtasunei eta erresistentziei aurre egiteko prozesuak eta bizitzan elkarri laguntzeko sareak.

5.3. KAZESen inguruan egin ditugun egituraketak

Aurreko erakundeak ez dira beti modu sistematikoan euren artean egituratzen, baina zenbait eremu, mugimendu (emakumeen mugimendua, Ekuadorko Ekonomia Sozial eta Solidariarako Mugimendua, Elikaduraren Burujabetzarako Plataforma...) eta ekintza dituzte (Hazien Azoka Binazionala, azoka

agroekologikoak...), arazoak partekatzeke eta zabalkunderako nahiz eraginerako ekintza bateratuak diseinatzeko. Alde horretatik, Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioa baterakuntza ekonomikorako eta, batez ere, politiko eta sozialerako ahalmen handiko eremua da.

Lojako ESSko erakundeak zenbait eratara egituratzen dira kultura arteko zirkuitu ekonomiko solidarioetan. Aniztasun horrek zenbait ñabardura ditu, emakumeei zer KAZESetan parte hartzen duten, zirkuituko aktoreak nor diren eta harreman-ereduak nolakoak diren galdetzean sortutako hurrengo tauletan azaltzen den bezala.

10. taula. Lojako Sare Agroekologikoa – RAL Randy Namá azoketako nekazarien ekonomia solidarioaren barraskiloa	
KAZESeko eragileak	Zer egiten duten
- Lurra, Allpa Mama, jatorria da, barraskiloaren erdigunea eta, bertatik, ekintza guztiak sortzen dira modu antolatuan (<i>hurrengo zutabearen agertzen dira</i>)	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpena: haziak, ura, ongarria; eguzkia-ilargia; gizona-emakumea. - Transformazioa: lehengaia, tresnak, familia, lankidetzak, eskulana. - Kontsumo familiarra: familia, erkidegoa, animaliak; familiarekin partekatzea. - Azokak/merkaturaketa: saldu, partekatu. Nueva Granadan, La Tebaidan, San Sebastiánen, senidetasunerako beste azoka batzuetan... Bidezko merkataritza: zintzotasuna, adeitasuna, begikotasuna, irmotasuna... - Trukea, emakume kideekin partekatzea. - Komunikazioa: kontsumitzaileekin, familiarekin partekatzea, jakintzak partekatzea, jakitateen elkarrizketa, erakundeekin igortzea. - Lur-arloko elkarrekikotasuna: elikatzea, zaintzea, babestea.

Iturria: Tailerra: “Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioan elkartzeko esperientziak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan izandako eragina”

11. taula. meSSEren partaidetzapeko KAZES

KAZESeko eragileak	Zer egiten duten	Premiak	Printzipioak
<ul style="list-style-type: none"> - Ikuspegi kolektiboa: G-E-U-G-GLTB⁴² - Familia: elkarri lagundu ahal izatea - Natura 	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza, antzinako jakitateak - Ekoizpena, produktu anitzak - Trukea - Zerbitzuak - Finantzak - Kontsumoa, antzinako elikadura - Kontsumo ostekoa - Komunikazioa - Eskerrona 	<ul style="list-style-type: none"> - Afektiboak - Fisikoak - Izpiritualak 	<ul style="list-style-type: none"> - Giza eskubideak eta naturaren eskubideak - Zainketa, etxea - Elikaduraren burujabetza - Errespetua, kultura arteko aniztasuna - Gorputzaren burujabetza - Autonomia

Iturria: Tailerra: “Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioan elkartzeko esperientziak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan izandako eragina”

12. taula. FUOCPSen partaidetzapeko KAZES

KAZESeko eragileak	Zer egiten duten	Eragileen arteko harremanak
<ul style="list-style-type: none"> - Emakume ekoizleak (erdian) - Gizon ekoizleak - Kontsumitzaileak - Erakundea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpena, transformazioa, konposta, biola... - Erakundearekin, frutak lantzen dira (laranja, limoia...); gineoa, juka, patata; uhaza, zerba, perrexila, errefaua, apioa; akuriak, oiloak, txerriak, behiak... 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume ekoizleak euren artean daude harremanetan elkarrekikotasunaren, prestamanoen... bidez, baita gizon ekoizleekin ere, trukearen... bidez. - Emakume ekoizleak eta kontsumitzaileak batzuetan daude harremanetan salmenta zuzenaren bidez (etxez etxeko merkatua) edo azoka agroekologikoetan. - Erakundeko harremanak lankidetzapekoak eta berrerabilpenerakoak dira, antzinako minga kolektiboaren eta zenbait ekoizpenen sustapenaren bidez (frutak, barazkiak, animaliak...).

Iturria: Tailerra: “Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioan elkartzeko esperientziak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan izandako eragina”

⁴² Gizonak-Emakumeak-Umeak-Gazteak-Gayak-Lesbianak-Transexualak-Bisexualak-Intersexualak.

13. taula. UPMLren zuhaitza			
Ekoizpen agroekologikoa	CPME, RSMLA-C, ExCONAMU, CODEMUF, MMO, CONAIE, FENOCIN, CEA, RAL, FUPOCPS, FEPP	Prestakuntza, trebakuntza Garapen pertsonala, familiarra, soziala... Maila soziopolitikoan: legeak, kodeak...	Laguntza Nazioarteko erakundeak, askapenaren teologia
Giza premiak Etxebizitza, osasuna eta hezkuntza, transformaziorako ekipamenduak, artisautza	Baliabideak partekatzea	Emakumeen jabekuntza, aitorpena	Ekoizpen agroekologikoa, elikaduraren burujabetza Elikagai osasungarria (familiarentzat, trukerako) Tokiko artisautzak Antzinako medikuntza
Trukea Azokak: kantoietakoa, probintziakoak, binazionala (haziak, produktuak eta jakitateak) Dendak Trukea Eragileak: RAL, ekoizleak	Zerbitzuak (adarrak)		Elkarteen eraldaketa Balantzeatuaren ekintzailletza. Familia-mailan: marmeladak, txuno-irina, jogurta, atxotea, elikagaiak, ogia... Inguruko eta probintziako beste erakunde batzuekin
	Kantoiko batasunak (enborra)		
	Oinarrizko erakundeak (enborra)		
SENTIPENAK (zuhaitzaren sustraiak), 1984: Errespetua, koherentzia, izpiritualtasuna, abegia, kidadetasuna, elkertasuna, lanaren mistika, berdintasuna, naturaren errespetua, batasuna, leialtasuna, gardentasuna, autonomia			

Iturria: Tailerra: “Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioan elkartzeko esperientziak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan izandako eragina”

Aurreko erantzunak kontuan hartuta, honako egituraketa-moduak nabarmenduko ditugu:

- Lan-ibilbide luzea duten erakundeek, UPMLk edo FUPOCPSek, esaterako, *euren erakundea Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioa* dela diote. Handiak direnez eta zenbait kantoitan daudenez, era guztietako ekimen ekonomiko eta sozialak garatzen dituzte (prestakuntza eta trebakuntza, ekoizpen agroekologikorako ekimenak, animalien hazkuntza, transformazio industriala, tokiko azoken sustapena...). Bertan, oinarrizko taldeek badute produktuak eta jakintzak probintziako erakundean bertan trukatzetik. Hori dela eta, barne-sistema osoa dute abian. Bertako KAZESen, ekoizpen-kateko maila guztiak lantzen dira (ekoizpena-merkaturaketa-kontsumoa). Hala ere, UPMLk edo FUPOCPSek beste erakunde batzuekin ere lan egiten dute, eta euren prozesuetan kontuan hartzen dituzte euren ikuspegi politikoaren osagai moduan. Aldi berean, KAZES zabalago eta konplexuagoetan parte hartzen dute, meSSEren esparruan, adibidez.
- Erakunde batzuk, RAL, adibidez, sare moduan sortzen dira, eta, beste egituraketa-modu batzuk albo batera utzi gabe, *azoka agroekologikoak* lehenesten dituzte KAZES zehazteko tresna moduan. Kontzepzio horretan, sarea osatzen duten taldeen arteko egituraketa nabarmentzen da, baina, aldi berean, garrantzi handia ere ematen zaie zirkuituko subjektua den naturari, batetik, eta kontsumitzaileei, bestetik. Kontsumitzaile horiekin, lehenetsuneko komunikazioa ezartzen da, azoketako bezeroak direlako eta haien partaidetza ere bultzatzen delako honako ekintza hauen bitartez: kontsumo-taldeen sustapena, bermerako partaidetzazko sistemaren ezagutza, finka agroekologikoetarako bisitaldien antolaketa... Ekoizleak eta kontsumitzaileak zirkuitu laburretan sartzeko prozesuaren inguruko interesa arlo ekonomikoaren gainetik dago hemen, eta tokiko eremua, harreman zuzena eta konfiantzaren sorrera lehenesten dituzten harreman-modu alternatiboak sortzea dauka helburu.
- Irismen nazionaleko plataformek, meSSEk, esaterako, mugimenduan bertan era guztietako ekimen ekonomikoak garatzen badituzte ere, KAZESi buruz hitz egitean sentsibilizazioa eta printzipioen komunikazioa nabarmentzen dituzte. ESSren posizio kontzeptualari begira, giza premia guztiei lehentasuna ematen dien ikuspegi alternatiboa da. Bestetik, tradizioaren arabera “ekonomikoak” ez diren jarduerak ere sartzten dituzte zirkuituan; esate baterako, jakitateen elkarrizketa eta eskerrona. Horrez gain, eragin politikoa ere lehenesten dute. Kasu honetan, KAZESen egindako trukea *baliabide eta helburu sozialen multzo konplexuagoa mobilizatzeko* aitzakia da. meSSE-arentzat, KAZES egon badagoen ideia da, baina, aldi berean, eratu beharrean ere badago oraindik. Dimentsio anitzekoa da, eta zentzu bateratu bezain politikoa dauka. Gizartea eraldatu nahi duen kontzeptua/prozesua/tresna da.

Alde horretatik, topaketa, trukea, partaidetza eta egituraketa funtsezko hitzak dira, eta erakunde bakoitzak bere jarduketa-mailan garatzen ditu. Horrez gain, aliantzak ere ehuntzen dituzte, eta euren nabaritasun estrategikoa areagotu egiten da, subjektuek eragin politikorako helburuak euren gain hartzen dituzten neurrian.





6. Jakitateen emakume ekoizleen esanetan

Orain, Lojako KAZESak sustatzen dituzten erakundeak apur bat ezagutzen ditugunez, bertan parte hartzen dutenetik emakumeek euren bizitzetan nolako aldaketak antzematen dituzten aztertuko dugu. Gogoan izan behar dugu aztergaiak hiru talde handitan (gaiak) sailkatu ditugula: lanak, lan horiek garatzeko baldintzak eta partaidetza politikoa. Kapitulu honetako atal bakoitzean, talde horietako bat landuko dugu, eta, horretarako, emakumeen euren hitzak hartuko ditugu kontuan, apurka-apurka azalduko dutelako zein den euren egoera eta posizioa hautatutako adierazleei dagokienez.

6.1. “Lana lana da: batak txanponak sortzen ditu, eta bestea ezinbestekoa da beste jarduera batzuk egin daitezen”

Esaldi hori tailerrean parte hartu zuen emakumeetako batek esan zuen, eta bete-betean garamatza gure aztergaira. Argi eta garbi uzten digu edozein lan garrantzitsua dela, tartean dirua egon nahiz ez egon. Hori dela eta, azterketa honen hasieran, aitortu egin behar dugu etxeetan eta erkidegoetan egiten den lana ere lana dela doakoa izan arren. Euren burua aurkezteko egindako jardueran bertan ere, emakumeek argi eta garbi diote etxean egiten duten lanari ere lana esan behar zaiola. Halaxe adierazten du euretako batek: *“Baratzean nahiz etxeko zereginetan lan egiten dut”*⁴³. Honako hauxe diosku beste batek: *“Ama moduan lan egiten dut, baina beste lan batzuk ere egiten ditut etxean”*.

Azken esaldi horrek beste faktore bat kontuan hartzeko bidea urratzen digu. Hain zuzen ere, nekazaritza-munduarekin lotutako landa-inguruneke emakumeek –azterketa honetako emakume gehienak bezala– “etxean” egiten dituzten lanak hirietako emakumeek egindakoak baino anitzagoak dira. Nekazaritzako lan emankorrek lotutako zeregin asko etxean bertan edo ingurunean egiten direnez, askotan emakumeek etxeko doako langile-zereginaren luzapen moduan garatzen dituzte; esate baterako, autokontsumorako baratzeak, animalia txikien hazkuntza, produktuen transformazioa, haziak biltegitratzeko prozesua... Hartara, emakume horrek etxean *“beste lan batzuk”* ere egiten dituela dioenean, ez dakigu lan emankorraz edo ugalketako lanaz ari den, biek espazioak, ordutegiak eta erantzukizunak partekatzen dituztelako. Hona hemen emakume batek nekazarien etxeko lan emankorren eta ugalketako lanen arteko nahaste horri buruz emandako azalpena: *“Hainbat eta hainbat gauza egin behar dira etxean: etxeko lanak, ganadua, gaztak...”*.

⁴³ Hemendik aurrera, komatxoen artean eta letra etzanean agertzen diren esaldiak –betiere, beste erreferentziarik azaltzen ez bada– tailer honetako emakume parte-hartzaileen ekarpenak izango dira: “Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioan elkartzeko esperientziak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan izandako eragina”, Lojan, 2014ko abenduaren 1ean eta 2an.

Emakumeek, beraz, badakite era guztietako jarduerak garatzen dituztela. Haietako askok emakume-zereginarekin daukate zerikusia, eta ekoizpen-arlora ere hedatzen dira, lehen esan dugun bezala. Edonola ere, gehienetan, etxean bertan egindako lan emankor hori ez da lantzat hartzen, eta lan-gainkarga are handiagoa da emakumeentzat. Hori dela eta, lan emankorra eta ugalketako lana aparte aztertzen ahaleginduko gara, baina haien artean dauden loturak ezkutatzeko asmorik gabe. Bereizkuntza horri esker, lan-tipologia bakoitzean eta emakumeen zereginetan gertatu diren aldaketak aztertu ahal izango ditugu. Azken batean, prestakuntzaz hitz egiten dugunean, PIDESCen nabarmendutako eskubidea berezia dela eta emakumeek aldarrikatutako estrategia ere badela hartuko dugu kontuan. Argudioaren hariari eutsi nahian, azpigai bakoitzaren hasieran, kontuan hartu eta azterketan bertan jorratuko ditugun adierazleak zein diren nabarmenduko dugu.

Azpigaia	Adierazleak
Lan emankorra	Ekoizpenaren kopurua eta kalitatea
	Merkaturaketa
	Buru-estimua
	Laneko harremanak

Lehenengo eta behin, emakumeen benetako lan emankorrari dagokionez, egiatzatu egin dugu haientzat lotura dagoela KAZESen duten partaidetzaren eta *jarduera agroekologikoen* garapenaren artean. Sarritan, “nekazaritza organikoa” ere esaten diote jarduera horri. Agerikoa denez, aldaketa hori ez da egun batetik bestera jazo, apurka-apurka eguneroko jardueran beste jardun batzuk kontuan hartzen dituen prozesua delako. Aldi berean, hobekuntzarik egon den ere egiatzen da. Orain, emakumeek nola bizi izan duten izango dugu ikergai.

Prozesuak denborak, klimak, lurak eta pertsonak errespetatzen dituzten nekazaritza-jardueren inguruan antzinatek pilatutako jakintza berreskuratzea du abiapuntu: “*Arbasoek eman zizkiguten jakintzak oso garrantzitsuak izan dira ekoizpen organiko ona lortzeko*”. Emakumeek bidean ikasi dute jakintza horiek balioesten, baina, era berean, jakintzak eta baliabideak partekatzen ere ikasi dute, berreskuratu eta abian jarri ahal izateko. Azken batean, elkarrekin lan egin dute jarduera egokienak saiakuntzapean jartzeko, ezagutzeko eta ezartzeko: “*Erakundeetan bertan, gizon eta emakume kideok elkarrekin lan egiten dugu lurra lantzeko, taldeak eratzen ditugu eta elkarri laguntzen diogu*”. Horri esker, ekoizpena hobetu ahal izan dute, beste emakume kide batek azaldu duen bezala: “*Baliabideak eta arbasoen jakintzak partekatzean, ekoizpena hobetu dugu*”.

Hartara, apurka-apurka, partekatu eta egiaztatu egin dute zenbait mailatan oso abantailatsua dela *ekoizpen osasungarri bezain anitzaren* arabera landatzea, monolaborantzan eta izurriteen kontrolerako intsumo kimikoekiko mendetasunean oinarritutako aurreko ereduaren aldean. Batetik, emakumeek baieztatu egiten dute euren *ekoizpenaren kopurua eta kalitatea handiagoak* direla eta, intsumo natural berrien bitartez, hobeto aurre egin dietela izurriteei. Hona hemen ekoizpen-kopuru handiagoen ondorioak: i) familietako elikaduraren segurtasuna, autokontsumorako beharrezkoa dena ekoiztean; ii) tokiko merkatuetan saltzeko soberakinen sorrera; iii) ekoizpena erkidegoan bertan partekatze edo trukatzeko aukera. Bigarrenez, euren *elikadurak eta osasunak* ere hobera egin dutela adierazi dute emakumeek. Dena dela, merkaturaketan gertatutako hobekuntzak dira emakumeek gehien nabarmentzen dutena. Izan ere, *“Lehen, ez genuen produkturik merkaturatzen, produktu kimikoek ez zeukaten irteerarik eta, orain, askoz hobeto irteten dira produktu osasungarriak”*.

Neurri handi batean, merkaturaketako arrakastak lotura dauka *tokiko merkatu eta produktuekin*. Kontsumitzaileekin harreman zuzena daukatenez eta ekoizpenari eta eskaintzen dituzten produktuen onurei buruzko informazio guztia dutenez, *hobeto atenditzen dute bezeroa eta sustatzen dute produktua*. Apurka-apurka, *“gehiago balioesten dugu geurea”*. Halaber, merkaturaketari dagokionez, haien zat faktore garrantzitsua ere izan da lehengaia transformatzeko eta produktu landu bihurtzeko aukera izatea (gatzak, marmeladak...). Tradizioaren arabera, emakumeen berezko zeregina izan denez –oso lotuta dago etxean sukaldari moduan garatutako zereginarekin–, erraz garatzen duten jarduera da, eta oso lagungarria izan daiteke haien autonomia ekonomikoari begira. Horri guztiorri buruz sakonago hitz egingo dugu, emakumeek diru-sarrerak lortzeko eta kontrolatzeko dituzten aukerak hizpide ditugunean. Oraingoz, hurrengo aipamenak argi eta garbi adieraziko digu zeinen garrantzitsua izan den emakumeentzat transformazioa, ekoizpen-eredua aldatzeko prozesu honetan guztian: *“Emakumeok badugu aukerarik transformazioan. Gizonek erein eta uzta biltzen dute, besterik ez. Transformazioak independentzia ekonomikoa ematen digu”*.

Azken batean, emakumeek eredu-aldaketa horren barruan daudela sentitzen dutenez, oso lagungarria izan da hainbat mailatan. Batetik, KAZESetan parte hartzean, orain kanpoko mundurako atea dute zabalik: *“Horri esker, jendeak ezagutu egin nau, etxetik esparru publikora irten naiz”*. Bestetik, etxeko lanetatik harago beste aukera batzuk ere badituztela konturatu dira: *“Horri esker, konturatu egin naiz sustatzeko gaitasunak ditudala emakume nekazari moduan”*. Hirugarrenez, partaidetzari esker, egiaztatu egin ahal izan dute gainerakoentzat eta, azken finean, gizartearentzat ere izan daitezkeela baliagarriak. Euren esanetan, *“Era berean, oso lagungarria ere izan da ni neu ere baliagarria izan nadin eta, ekintzailatza txikien bitartez, gainerakoentzat ere baliagarria izan nadin”*.

Ageri-agerikoa da egiaztapen horiek lotura daukatela haien buru-estimuan eta balio pertsonal zein sozialaren sentipenean sorrarazitako ondorio onekin. Hain zuzen ere, jarduera agroekologikoetan oinarritutako saiakuntzotan parte hartu ostean, emakume gazteagoek lan-aukera gehiago dituzte, euretako batek azaldu digun bezala: *“Horri esker, unibertsitatean ingeniari agronomo ekologiko moduan ikasitakoa jarri ahal izan dut abian, jendeak ezagutu egin nau eta gustuko dudana lortzeko aukera gehiago dauzkadalakoan nago”*. Beste neska gazte batek jakinarazi digunez, bultzada handia ematen dio esperientziak: *“Emakumeok eta gazteok nekazaritzan sartu gara, eta badugu aurrera egiterik”*.



Azkenik, KAZESen bertan ekoizle moduan elkartu direnean, elkar ezagutu dute, elkarri ulertu diote eta bat egin dute. Horrela, *elkartuago* lan egiten dute, eta ez dira lehen *bezain indibidualistak*. Euren ustetan, laneko harremanek hobera egin dute, eta lan emankorrean ere *berdintasun handiagoa* dagoela baieztatzen dute, bertan *berdintasunez* lan egiten dutelako. Euren esanetan, horrek ere eragina izan du lan bateratuan, lehen baino partekatuagoa dela uste dute-eta: *“Guztiok lan egiten dugu, elkarri ulertzen diogu eta zoriontsuagoak gara”*.

Azkenean, aldaketa horien guztien ondorioz, beste modu batera ekoitzi, saldu eta banatzen dira produktuak. Ekoizitakoa gehiago kontrolatzean eta saltzean, badago produktuak eta mozkinak birbanatzerik. Hartara, emakumeen iritziz, eredu-aldaketak ondorio onak ere izan ditu erkidego-mailan. Horri esker, *“saltzeko ekoizpena ez ezik, partekatzekoa ere eduki dute”*, eta, horrez gain, *“etxeko, merkatuko eta erkidegoko premiak ere estali dituzte”*.

Laburbilduta, emakumeek argi eta garbi dute KAZESen duten partaidetza oso onuragarria izan dela ekoizpen-mailan. Dena dela, badakite zenbait erronka

eta hobetu beharreko faktoreak daudela oraindik. Batetik, euren ekintzaitzak *gehiago sustatu eta zabaldu* behar direla uste dute, zenbait ekintzaitzak ez omen duten *errentagarritasun egonkorra* bermatu ahal izateko. Alde horretatik, *berrikuntzako nahiz ikerkuntzako* aurrerapena ere erronka handia dela aipatzen dute, behar-beharrezkoa delako *landa-ingurunean lan egiteko hobekuntza teknologikoari begira*. Azken batean, haien produktuen arrakasta komertzialaren adierazgarri den ustezko eskariari aurre egitea da helburua. Arrakasta horren ondorioz, emakumeak konturatu egin dira zailtasunak dituztela gero eta handiagoa den eskariari aurre egiteko moduko laneskua edukitzeko. Seguruenik, horrek zerikusi handia dauka ondoren aztertuko dugun gaiarekin.

Azpigaia	Adierazleak
Ugalketako lana	Etxeko lanaren balioespena
	Etxeko lanaren banaketa
	Estrategiak eta erresistentziak

Ondoren, etxean bertan bizia emateko eta mantentzeko prozesuarekin lotutako lanen inguruan gertatutako aldaketak izango ditugu hizpide. Emakumeek erakundeetan eta KAZESen parte hartzen dutenean, etxetik irten behar direnez, nahita edo nahi gabe gauzen ordenari botatzen diote erronka. Ikusiko dugunez, horren ondorioak onak eta txarrak dira, eta, berriro ere, ez da egun batetik bestera jazotzen. Ekoizpen-eredua aldatzeko, denbora eta konpromisoa behar badira, beste horrenbeste gertatzen da “ugalketa-eredua” aldatzeko orduan. Hona hemen emakumeek horri buruz emandako azalpenak.

Prozesu horretan, lehenengo eta behin, nabarmendu beharra dago *etxeko lanaren balioaren inguruko kontzientzia areagotu dela*. Lan hori balioesten ikasi duten lehenak emakumeak eurak izan dira, eta ez dago emakume parte-hartzaileetako batek hori adierazteko erabilitako modua baino hoberik: *“Elkartzean eta emakume kideak ezagutzean, ulertu egin dut emakumeok bizia sortu eta zaindu egiten dugula”*. Bigarrenez, senarrak eta senideak eurak ere hasi dira balioesten, emakumeek autonomia eskuratzeko garatu duten prozesu pertsonalaren beraren haritik. Euretako baten esanetan, lan emankorra *“balioesten dugu, senarren menpean ez gaudelako”*.

Beharbada, lan horiek modu partekatuagoan egitea izan da irtenbide bakarra, emakumeetako batek hitz hauen bidez adierazi duen bezala: *“Etxeko lana partekatzen hasi dira, orain emazteak etxean denbora asko ematen ez duela konturatu direlako, erantzukizun gehiago dute”*. Bestetik, baliteke lan emankorra gizonen eta emakumeen artean partekatzean lortu izana ugalketako lana ere

partekatzea, beste emakume batek proposatzen duen bezala: *“Lana eta baliabide ekonomikoak daudenez, senarrek etxeko lanak partekatzen dituzte, emazteek lan emankorrean laguntzen dietelako”*. Edonola ere, aurreko egoeraren aldean desberdintasun nabariak daudela egiaztatu dute emakumeek: *“Orain, lana partekatzen da; lehen, ordea, emakumeon ardura zen den-dena txukun egotea, eta, orain, beste senide batzuekin egiten dugu”*.

Etxean lan hori partekatzea lortzea emakumeen ekimenpean egongo da. Emakumeek aldaketa horren gaineko erantzukizuna eta agentzia izango dituzte, hau da, familia-arloko jardueraren jarraibideak aldatu beharko dituzte ezinbestean. Prozesu gogor horretan, ez dago bizirik irauterik, *komunikaziorik eta elkarrizketa ulerkorrik* ez badago. Horrela, bada, jarduera horren arauak ezarri daitezke familian bertan, lana familiako kide guztien artean partekatzeko eta hobeto eramateko estrategia moduan. Horren adibidea eskaintzen digu emakumeetako batek: *“Nire familian ezarri dugun arauaren arabera, nork bere uniformeak garbitu behar du”*. Euren familian aldaketa horiek erdiesten dituzten emakumeentzat, argi eta garbi dago harremanek hobera egin dutela eta euren balio pertsonala ere areagotu dela. Hona hemen nola sentitzen duen hori emakumeetako batek: *“Gehiago maite ditugu senarrak, balioetsi egiten gaituztela sentitzen dugulako, eta gehiago maite gaituzte gehiago balioesten gaituztelako”*. Atzeraelikatzen duen harmonia-zirkulua izango balitz bezala bizi dute.

Nahiz eta familia bakoitzean emakumearen ekimena izan, ugalketako zereginen banaketan aldaketak egiteko prozesua sustatu eta indartu egiten da, erakundeek laguntasunerako estrategia aktiboak abian jartzen badituzte. Bere testuinguruaren eta bilakaeraren arabera, erakunde bakoitzak bere egoerara egokituen daudenak aukeratzen ditu, baina batzuk bere berrikuntzagatik edo emaitzengatik nabarmentzen dira.

Lojan bertan, lehenengo estrategietakoa izan da *gizonak erakundeetan bertan sartzea*. Esate baterako, bileretara joateko asmoz etxetik irteteko orduan zailtasun handienak dituzten emakumeek antolamendu-prozesuetan errazago parte hartu dezaten, Lojako Emakumeen Herri Batasunak (UPML) gizonak prozesuan sartzeko erabakia hartu zuen, luzaroan emakumeen erakundea izan ostean. Estrategia horren bidez, gizonen mesfidantza murriztu nahi zuten, bileren edukia zein izan litekeen balioesteko orduan. Era berean, gizonak eurak ere sentsibilizatu nahi zituzten emakumeen antolamenduak familiari eta erkidegoari berari eskaintzen dizkien abantailen inguruan. Erabaki horri esker, gainera, berdintasunaren inguruko sentsibilizazio handiena zuten gizonak erresistentzia handiagoak zituzten gizonak ere erakarri zitzaizketen. Nolabait esatearren, horren ondorioz emakumeek euren berezko eremuari uko egiten diotenez, estrategia hori arriskutsua izan daitekeela onartu arren, UPMLk bete-betean asmatu zuen,

aurrerantzean ere *erakundeko lidergoa eta erantzukizun zein erabaki arloko postuak emakumeen esku egotea* funtsezko eskakizuna izango zela xedatu zuenean. Emakumeen esanetan, horren ondorioz erkidegoa gehiago integratu da, familia-arloko oztopo gehien dituzten emakumeek parte hartzeko aukera gehiago dituzte eta emakumeen aurkako indarkeria-arriskua gutxitu da.

Ulergarria denez, gizonak erakundeetan daudela kontuan hartuta, *genero-arloko prestakuntzarako* prozesuetan parte hartu dezakete. Aldaketarako estrategia klasikoa den arren, beharrezkoa dela baina nahikoa ez dela uste dugu.

Genero-zereginak aldatzeko hirugarren estrategia *gizarteratzeko eta taldean ospatzeko eremuak* izan dira. Eremu horietan, gizonak eta emakumeek prestatzen dute janaria edo egiten dute harrikoa. Gizonen batek zeregin horiek egin nahi ez baditu edo emaztearen esku uzten ahalegintzen bada, erakundeko gainerako emakumeek eta gizonak jokabide hori aurpegiratzen diote. Halakoetan, gainerako gizon kideen adibidea, motibazio soziala eta, azken batean, zehapen soziala dira emakumeei etxean garatutako prozesuetan laguntzeko ekintzak –prozesuok bakartiagoak eta gatazkatsuek direnean–.

Honaino, emakumeak etxean ez daudenetik lortutako aurrerapenak izan ditugu aztergai. Hala ere, jakin badakigu oraindik ere bide hori zaila bezain arazotsua dela zenbait emakumerentzat. Azken finean, arrunta da prozesu horietan berezko erresistentziak sortzea, nor bere zereginera ohitu dagoelako eta gizontzat nahiz emakumeentzat oso nekeza delako bertatik irtetea. Gizonen kasuan, *jeloskortasuna* eta *baimenak* dira emakumeek haien egituraketa onartu dadin gainditu behar dituzten zailtasun nagusiak. Emakumeen kasuan, ordea, aitortu egiten dute zailtasunak izaten dituztela *eskumenak eta erantzukizunak eskuordetzeko* orduan, ardurapean hainbat lan edukitzen ohituta daudenean.

Bestetik, emakumeen esanetan, gai honetan faktore asko daude jokoan; esate baterako, *hezkuntza, familiaren balioak eta laguntza sozial zein bateratua*. Gainera, kasu bakoitzean faktoreok desberdinak direnez, ez dute uste euren egituraketaren edo garatutako trebezia pertsonalen eraginpean bakarrik dagoenik aldaketa hori. Edonola ere, ez da batere erraza izan, emakumeetako batek adierazi duen bezala:

“Ondoan laguna dugunok, ez dut gustuko ezkondata gaudela esatea, ahalegin handia egin behar izan dugu, gizonak guk geuk garatzen dugun lana familiaren onerako ez ezik erkidegoaren mesederako ere badela konturatu daitezen”.

Emakume horiek oraindik ere zailtasunak dituzten beste emakume batzuei ematen diete adorea *egonarrria* eduki dezaten, *“denboraren joan-etorrian lortu*

egiten delako". Hori guztiori egiteko orduan, eurentzat oso lagungarria izan da prestatuta egotea, ondoren ikusiko dugun bezala.

Azpigaia	Adierazleak
Prestakuntza	Eragin pertsonala
	Lan emankorrea izandako eragina
	Ugalketako lanean izandako eragina

Lehenengo eta behin, emakumeek argi eta garbi dute prestakuntza oso onuragarria dela maila pertsonalean. Emakume askori etxetik irteteko eta beste emakume kide batzuekin elkartzeko aukera ematen die: *“Prestakuntzari esker, badugu etxetik irteterik, eta, orduan, elkar gonbidatzen dugu”*. Bestetik, ziurtagiria jasotzea benetako aitorpena da emakumeentzat, eta kontuan hartzen dituztela sentitzen dute. Hori dela eta, prestakuntzetara joaten direnean, aldaketak gertatzen dira haien mugikortasunean nahiz buru-estimuan. Horrez gain, emakumeak beste giro batean elkartzen direnez eta egunerokoak ez bezalako erantzukizunak zein lanak dituztenez, lasaiagoak diren harreman desberdinak ere sortzen dira. Hori dela eta, honako hauxe dio emakumeetako batek: *“Oso-oso gogoko ditugu tailerrak, guretzat terapia dira-eta”*.

Jasotako prestakuntzen edukia era guztietakoa izan da, eta ondorioak eduki ditu aztergai ditugun lan-mota bietarako. Lan emankorrari dagokionez, *labeen erakuntzari, ekipamendu industrialei, elikagaien manipulazioari...* buruzko jakintzak bereganatzean, maila teknikoan egin dute hobera, eta,aldi berean, haien lan-aukeretan ere izan du eragina. Emakumeetako baten esanetan, *“Prestakuntza jasotzean, lanpostu hobeak lortzeko aukera eduki dugu”*. Beste emakume batek honako laburpen hau egiten du: *“Hezkuntza eskuratzean, nire bizitzak maila teknikoan egin du hobera”*.

Ugalketako lanari dagokionez, nabarmentzen dute harreman-mailan jaso dituzten prestakuntzak oso baliagarriak izan direla *familiarekin, erakundearen eta euren buruarekin negoziatzeko estrategiak ikasteko, erabakiak hartzeko, hitzarmenei aurre egiteko eta errespetatuak bezain balioetsiak izateko*. Hartara, emakumeen iritziz, orain tresna gehiago dituzte eskura, erakundeko, familiako eta bizitzako gatazkak kontrolatzeko. Era berean, eskubideen eta legeen arloan jasotako prestakuntzak ere nabarmendu dituzte. 103. Legea eta eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak, sexualak eta ugalketakoak ezagutzean, orain badakite zer eskubide dituzten emakume moduan, eta, horren ondorioz, badute zer eskaturik. Euretako baten esanetan, *“Legea ezagutzeak ematen didan boterea”*.

Prestakuntzaren ondorioz aldaketa horiek guztiak egin ahal izan dira, erkidegoetan erabili ahal izan dutelako: *“Nork bere etxera eta erkidegora daramatzen jakintzen, esperientzien eta ideien trukea da prestakuntza, eta nik neuk gehiago ikasteko premia dut beti”*. Hain zuzen ere, *senarren jokabideak* aldatzen lagundu die eta, oro har, *errespetu handiagoa* lortzen eta *indarkeria murrizten* ere bai. Erkidegoetara eta etxera bueltan daramatzaten jakintza eta tresna horien bidez, harreman desberdinak sortzen dira, eta senar-emazteen esparrua bera gainditzen dutela uste dute emakumeek. Emakumeetako batek seme-alabak heztean zeinen lagungarria izan den azaldu du honako hitzon bitartez: *“Antolatuta nagoenetik, beste era batera hezi ahal izan ditut seme-alabak”*. Bestetik, emakume gazte baten esanetan, topaketetako parte-hartzaileetatik harago doazen harremanetan ere izan du eragina: *“Prestakuntzetan ikasitakoa aitarekin eta amarekin partekatu dudanean, haien harremanak ere hobera egin du”*.

Ezin ditugu bidean aurkitutako zailtasunak albo batera utzi, ibilbideak benetan merezi izan duela adierazteko. Lehenengo eta behin, prestakuntzak beste erantzukizun batzuekin bateratzeko zailtasuna nabarmendu behar dugu. Azken batean, etxea eta lan emankorra bertan behera utzi behar dituzte prestakuntzak dirauen bitartean. Horrez gain, landa-inguruneetatik topaketetara joateko orduan dituzten garraio-zailtasunak ere hartu behar dira kontuan. Emakumeetako baten esanetan, *“askoz errazagoa da joatea prestakuntza landa-ingurunean egiten denean eta ez Lojan”*. Dena dela, askotan prestakuntzak emakumeen kokalekuetan ematen ez direnez, emakumeak eurak lekualdatu behar dira. Hala ere, emakumeek ahal duten guztia egiten dute joateko, eta joan egiten dira, nahiz eta horretarako ardurapean dituzten umeak prestakuntzetara eraman behar dituzten. Zailtasunak zailtasun, benetan merezi omen du joatea. Halaxe azaldu zigun emakumeetako batek tailerra amaitu genuenean: *“Eskerrik asko hemen eman ditugun bi egun hauetatik, etxeko lana metatu egin bazait ere. Hemen, gehiago ikasi dut, etxean berbera egiten dudalako beti. Etxean asko galdu dudan arren, hirukoitza irabazi dut”*. Azkenik, prestakuntzetara joateko orduan erakundeetatik kanpo jasotzen duten laguntza logistikoa ere aitortzen dute, GKE-ek emandakoa, batez ere. Aldi berean, badakite erronka handia izango dela kanpoko mendetasunik gabe jarraitzea prestakuntzaren bidetik.

Atal honen amaieran, tailerrean sortutako hausnarketa hau eskaini nahi dugu, elkarrekiko eragindun zirkuluan sartzen dituelako aztertu berri ditugun hiru azpigiak:

“Erakundean eta KAZESen parte hartzean, familiek euren baldintza ekonomikoak hobetu ahal izan dituztenez, emakumeen lan-karga bera ere arindu ahal izan da. Garaua ehotzeko errotaren bidez, ez dira dolarrak ugaltzen, baina emakumeen lana errazten da, diru-sarrerak lortzen dira eta biziari eusten zaio. Aldi berean, horri esker, badago ordainpeko lana lortzerik eta trebetasunak bereganatzerik. Zirkulua da, beraz”.

14. taula. Lanetan gertatutako aldaketak		
Azpigaia	Adierazlea	Lorpenak
Lan emankorra	Ekoizpenaren kopurua eta kalitatea	<ul style="list-style-type: none"> - Antzinako jakitateen berreskurapena - Ekoizpen agroekologikoa, osasungarria eta anitza - Elikadura eta osasun hobekuntza - Ekoizpen-kopuruaren gehikuntza
	Merkaturaketa	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpen osasungarriaren erkapenezko abantaila - Tokiko produktuaren balioespina - Produktu landuen salmenta - Bezeroekiko harreman zuzena - Bezeroen atentzio hobea - Produktuaren sustapen hobea - Salmentengatikoko diru-sarreraren gehikuntza
	Buru-estimua	<ul style="list-style-type: none"> - Norberaren gaitasunen aitortzea: sustatzeko gaitasuna, gizartearen ekarpena egiteko gaitasuna (“baliagarria izatea”), balio-sentsazioa... - Aukera gehiago
	Laneko harremanak	<ul style="list-style-type: none"> - Elkartegintza - Berdintasun handiagoa lana garatzeko orduan - Erkidegoko harremanen hobekuntza (partekatze ekoizpena) - Agroekologia, gazteak landa-ingurunera erakartzeko ikuspegi moduan - Beste batzuekiko harremanak etxetik kanpo
Ugalketako lana	Etxeko lanaren balioespina	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko lanaren balioaren inguruko kontzientzia handiagoa
	Etxeko lanaren banaketa	<ul style="list-style-type: none"> - Baterako erantzukizun handiagoa: etxeko lana gehiago partekatzen da
	Aldaketarako estrategiak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazioa eta elkarrizketa - Arau berrien negoziaketa - Gizonak erakundean sartzeko eta emakumeen lidergoari eustea - Genero-berdintasunerako prestakuntza - Gizarteratzeko eta taldean ospatzeko eremuak, laguntza sozial eta bateratua - Egonarria eta prozesu-ikuspegia
	Erresistentziak	<ul style="list-style-type: none"> - Jeloskortasuna eta baimenak - Eskumenak eta erantzukizunak eskuordetzeko zailtasunak

Azpigaia	Adierazlea	Lorpenak
Prestakuntza	Eragin pertsonala	- Jakintzak eta gaitasunak bereganatzeko prozesua - Buru-estimua, balioespen eta errespetu handiagoa - Erabakiak hartzeko gaitasuna - Mugikortasuna eta etxetik kanpoko harremanak - Euren eskubideen ezagutza - Indarkeriaren murrizketa
	Lan emankorrean izandako eragina	- Gaitasun teknikoaren hobekuntza - Lanpostu hobeak
	Ugalketako lanean izandako eragina	- Negoziatzeko estrategien ikaskuntza - Gatazken kontrola

Iturria: Berton egina

6.2. “Dirutxoa hartzen ikasi beharra...”

Autonomia ekonomikoa lortzeko baliabideetako “dirutxoa hartzen ikaste” hori da, emakume parte-hartzaitako batek aipatu bezala. Emakumeentzat, ostera, helburu horretan aurrera egiteko orduan, lanetako abiapuntuko baldintzak desberdinak dira. KAZESen daudenetik emakumeen lanetako baldintzetan gertatu diren aldaketak balioesteko orduan, baliabideen eta mozkinen lorpena eta kontrola kontuan hartuko ditugu, batez ere; eta, horretarako, biziaren jasangarritasunaren ikuspegi zabalenetik ulertuko ditugu baliabide horiek. Hartara, abiapuntuko baldintzak berdintasunezkoak izan daitezen beharrezkoak diren baliabideen artean, emakumeek ondasun naturalak eta baliabide emankorrak eduki behar dituzte, baina garrantzitsuak ere badiren beste batzuk ere bai; esate baterako, denbora baliabidea eta elkarri laguntzeko sareak. Hasteko, ondasun naturalak izango ditugu aztergai.

Azpigaia	Adierazleak
Ondasun naturalak	Lurra
	Ura

Lurra eta ura ezinbestekoak dira gizaki guztientzat, baina, batez ere, azterlan honetako emakume gehienek bizibidea den nekazaritza garatzeko. *Lorpenaz* ari garenean, ondasuna erabiltzeko aukeraz hitz egiten ari gara; eta, *kontrolaz* ari garenean, jabetzaren edukitzaz eta erabilerari buruzko erabakiez. Hartara, nekazari batek lurra eskuratzeko aukera izan dezake, bere jabetzapekoa izan ez

arren, beste baten lursaila landatzen badu eta, ordainetan, produktuaren zati bat jasotzen badu. Lurraren kontrola, osterera, ez du landatzen duenak edukiko, jabeak baizik, hau da, gizon lur-jabeak (eta ez emakume lur-jabeak).



Emakumeen ustez, kontrola baino lorpen handiagoa dute lurraren arloan, familia-buruak diren emakumeek izan ezik –euren lurrak kontrolatzen dituzte-eta-. Euren jabetzakoak izan ez arren, lurrak lortzeko orduan nekazariak garatzen dituzten hitzarmenen adibide argia eskaintzen digu emakumeetako batek: *“Trukea da, nolabait esatearren. Behiak zaintzen dizkiogu, eta, ordainetan, lur-zati bat landatzen uzten digu. Dena dela, ondo-ondo zaintzen dut, beste batentzat izango den arren”*. Euren iritziz, KAZESen parte hartzen dutenetik, eskubideak eurak eta arlo horretako legeak hobeto ezagutzen dituztenez, zenbait hobekuntza erdietsi dituzte. Nolanahi ere, jorratu gabeko gaia dela aitortzen dute, emakumeetako batek baieztatzen duen bezala: *“Lurraren birbanaketa ez dago oraindik gure agendetan”*.

Emakume moduan, lurra gizonak baino gutxiago lortu eta kontrolatzen dutela uste dute, betiere, gizonak eta emakumeak lurraren jabetza ez badute –halakoetan, ez gizonak ez emakumeak ez dute lurraren gaineko kontrolik-. Alde horretatik, KAZESen parte hartzea onuragarria izan dela uste dute, nahiz eta guztientzat modu berean gertatu ez den. Halaxe adierazten du emakumeetako batek: *“Norberaren lurra eskuratzea errazagoa den arren, beste pertsona batzuen egoera ez da ezertxo ere aldatu; daukaguna daukagu”*. Inkestetako datuek iritzi hori baieztatu dute, haien arabera emakumeen finka agroekologikoei laguntzeko ekintzak abian jartzen direnean emakumeen batez besteko lur-erabilera areagotzen

da⁴⁴. Dena dela, erabileraren gehikuntza hori familian bertan negoziatzen da, baliabide eskuragarriak hobeto erabiltzeko asmoz –baina ez hainbeste lur berriak erosteagatik, horretarako jarduketa bereziagoak garatu beharko lirakeelako zentzu horretan–.

Edonola ere, oraindik ere emakumeek zailtasunak dituzte, iritzia emateko eta, azken batean, lurra bera kontrolatzek orduan, baita harreman hurbilenetan ere: *“Gure esku zegoen guztia egin genuen, aita inbadituta sentitu ez zedin, bera zelako lursaila kontrolatzen zuena. Emakumeon borroka handia da, familiarena izan arren”*. Badirudi KAZESen inguruan egituratzea oso lagungarria dela borroka horri begira, emakumeen esanetan egituratzen diren neurrian lurraren erabilerari buruzko erabakia gero eta gehiagotan hartzen delako emakumeen eta haien senarren artean. Jabekuntzarako prozesuan, emakume gutxiagok uste dute partekatutako erabakietan zeresan handiagoa daukala senarraren iritzia⁴⁵.

Uraren lorpenari dagokionez, Lojako probintzian baliabide sentikorra dela esan behar dugu, lehortea, besteak beste, faktore historikoa izan delako probintziako migrazio-prozesuei begira. Nekazaritza eraldatzeko prozesuek, gainera, ez dute aurreikusitako emaitza erdietsi, Pomak eta Salcedok azaltzen duten bezala (2016):

“Nekazaritzaren Eraldaketari buruzko Legea ezarri zedila [...] eskatzeko antolatu ziren nekazarien etxaldeetan bakarrik eratu ziren kooperatibak, eta lurraren lorpena berdintasunezkoa izan zen arrimatuen artean. Horrez gain, etxalde osoan lortu zuten, hau da, lautadetan eta ureztaketarako ura duten gunetan ere bai. Etxalde gehienetan, lur-jabeek ‘aldi baterako’ guneak baino ez zizkieten saldu IERACi, ureztaketarik gabeko magalak zirelako. Beraz, lautadak eta ureztaketapeko guneak utzi zituzten eurentzat. Halakoetan, gainera, banan-banan saldu zituzten, eta arrimatuek euren baliabideen arabera ordaindu ahal zutena erosi zuten. Hori dela eta, alde handiak sortu ziren eskuratzeko aukerari begira, eta adierazi bezala, kalitate txarreko lursailak baino ez ziren”.

Beraz, testuinguru horri erreparatuz gero, ekoizle txikiek ureztaketarik gabeko magaletan landatzen dute, batez ere. Horregatik, gizonak nahiz emakumeek ura lortzeko aukera gutxi dute. Testuinguru horretan, emakumeek baieztatu egin dute

⁴⁴ 82 emakumeri egindako inkestetako datuen arabera, azoken eta salmenta zuzenaren bidez (etxez etxeko merkatua) finka agroekologikoei ekoizten eta KAZESen parte hartzen lagundu ostean, emakumeek lurra lortzeko zeukaten aukera %24 handitu zen batez beste. Lur hori, gainera, animalia txikiak hazteko eta baratze agroekologikoak landatzeko erabili zuten.

⁴⁵ Honako honexen emaitzak: “Emakumeen jabekuntzaren adierazleei buruzko inkesta: baliabide emankorren eta diru-sarreraren kontrola (erabakitze gaitasuna)”.

zirkuituetan parte hartzen dutenetik *“errazago lortzen dutela ura”*, baina, batez ere, *edateko ura*, baita *ureztaketa familiarra* ere. Horretarako, zenbait estrategia jarri behar izan dira abian; esate baterako, isurialdeko urak biltzen dituzten ureztaketa-sistemak erosteko kreditu txikiak. Kreditu horiek, hain zuzen ere, erakundeak berak ematen ditu txandakako fondo bateratuaren bitartez. Horren ondorioz, eragin zuzenak antzeman dituzte emakumeek etxean eta inguruan egiten dituzten lanen baldintzetan: *“Ureztaketa familiarerako urak emakumeen lana arindu du. Orain, emakumeek badute beste lan batzuetan laguntzerik, baina ez horretan”*. Nolanahi ere, uraren kontrola gizonen eta emakumeen eskutik urrun dago. COOTADi esker, GAdek uraren kudeaketa eskuordetu ahal diete ekonomia sozial eta solidarioko erakundeei, baina kudeaketa eta kontrol kolektiborako neurri horiek ez dira oraindik abian jarri.

Azpigaia	Adierazleak
Baliabideak	Emankorrak
	Denbora
	Elkarri laguntzeko sareak

Lurra eta ura ez ezik, honako hauexek ere badira baliabide emankorrak: makinak, kreditua, enplegua, garraioa, intsumoak eta trebakuntza. Ondoren izango ditugu aztergai.

Hasteko, *makinei* eta ekipamenduari dagokienez, egituratuta daudenetik baliabide horiek lortzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago dituztela uste dute emakumeek. Euren iritziz, ekoizpen-eredua aldatzeko abian jarri duten prozesuarekin dauka zerikusia; eta, makinaren aldaketak, teknologia eskuragarriagoekin. Egia da oraindik ere gizonen baino neurri txikiagoan erabiltzen dituztela makinak eta hartzen dituztela makinoin buruzko erabakiak. Hala ere, inkestetako datuen arabera, argi dago prozesuan bertan emakume gehiagok erabiltzen dituztela makinak euren senarren neurri berean eta nabarmen jaisten direla makinak senarrek bakarrik erabiltzen dituzteneko kasuak. Erabakiei dagokienez, ekipamenduen kontrol partekatuak ere egin du gora; eta senarren kontrol esklusiboak, behera.

Enpleguari edota lan emankorrari dagokienez, KAZESen parte hartzean emakume gehiagok lan egiten dute aparte nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenean (era berean, lan emankorrik egiten ez dutela baieztatzen duten emakumeen kopurua ere jaitsi da). Bestetik, badirudi baratzeko zereginetan ere gehiago laguntzen diotela elkarri. Aldi berean, emakume gehiagok erabakitzen dute euren kabuz etxetik kanpo lan egitea, eta kasu gutxiagotan da senarra etxetik kanpo lan egiteko baimena ematen duena edo emaztea etxean geratzea erabakitzen duena.

Ekoizpenerako *intsumoen* kasuan, aldeak agertzen dira intsumo-motaren arabera. Emakumeek lorpen eta kontrol handia dute intsumo hauetan: *“haziak, etxerako lehengaiak”* eta, oro har, eurek ekoitzi edo babestu ditzaketanak. Euren ustez, gizonak intsumo horiek eskuratzeko aukera gutxi dituzte, baina intsumo komertzialetan alderantzizkoa jazotzen da: gizonak asko dituzte; eta emakumeek, gutxi.

Seguruenik, emakumeek *kreditua* lortzeko eta kontrolatzeko orduan bizi izan dituzte aldaketa nabarienetakoak. Bankuko ohiko kredituak aukera gutxi eskaintzen dizkie jarduera agroekologikoak sustatzen dituztenei; eta, are gutxiago, emakumeei. Bestetik, nazioarteko lankidetzak emakumeen ekoizpen-ekimenetarako bultzatutako mikrokredituek ere zenbait arazo sortu dituzte. Esperientzia horiek kontuan hartuta, erakunde batzuek autokudeatutako kreditu-ekimenak bultzatu dituzte, hau da, *“interes txikiko kutxa txikia”*, emakume batzuen esanetan. Hona hemen UPMLko emakume bazkideetako batek esandakoa:

“Kreditua GKE-ei esker lortzen genuenean, ezer ez genekienez, batzuetan larregi ere zorpetzen ginen. Hori dela eta, geure fondo partekatua sortzea bururatu zitzaigun. Gai zaila da. UPMLren esperientziaren arabera, hasieran gizonak barre egiten zuten, baina ondo zihoala eta onurak ukigarriak zirela ikusi zutenean, interes handia erakutsi zuten”.

Horrelako tresnen bitartez, emakumeek badute kreditua lortzerik eta kontrolatzerik ere bai, emakumeen erakundeak berak kudeatzen du-eta. Beraz, emakumeek ez dute ohiko kreditua (banka pribatua) eskuratzeko aukera gehiago izan ezinbestean, baina kreditua lortu eta kontrolatu ahal izan dute herri-finantza solidarioetako erakundeen esparruan. Datuen arabera, gainera, KAZESeko partaidetza sendotzen den neurrian, emakumeak zenbateko handiagoko kredituei aurre egiten ausartzen dira emakumeak, eta neurri handiagoan erabakitzen dute zertarako erabiliko duten lortutako kreditu hori.

Prestakuntza ondoen balioetsitako faktoreetakoa da, eta KAZESek zeresan handia dauka bertan. Prestakuntza egiteko zailtasunak dituztela aipatu dugu, landa-inguruneke garraioa oso mugatuta dagoelako. Izan ere, emakumeek oso gutxitan lortu eta kontrolatzen duten baliabidea da *garraioa*. Euretako batzuek benetako abentura bizi dute tailerretaraino iristeko. Hala ere, prestakuntza da gizonak baino gehiago lortzen dituzten baliabide urrietakoa. Emakume parte-hartzaileen esanetan, gizonak prestakuntzaren inguruko inolako *“interesik ez dutenez”*, *“ez diote eurek besteko onurarik ateratzen”*. Bestetik, ez dute uste gizonak eta emakumeek jasotzen duten prestakuntzaren gaineko benetako kontrolik daukatenik. Beraz, instituzioek, GGKE-ek eta beste prestakuntza-emaile batzuek oso kontuan hartu beharko lukete adierazpen hori, edukiak eta formatuak egokiak diren aztertzeko eta helburu diren biztanleen partaidetza errazteko.

Jarduera emankorra garatzeko eta, hala badagokio, osatzeko ezinbesteko baliabidea da *denbora*. Emakume parte-hartzaileen ustez, denbora baliabidea oso urria da eurentzat –gainera, sentsazio anbibalentea dute eskuragarri duten denborari buruz erabakitzeke orduan–. Gizonek, ordea, euren denbora eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago dituztela uste dute emakumeek. Halaxe azaltzen du emakumeetako batek: *“Emakumeontzat, ez dago atsedenerako eskubiderik, ez daukagu”*. Emakumeak KAZESen inguruan egituratu direnetik haien denboretan aldaketarik gertatu den adierazteko orduan, jarrera desberdinak daude. Agerikoa denez, inplikatzeko eta egituratzeko denbora behar denez, ez da harritzekoa emakumeentzat beste karga bat izatea eta lehendik zeuzkatenekin uztartzeko zailtasunak edukitzea: *“Denbora gutxiago dugu, etxeko lan gehiago ditugu, txakrakoa, tailerretakoa...”*. Beste emakume batzuen iritziz, prozesuan bertan ikasi dute denborak hobeto administratzen eta inbertitzen: *“Denbora gehiago dugu beste gauza batzuetarako, atsedeen hartzeko eta seme-alabekin egoteko”*. Denbora, beraz, ez da erabat konponduta dagoen arazoa, gainditu gabeko erronka da-eta. Denbora-arloko txirotasunaren pertzepzioa murrizten denean, hainbat faktore jorratu behar dira; esate baterako, zereginen berdintasunezko banaketa, lan-karga gutxitzeko teknologiak eta senarren zein familien balioak, jarrerak eta erresistentziak. Halaber, emakumeen estrategiak ere izan daitezke lagungarriak, denbora baliabide preziatua areagotzeko orduan.

Norabide horretarantz abiatzen dira zailtasunak partekatzen dituzten emakumeek elkarri laguntzeko dauzkaten sareak: *“emakumeek emakumeei lagundu nahi diete”*. Emakumeak etxetik irten eta euren burua aurkitu duten neurrian, euren arteko loturak ezarri dira: *“Egituraketarako lana borondatezkoa eta soziala da, eta, askotan, norbera inplikatzeko den neurrian hazten da”*. Esperientziak partekatzean, ideia eta estrategia bateratu berriak sortu dira, egoerak errazagoak izan daitezkeen: *“Antolatu eta jarduerak partekatzeko trebatu gara”*. Hartara, badugu banakako eta baterako premiei aurre egiterik: *“Nire etxekoak ez beste premia batzuei aurre egin ahal izan diete, beste batzuei laguntzean, ahizpei laguntzean”*. Beraz, interes estrategikoa da elkarri laguntzen jarraitzea: *“Geure estrategia sortu behar dugu emakume moduan, elkarri nola laguntzen diogun ikusteko eta, bat-batean, zirkuitu hauei onura atera eta elkarren laguntzarako estrategiak ezartzeko”*.

Azpigaia	Adierazleak
Diru-sarrerak	Emakumeen ekintzailtzak
	Kontsumorako jarraibideak

Autonomia ekonomikoari begira, behar-beharrezko baldintza da nork bere diru-sarrerak edukitzea. Lojako emakume ekoizleen ustez, diru-sarrerak lortzeko

aukera gutxi dituzte, baina egoera horrek hobera egin du KAZESetan parte hartzen dutenetik. Diru-sarrerei buruzko inkestako datuak iritzi horren adierazgarri dira⁴⁶. Batetik, ekimen familiarretan eta bikotekideekin partekatutako ekimenetan, *“lana eta diru-sarrerak partekatzen dira”*. Bestetik, emakumeek ekintzailletza txikiak jarri dituzte abian, eta errentagarritasuna nahiz diru-sarrerak lortu dituzte. Hona hemen emakume batek egindako hausnarketa ohiko finantziazioak babestu ohi ez dituen proiektuak garatzean emakumeek antzeman duten aldaketari buruz:

“Neure erakundean daukadan esperientziagatik, badakit merkaturako produktuak eta ekintzailletzak gizonak antolatzen dituzten laborantzak direla beti. Beraz, zuk diozun moduan, generoari buruzko azterketa hori albo batera utzi dugunean, ez dugu zehaztu zer gauzak sortzen dituzten emakumeentzako diru-sarrerak, nahiz eta txikiak izan. Emakumeek badute diru horri buruzko erabakiak hartzeko boteretik, baina finantza-erakundeek ez diete proiektu horiei inolako jaramonik egiten, ‘errentagarritasuna’ bilatu beharra dagoelako. Hala ere, hutsaren hurrengo diruditen gauzak oso garrantzitsuak direla esan beharra dago”.

Emakumeen euren lidergopeko ekintzailletzetan, emakumeak eurak dira lortutako mozkinak kontrolatzen dituztenak, eta aitortu egiten dute aldaketa handia izan dela lehengo egoeraren aldean, familiaren dirua senarrek kontrolatzen zuten-eta⁴⁷. Emakumeetako batek argi eta garbi dioenez, *“Ez du eskua nire poltsikoan sartuko”*. Ez dago emakumeetako baten bizipenetik bertatik abiatzea baino hoberik aldaketa nolakoa izan den ulertzeko. Hain zuzen ere, adierazi egiten digu elikagaiak transformatzeko ekimenak balio handikoak direla emakumeentzat euren diru-sarrerak lortzeko eta kontrolatzeko orduan eta emakumeek nolako arazoei aurre egin behar zieten euren autonomia ekonomikoa bermatzeko moduko baliabiderik ez zeukatenean:

“Emakume kideak ni bezain xumeak dira, txiroak gara. Emakume horiek senarrak landutako produktua dakarte, transformatu egiten dute eta badakite diru hori ikastetxerako, premietarako erabili behar dutela eta ez senarrari emateko. Izan ere, independentzia hori lortzeko, azokan eta dendan saldu dute. Gu zaharragoak garenez, ez dugu produktuak transformatzeko eta senarretatik independizatzeko aukera hori eduki geure kulturagatik, eta senarren menpean bizi izan gara. Horrexegatik

⁴⁶ “Diru-sarrerei buruzko inkestako” emaitzen arabera (II. eranskinean daude galderak), argi eta garbi dago emakumeek salmentengatiko diru-sarrerak gehitu dituztela euren finka agroekologikoak hobetu dituztenean.

⁴⁷ 2014ko azaroan egindako “Emakumeen jabeakuntzaren adierazleei buruzko inkesta: baliabide emankorren eta diru-sarreren kontrola” inkestako emaitzen arabera, inkestatutako emakumeen %79k euren kabuz erabakitzen dute zertarako erabiliko dituzten euren diru-sarrerak.

izan ditugu liskarrak. Landa-inguruneko errietak diruagatik sortzen dira, senarrak ez diolako semeari arkatza erosteko dirurik ematen... Emakumeok seme-alabengatik borrokatzen gara beti”.

Abiapuntuko baliabide emankorren lorpenetik eta kontroletik harago, emakumeen diru-sarreraren gehikuntzak produktuei balio erantsia emateko gaitasunarekin ere badauka zerikusirik, eta, kasu honetan, emakumeen jakitateei zor zaie lorpen hori. Belaunaldiz belaunaldi eta emakumez emakume igorritako jakintzak emakumeentzat eurentzat hain baliotsuak direnez, beste baliabide bat izango balira bezala jorratu eta balioetsi behar ditugu. Ikuspegi horretatik, hona hemen beste erronka bat:

“Transformatzaileak gara, baina, horrez gain, jakitate horiek erabiltzen eta kontrolatzen ikasi behar dugu. Gure amamen, emakumeen jakitate horiei esker, are jabekuntza handiagoa dute gizonak. Gorde egin ditugunez, gure indarra eta tresna izan beharko lirateke, baina, hori egin beharrean, laga egiten ditugu beste batzuek euren jabekuntza erdietsi dezaten”.

Edonola ere, emakumeek diru-sarreraren erabilerari buruz erabakitzen dutenean, premiei buruzko ikuspegi globaletik eta hausnarketatik abiatzen dira. Batetik, familiarekin partekatzen dituzte, emakumeetako batek dioenez: *“Nik neuk erabakitzen dut; familiarekin partekatu arren, neuk hartzen dut erabakia”*. Beste batek, ordea, barreak diosku diru-sarrerak partekatzean gastuak ere partekatu behar direla: *“Diru-sarrerak eta gastuak partekatzen dira, eta, orain, emakumeak dirua daukanez, gastuak pasatzen dizkio gizonak”*. Azken finean, *ekonomiaren arautzaileak* izan behar dira emakumeak.

Bestetik, hausnartu egiten dute nola aldatu diren aurrezkirako eta kontsumorako zituzten jarraibideak ekonomia sozial eta solidarioaren logikaren arabera dihardutenetik. Aurrezten hasi izana da lehenengo aldaketa: *“Zorpeketan barik, aurrezkian pentsatzen dugu, ekonomiaren ikuspegi gertatutako aldaketa horri guztiorri esker”*. Bigarren aldaketa gastuaren lehenespina da: *“Orain, gehiago lehenesten dugu gastua, eta ez gara hain kontsumistak”*. Zertan gastatu eta zer erosi pentsatu beharra dago, eta, horretarako, zentzuz hautatu beharra dago zer erosi. Dena dela, aitortu egiten dute erronka handia dela benetan arduratsua eta zentzuzkoa den kontsumoa egin ahal izatea: *“Ezin dugu esan dena osasungarria denik, geure buruari diotsogulako gezurra. Geurea kontsumitzen dugu, eta badakigu garbi dagoela. Erosten dugunean, ordea, ez dugu beti garbi erosten, ahalegina egin arren”*. *“Ahalegina egin arren”* hori KAZESek dituzten zenbait mugaren erakusgarri da. Kontsumo arduratsua bultzatzeko, KAZESeko beste erakunde batzuek behar beste produktu eskaini behar dituzte, prezioak eskuragarriak izan behar dira biztanle gehienentzat, banaketa-sistemak

erraztasunak eman behar ditu produktu horiek eskuratzeko eta KAZESeko kideek borondatea eduki eta nahitako apustua egin behar dute zirkuituan bertan hornitzeko. Horretarako guztirako, behar besteko politika publikoak ezarri behar dira, horrelako egituraketak sustatzeko.

Azpigaia	Adierazleak
Askatasunak	Erabakiak hartzeko gaitasuna
	Mugikortasuna

Emakumeek baliabideak eta diru-sarrerak kontrolatu dituzten neurrian, haien autonomiako beste faktore batzuek hobera egin dute; esate baterako, euren erabakiak hartzeko gaitasuna eta mugikortasuna. KAZESen izandako partaidetzak askatasunaren adierazle horietan ere eduki du eragina.

Erabakiak hartzeko gaitasunari dagokionez, zenbait emakumek azaldu egin digute lehen ez zirela erabakiei bakardadean aurre egiteko gai, ia-ia inoiz erabakirik hartzen ez zutelako. Emakumeetako batek honako hauxe dio ia-ia karikatura eginda: *“Lehen, zer arropa erosten genuen ere ez genuen erabakitzen”*. Beraz, ez da harrizkoa emakumeak arazoak eta segurtasun-falta edukitzea erabakiak hartzeko orduan eta bakarrik ez hartzea ebaztea: *“Lehen, erabakiak hartzen lagundu ziezaguten nahi genuen”*. Edonola ere, KAZESen inguruan egituratzeko prozesuan, era guztietako egoerei aurre egin behar izan dietenez, gaur egun badute erabakiak euren kabuz hartzerik eta euren buruarekiko konfiantza atzeraelikatzerik, harik eta arlo berrietako erabakiak hartu arte. Honako hauxe azaltzen du emakumeetako batek: *“Baratzean, nik neuk erabakitzen dut, eta azokako diruari buruz ere bai”*. Batzuen esanetan, *“askeagoak dira, ausartagoak, eta proposatzeko, lan egiteko eta beste emakume kide batzuen liderrak izateko askatasuna dute”*. Beste emakume batzuek, ostera, zenbait kasu dakarzkigute gogora, oraindik ere emakume batzuek ez dutelako berdintasunez erabakitze gaitasunik euren gizon kideen aldean. Emakumeetako batek hori zeinen etsigarria den azaltzen digu: *“Nik ez dut inoiz erabakitzen, senarrak baizik. Biok agroekologiako tailerrak izan ditugu, baina berak ‘hango lurzorua ez da egokia’ dio, eta berak erabakitzen du. Ohituta nago, baina etsigarria da benetan”*. Horrek gogorarazi egiten digu denbora behar dela aldaketa sakon horiek egiteko eta erronka handia dela aldaketa horiek azkartzeko moduak bilatzea.

Mugikortasunari dagokionez, emakumeek gogoan dute nolako oztopoak zituzten lehen etxetik irten nahi zutenean. Sarritan, *“familiako kargen ondorioz ez geneukan etxetik irteterik”*, baina *“irteteko beldurra”* edo *“baimena eskatzeko”* premia ere badute gogoan. Emakumeak KAZESen inguruan egituratu direnetik,

gutxiagotan daude etxean, eta mugitzeko askatasun handiagoa dute: *“Lehen, konformismoa zen nagusi, eta kultura patriarkal hierarkikoa errespetatzen zen. Orain, ordea, badut erabakitzerik eta parte hartzerik, tailerretara eta azoketara joaterik, prestakuntza jasotzerik...”*. Zirkuitu ekonomiko solidarioan sartzen direnetik, emakume gehiagok dute beti bakarrik irteteko askatasuna, eta, aldi-aldi, emakume gehiago ere joaten dira hileko edo asteko ekitaldi edo bileretara⁴⁸. Dena dela, berriro gogorarazten digute mugitzeko orduan denborak uztartzea dela zailtasun handiena: *“Mugikortasuna edukitzeko, denborak lehenetsi behar dira: erakundean, etxean eta leku guztietan egoteko denbora eduki behar da”*. Zailtasun horiek are larriagoak dira *familiako buruak diren amentzat*, laguntza familiarrik, sozialik eta bateraturik ez badaukate. Hori dela eta, behin eta berriro diote funtsezkoa dela familiaren laguntza izatea: *“Nahiz eta aske sentitu, mugikortasuna edukitzeko, familiaren laguntza eduki beharra dago, eta lagundu egiten du”*. Azkenik, landa-inguruneetako emakumeon mugikortasunari buruz hitz egitean, landa-inguruneetako baldintza mugatzaileei buruzko gaia sortzen da. Emakumeetako batek dioenez, ezin izan da nahi beste inplikatu ekintzaitza emankorrean: *“Zer eginik dagoenean, bertan egongo naiz laguntzen, gu proba eredu garriko buruak izan ginen, baina azoketara joateko edo laguntzeko baino ez didate deitzen. Niretzat, oster, ez da hain erraza mugitzea”*.

Atal honi amaiera emateko, hurrengo hausnarketan gai horien arteko mendetasuna aipatzen da, eta faktore batzuetan gertatutako aurrerapenak beste batzuk biderkatu ditzaketela ere nabarmentzen da:

“Dena zirkularra da: etxean bertan, garatzen dugun lanaren inguruan kontzientziazten badira, harremanek, autonomiak eta mugitzeko askatasunak hobera egiten dute”.

⁴⁸ “Emakumeen jabekuntzaren adierazleei buruzko inkesta: murriztapenik gabe mugitzeko askatasuna” inkestako emaitzak.

15. taula. Lanen baldintzetan gertatutako aldaketak		
Azpigaiak	Adierazlea	Lorpenak
Ondasun naturalak	Lurra	<ul style="list-style-type: none"> - Familiaren lurra eta lur bateratuak eskuratzeko aukera gehiago - Familiaren lurren erabilerari buruz erabakitze botere handiagoa
	Ura	<ul style="list-style-type: none"> - Edateko ura eta ureztaketa familiarra lortzeko aukera gehiago - Emakumeen lan-karga arintzeko prozesua
Baliabideak	Emankorrak	<ul style="list-style-type: none"> - Makinak eta ekipamenduak lortzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago - Elkarrekiko lankidetzari handiagoa baratzeko lanetan - Intsumo ez-komertzialak lortzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago - Kreditua lortzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago, herri-finantza solidarioetako sistemen bitartez - Prestakuntza jasotzeko aukera ugari
	Denbora	<ul style="list-style-type: none"> - Pertzepzio anbiguala: kasu batzuetan, hobekuntzat hartzen dute; eta, beste batzuetan, jardueren gaitasun gutxiak
	Elkarri laguntzeko sareak	<ul style="list-style-type: none"> - Zereginei elkarrekiko laguntzaren bidez aurre egiteko modu berriak
Diru-sarrerak	Emakumeen ekintzaitzak	<ul style="list-style-type: none"> - Produktuen transformazioaren balio erantsia - Nork bere diru-sarrerak lortzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago
	Konsumorako jarraibideak	<ul style="list-style-type: none"> - Aurrezteko aukera - Kontsumismo gutxiago, gastuaren lehenespena - Kontsumo arduratsu handiagoa
Askatasunak	Erabakiak hartzeko gaitasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Erabakiak hartzeko mendetasun gutxiago - Erabakitze botere handiagoa
	Mugikortasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Murriztapenik gabe mugitzeko askatasun handiagoa - Ekitaldi edo bileretako partaidetza handiagoa

Iturria: Berton egina

6.3. “Protestatik proposamenera igaro gara”

KAZESetan parte hartzean, emakumeak eremu publikoetan sartu dira apurka-apurka: eremu oinarrizkoenetan, hau da, merkatuan eta prestakuntzan; erakundeetako karguetan; eta irratieta, behatokitua, hauteskundeetarako hautagaitzetan eta zinegotzietan ere bai. Posizio horri esker, “*protestatik proposamenera igaro ahal izan dira*”.

Prozesu horretan, emakumeek jabeakuntza politikoa erdietsi dute apurka-apurka. Hori dela eta, ahalegin handia egin behar izan dute, beldurra, lotsa eta herabea gainditzeko eta zer eskubide dituzten jakiteko eta eskatu ahal izateko. Emakumeetako baten esanetan, “*Lehen, ez genituen geure eskubideak eskatzen, ez genekien zein ziren*”. Aldi berean, honako hauxe dio beste batek: “*Lehen, beldur ginen, eta lotsorak ginen. Orain, ordea, ikararik eta lotsarik gabe hitz egiten dugu*”. Eskubideen ezagutzari, trebetasun sozialei eta antolamendu-prozesuetan sustatzen diren jokabide-aldaketei esker, emakumeek euren eskaerak ezarri eta “*behar besteko indarra*” eduki dute “*kalera irteteko eta elikaduraren burujabetzaren, emakumeen eta bizitzaren eskubideen alde protestatzeko*”. Emakume lider batek hitz hauen bidez azaltzen du hori: “*Emakumeon borrokan, ez gaude hilda, lehen geunden moduan; orain, bizirik gaude, berpizten ari gara*”. Partaidetza politikorako prozesu hori nola eman den aztertze, lehenengo eta behin, erakundeetan bertan nola bizi izan duten ikusiko dugu; eta, bigarrenez, nola ezarri den lotura politika publikoekin eta kargu instituzionalekin.

Azpigaiak	Adierazleak
Erakundea	Harremanak
	Lidergoak
	Tentsioak

Erakundeko bertako harremanetan, emakumeek aitortu egiten dute “*taldearen ikuspegia aldatu egin dela*”. Orain, erakundeetan nola parte hartu hausnartzeko jarduerak garatzen dituztenez, partaidetza handiagoa da maila guztietan eta “*ez presidenteena bakarrik*”. Horrela, bada, taldeko kideen arteko harremanak egin du hobera. Kideen arteko laguntza ere sendotu egin da, agroekologiaren inguruko diskurtso eta jarduera bera partekatzean.

Erakundetik bertatik harago, KAZESen inguruan egituratzean, jakintza, lankidetzeta eta elkartasun handiagoa sustatu da zirkuituak osatzen dituzten erakundeen artean: “*KAZESeko erakundeok elkar ezagutu eta aitortu egin behar dugu*”. Erakundeek gero eta argiago dute euren artean bat egin behar dutela eta batasun

hori oso ahaltsua dela. Hori dela eta, kantoi-mailan eta kidetasunagatik egituratu dira aliantzen bitartez. Emakume kide batek dioenez, *“Talde gehiagoren artean, indar gehiago izango dugu”*, edo, bestela esanda, *“Erakunde moduan bat egiten ez badugu, ez gara inora iritsiko”*.

Erakunde mistoetan emakume moduan daukaten partaidetzari dagokionez, beste ikuspegi bat eta beste estilo bateko lidergoa eskaini dituztelakoan daude: *“Emakumeek parte hartzean, aldaketak gertatu dira erakundeetan, lidergo-motan. Hierarkizazioa beste era batera ikusten dugu, jende guztia maila berean dago guretzat eta iritzi guztiak kontuan hartu behar dira”*. Beste baten iritziz, *“emakume-begien bidezko lidergoa”* da, eta, horri esker, eskatzeko duten zilegitasunaren inguruko kontzientzia handiagoz defendatu ahal izan dituzte euren eskubideak. Hartara, *“ulerkuntza hobetu da”* erakundeetan bertan, eta *“guztionez aukera gehiago sortu dira”*. Dena dela, badakite oraindik ere bide luzea dagoela aurretik, partaidetza hori erabat berdintasunezkoa izan dadin.



Emakume batzuen iritziz, emakumeak erakundeetako zuzendaritza-batzordeetan sartzen badira ere, euren botere-posizioa ez da gizonena bestekoa. Emakumeak *“izendatzen dituzten arren, oraindik ere gizonak dira gobernatzen dutenak”*. Beste emakume batzuen ustetan, emakume zuzendariak ez dute beti behar besteko laguntzarik jasotzen: *“Emakume zuzendari asko kolokan jarri eta iraindu egin dituzte, eta, gauzak egin nahi izan badituzte ere, ez dute gizon kideen abalik eduki”*. Agerikoa da eguneroko kudeaketan inolako babesik izan ez dutela, baina, horrez gain, behar besteko baldintzak ere ezarri behar dira, emakumeek

zuzendaritzako karguak euren gain hartu ditzaten. Oraindik ere, erakundeek ez dituzte berezkozat eta kolektibozat jotzen emakumeek orain arte eskainitako zainketetako premiak: *“Erakunde mistoek emakumeak sartu dituzte, baina emakumeek eurek ikusi beharko dute nola moldatzen diren seme-alabekin”*. Horrela, emakumeek dituzten zailtasunek zerikusi zuzena daukate etxerako eta familiarentzat beharrezkoak diren lanekiko konpromisoarekin, oraindik ez direlako gizonekin eta erkidegoarekin baterako erantzukizunpean garatzen.

Laburbilduta, ez da nahikoa⁴⁹ emakumeak eremu politikoetan egotea, beharrezko egiturazko aldaketak gertatu daitezten. Emakumeetako batek hausnargaia eskaintzen digu honako hitz hauen bitartez: *“Ez da nahikoa boterera iristea, Margaret Thatcherrek beste batzuek egindako berbera egin zuelako. Zer egingo dugu lidergo hori desberdina izan dadin, benetako egiturazko aldaketak egin daitezten eta botere-indarren koerlazioa aldatu dadin?”*.

Prozesu horretan guztian, kezka handia da *“emakume gazteak”* erakundeetan *“sartzea”*. Batetik, ulergarria da ez inplikatzeari: *“Neska gazteek ez dute interesik, umeak hazten ari dira. Neuri ere berbera jazo zitzaidan, hazteko umerik ez neukanean sartu nintzelako erakundeetan”*. Baieztapen hori hazkuntzaren esparruaren eta erakundearen esparruaren artean dagoen banaketa espazialaren erakusgarri da. Bestetik, badakite begirada zabaldu behar dutela eta haiekin erakartzeko moduko gaiak jorratu behar dituztela: *“Adineko gehienak, inor iraindu gabe, elkartzen garenean, baliorik gabeko eztabaidetan murgiltzen gara. Eztabaida horiek entzuten badituzte, zertarako inplikatu dira? Gazteek berekoikeria horretatik irteten irakasten digute. Berekoikeria hori albo batera utzi eta gazteei lagundu behar diegu”*. Belaunaldi arteko ikuspegiarean lan egitean, gazteen eta adinekoen interes desberdinak eduki behar dira kontuan.

Azpigaiak	Adierazleak
Eragin politikoa	Politika publikoak
	Partaidetza
	Eremu publikoak

Erakundeetan duten partaidetza horren bidez, emakumeak agintariengana hurbildu dira apurka-apurka, eta haiengan eragina duten politika publikoak sustatzeko eskatu diete. Haien artean, honako hauexek nabarmentzen dira: *Ekoizpen, Zirkulazio eta Kontsumo Agroekologiko eta Solidarioa Sustatzeko Ordenantzarako Proposamena; 103. Legea; Kuotei eta Parekotasunari buruzko*

⁴⁹ “Ez da nahikoa” diogunean, “beharrezkoa da” erantsi behar dugu.

Legea; eta Lojako Probintziako Emakumeen Berdintasunerako, Ez-bereizkeriarako eta Bizimodu Onerako Agendaren sustapena. Hartara, apurka-apurka eratzen ari dira agenda eta eraginerako tresnak sortzen.

Nolanahi ere, beste hainbat gairi buruz ere badute zer esanik, nahiz eta ezinbestean emakumeen ikuspegitik jorratzen ez diren. Esate baterako, landa-inguruneko bizilagunek hezkuntza eskuratzeko aukera gutxiago dituzte gaur egun: *“Gero eta analfabetismo handiagoa egongo da, landa-inguruneko eskolak ixten ari direlako. Gurasoek garraioa, egon badago, ordaintzeko aukerarik ez badute, ume hori hezkuntzarik gabe geratuko da. Atzera egin dugu hezkuntzaren arloan”*. Bestetik, etxeko lanaren ordainketaren arriskuak ere hartu behar dira kontuan. Etxeko lana *“2008ko Konstituzioan bertan dago aitortuta”*, eta, gaur egun, aztertzen ari dira lan hori etxean garatzen duten emakumeei soldata emango dieten ala ez. Neurriari buruz ari dira eztabaidatzen: *“Etxeko andreoi soldata eman nahi digute, baina ez estimatzen gaituztelako, interesagatik baizik, etxean eduki nahi gaituzte-eta. Hausnartu egin behar dugu. Baliteke emakumeen jabekuntzaren beldur izatea”*. Horren guztiorren haritik, honako ondorio hau ateratu du beste emakume batek: *“Jabekuntza erdietsi behar dugu politikan sartzeko; bestela, oso zaila izango da herrialde hau aldatzea”*. Hori dela eta, honako erronka hau euren gain hartzeko adorea ematen diote elkarri: *“Emakume kide prestatuok, jabekuntza lortu dezagun eta erantzukizunak onartu ditzagun esparru publiko hauetan”*.

Orduan, eremu politiko horiek benetan bete ahal izateko orduan sortutako zailtasunei buruz eztabaidatzen hasten dira. Premiak antzeman dituzte prestakuntza orokorraren eta bereziaren arloan –esate baterako, ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioen inguruko sentsibilizazio handiagoa– eta, batez ere, *“prestakuntza politikoaren”* arloan. Horrela, emakume gehiago egongo dira lidergoetan, *“gizonak gehiago dakitelako joan ez daitezen”*. Bestetik, partaidetza politikoa beste lan bat denez, aipatutako lanetara gehitu beharra dago, eta, denborei begira, haiekin dago lehian. Emakume batzuen ustez, partaidetza horren ondorioz, etxea *“hankaz gora dago”*, edo, bestela, *“lanak aurreratu behar dituzte”*, euren atsedenaldiaren kalterako. Era berean, kudeaketak ere egiten dituztenez, lan emankorrerako denbora gutxiago dute. Hori dela eta, emakume batzuek euren diru-sarrerak murriztu ere egin direla egiaztatu ahal izan dute. Erakundeek arduraldia eskaintzeagatik eurentzako denbora gutxiago eduki ez dezaten, emakume batzuek gizonen inplikazioa bilatu dute erakundeetan: *“Gizonak sentsibilizatu ditugu, erakundeetan inplikatu daitezen”*.

Erakundeetatik bertatik harago, emakumeek oztopo bereziei aurre egin behar diete instituzio publikoetan parte hartzen dutenean. Hautagaitzak diseinatzen direnean, praktikan ordezko emakume asko daude, *“sosik ez dutelako”*, eta,

euren ustez, *“nork bere lekua egin behar du Parekotasunari buruzko Legea egon arren”*. Halaber, etsigarria ere bada erakundeek emakumeen hautagaitzei babes kolektiboa ez ematea: *“emakume batzuk euren kabuz aurkezten dira, erakundeek aitortzen ez dituztelako”*. Alde horretatik, emakumeentzat oso mingarria da emakumeek eurek babesik ez ematea, eta ez da egitate isolatua, gizonen eta emakumeen zeregin sozialen barruan kokatutako joera eta gizonen nahiz emakumeek elkarerraginean erakusten duten jokabide sozial desberdina baizik: *“Gizonei den-dena barkatzen diegu. Ez gaude emakumeon artean babesa emateko prestatuta, sistemak berak banatu egiten gaitu. Ziur emakume guztioi gertatu zaigula bide honetan”*. Emakumeetako baten esanetan, horra hor *“emakume aberatsen eta txiroen arteko norgehiagoka, ikasketak dituztenen eta ez dituztenen artekoa eta erakundearena berarena ere bai”*. Hori, gainera, emakume moduan gizarteratzeko prozesuarekin lotuta dago, eta aldaketarako bidea urratzen du: *“Emakumeok zer babes ematen diegu boterean dauden emakumeei? Gizonei futbolearen jokatzeko irakatsi dietenez, aliantzak egiten dituzte euren arteko harreman txarra izan arren. Guri, oster, ez digute futbolearen jokatzeko irakatsi. Emakumeon borroka handienetakoa da gure artean lan egitea”*. Alde horretatik, KAZES oso lagungarria izan da emakumeen arteko aldeak eta lehiak murrizteko orduan: *“Egituratu baino lehen, hiriko emakumeak jainkosak ziren. Orain, ordea, berdinak gara, eta landa-inguruneko emakumeok protagonismoa lortu dugu”*.

Horren guztiorren ondorioz, emakumeek esparru publikoak bete eta berreskuratu egin dituzte apurka-apurka, jabekuntza politikoa lortu dute, azken batean. Prozesu horren bidez, agerian jarri da nolako zailtasunei aurre egin behar dieten benetan, eta konponduko gabeko arazoak eta erronka berriak jarri dira perspektiban. Hartara, emakumeek aitortu egiten dute gizarteko kideak direla sentitzen dutela. Bereganatzen dituzten jakintzei eta esperientziari esker, gainera, esparru publikoetan duten partaidetza areagotu eta zirkulu bertutetsua sortu dezakete. Emakumeek parte hartzen jarraitzeko adorea eman nahian egindako aipamena nabarmenduko dugu:

“Lagundu dezagun, geure harri-koskorra ekarri dezagun, emakume zuzendariak eduki ditzagun, ezereen ginetik elkarrekin borrokatu gaitzen, dirua edukita edo eduki gabe. Borrokatzeko gai gara, eskuak, oinak, ahoa, belarriak ditugulako eta garaitu nahi dugun zerbaitengatik borrokatzen garelako”.

16. taula. Partaidetzako eta politika publikoetako aldaketak		
Subtema	Indicador	Logros
Erakundea	Harremanak	- Partaidetzazkoagoak diren erakundeak - Erakunde horizontalagoak - Aliantzen eraketa
	Lidergoak	- Zuzendaritza-postuetan dauden emakumeak - Aldaketak sustatzeko boterea
	Tentsioak	- Belaunaldi arteko ikuspegia ezartzeko premiaren inguruko kontzientzia handiagoa
Eragin politikoa	Politika publikoak	- Eraginerako agenden eta tresnen eraketa - Genero-berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin lotutako politika publikoen onarpena eta eragina
	Partaidetza	- Hiriko eta landa-inguruneke emakumeen arteko hurbilketa eta lankidetzatza
	Eremu publikoak	- Tokiko kargu publikoetan eta hautagaitzetan egoteko aukera gehiago

Iturria: Berton egina



7. Ibilbidearen ondorioak edo memoria nabaria

Jakitateen emakume ekoizleei entzun ostean, aztergai hau suspertu zuten balderean erantzuten saiatuko gara. Hasteko, KAZESek emakumeen eskubide ekonomikoak eta, azken finean, haien jabekuntza sustatzen dituzten izango dugu aztergai. Ondoren, azterketa-talde bakoitzarekin lotutako galdera zehatzagoei erantzun diegu. Galdera horiek honako gai hauei buruzkoak izango dira: lanaren banaketa sexuala eta arlo horretan sortutako zereginak, estrategiak nahiz tentsioak; emakumeen emantzipaziorako faktoreak eta gaitzakerak; eta partaidetza politikoko harremanak zein lidergoak. Lekukotasunetatik ateratako ondorio eta erronketan oinarrituta, KAZESek eraldaketarako daukaten ahalmena areagotzeko orduan kontuan hartu beharreko funtsezko faktoreak zein diren zehaztu ahal izango dugu.

Dena dela, funtsezkoa da **KAZESek emakumeen eskubide ekonomikoen garapena eta sendotasuna bultzatzen dituzten** jakitea. Inkestetako datuen eta helburutzat hartutako taldeen emaitzen arabera, prozesu horietan parte hartu duten emakumeek diru-sarrera gehiago sortzen dizkien lan emankorra garatzen dute, eta ugalketako nahiz zainketetako lanak gehiago partekatzen dituzte euren familiarekin. Behar besteko jakintzak eta trebetasunak bereganatu dituzte, euren gaitasun ekonomiko, sozial eta politikoak hobetzeko. Baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago dituztenez, autonomia ekonomiko handiagoa ere badute. Antolatzeko eta politika publikoen ezarpenean, kontrolean zein jarraipenean parte hartzeko eskubidea erabili dute. Hau da, lehen kapituluaz azaldutako esparru teoriko kritikoa erreferentziatzen hartuta, azaldu behar den bezalaxe KAZESei esker emakumeek aurrera egin dutela euren eskubide ekonomikoen erabileran.

Ikuspegi horretatik, adierazi dezakegu KAZESen bidez emakumeek zenbait mailatako jabekuntza lortu dutela, hau da, ekonomikoa, politikoa eta pertsonala. Gainera, aldaketak azkar samarrak izan direnez, badirudi KAZESetako jarduerak eraginkorragoak direla emakumeentzat ohiko jarduera ekonomikoak baino. Azken batean, abiapuntu dituzten printzipioetan, askoz errazago txertatzen dira emakumeen testuinguruak. Nolanahi ere, eztabaida ez dago itxita, eta, oraindik ere, partaidetzazko ikerkuntza-ekintzarako azterlanak eta prozesuak garatu behar dira, zentzu horretan erantzun argiagoak eman ahal izateko.

KAZESek emakumeei eman diete naturarekin eta haien bizitzarekin bat datozen jardueren inguruan egituratzeko aukera, eta, horri esker, jabekuntza zein eskubide ekonomikoak lortu ahal izan dituzte. Bestetik, emakumeek ikusteko, zuzentzeko, txertatzeko eta tratatzeko beste modu batzuk eskaini dizkiete KAZESei, nahiz eta oraindik ahalke egin duten aldaketa horien berezko oztopoengatik. KAZESek emakumeen antolamendu-prozesuak sendotzen dituztenez eta emakumeen erakundeek KAZESetako proposamen alternatiboak

indartzen dituztenez, azterketa sakonagoa egin beharra dago, albiste onak jasotzeko, askatu beharreko korapiloak zein erronkak proposatzeko eta aliantza hori atzeraelikatzen jarraitzeko. Zeregin horretan, oso lagungarriak izango dira gaietarako egindako galderak.

Lanei helduko diegu berriro. Lan emankorreen eta ugalketako nahiz zainketetako lanean, hobekuntzak egon dira emakumeentzat. **Lan emankorrari** dagokionez, zenbait mailatako aldaketak egon dira, ohiko nekazaritzatik agroekologiara igarotzean. Prozesu horren ondorioz, baliabideak, jarduerak eta jakintzak partekatu eta antzinako nahiz tokiko jakitateak berreskuratu behar izan dira. Emakumeek egiaztatu egin dute hobekuntzak egon direla euren elikaduran, osasunean, ekoizpenean, merkaturaketan, harremanetan eta buru-estimuan bertan. Produktu osasungarri bezain anitzak hobeto saltzeko eta euren kontsumo pertsonal, familiar eta bateraturako. Lan partekatuan oinarritutako harreman solidarioagoak biderkatu eta sustatu egiten dira. Horren ondorioz, emakumeek euren gaitasunak aitortu eta balio pertsonal handiagoa dutela sentitzen dute. Erronken artean, badakite zailtasunak dituztela errentagarritasun egonkorra erdiesteko eta eurentzat egokiak diren teknologiak sortzeko moduko ikerkuntzan eta berrikuntzan aurrera egiteko. Horrez gain, laneku gehiago ere edukiko balute, gero eta handiagoa den eskariari erantzungo liokete errazago.

Ugalketako lanari dagokionez, emakumeek etxean zer lan egiten duten dakitela ikusi dugu. Euren ustez, KAZESen inguruan egituratzeko prozesuan, aurrera egin da lan hori familian bertan balioesteko eta partekatzeke orduan, elkarriketan eta arau berrien negoziaketan oinarrituta. Hori, gainera, familia-harremanen eta emakumeen euren ongizatearen mesederako izan da. Baliteke aldaketa horiek *agroekologiak* berekin dakarren proposamen holistiko eta integralaren ondorioz gertatu izana etxean, kontzientziak, harremanak eta lehentasunak eraldatzen ditu-eta. Emakumeetako batek eskaintzen digun esaldia gizonak eta emakumeak elikadura aldatzean etxean izandako inplikazioaren adierazgarri da, eta ekoizpen-eredu agroekologikoaren zein baterako ugalketa-ereduaren artean egon daitezkeen harremanak antzemateko aukera eskaintzen digu: *“Elikaduran, gizonak eta emakumeak harrakoa egiten dute, eta osasungarri jaten ikasten dute”*.

Balantzaren beste aldean, ez dirudi emakumeek ekoizpen-ingurunean inplikatuago daudenetik erantzun baliokidea jaso dutenik gizonak ugalketako lanean neurri berean eduki beharreko inplikazioari dagokionez: *“Gaitasun berberak ditugun berdinok lan egiten dugu, nahiz eta emakumeak oraindik lan gehiago lan egiten dugun etxean ordainsaririk gabe”*. Emakumeek zenbait lan egiten jarraitzen dute; esate baterako, *janaria prestatzea, garbitzea eta ama izatea* –besteak beste, berrikuntza teknologikoei esker *“hobetutako lan-baldintzetan”*–, eta, aldi berean,

lehen egiten ez zituzten zeregin berriak hartu dituzte euren gain. Orain, modu agroekologikoan ekoitzi eta etxeko lanak egiten dituzte, baina, horrez gain, produktuak transformatu eta prozesatu egiten dituzte azoketan parte hartzen dute, kontuak eta gastuak kontrolatzen dituzte, ekintzaile ekonomikoetako liderrak dira eta erakundeetako zuzendaritza-karguetan daude. Alde horretatik, adierazi dezakegu KAZESek zeregin berriak egiteko aukera gehiago eskaintzen dizkietela emakumeei. Hala ere, horrek ez du esan nahi zeregin banaketa tradizionala gainditu denik: *“Lanaren banaketa sexualak bere horretan dirau, eta, hobera egin dugun arren, erantzukizuna gurea da oraindik”*. Ugalketako eta zainketetako erantzukizunak albo batera utzi ez dituztenez, oraindik ere emakumeentzako arazoa da jarduerak gehitzea eta etxean ez egotea. Batzuetan, gainera, ez dira familiaren edota senarraren erresistentziei aurre egiteko gai ere izan. Egia da harremantako aldaketa nagusi dela KAZESen inguruan egituratzeko prozesuan, erakundeetan bertan –eta erakunde artean– nahiz familian bertan eta pertsonen artean. Edonola ere, ez da aldaketa erraza. KAZESEi esker, lehendik zeuden tentsioak arindu eta konpondu egin ahal izan dira, baina beste batzuk ere sortu daitezke emakumeek etxea “bertan behera uztean”.

Alde horretatik, badirudi honako hauexek izan direla kultura eta jokabide arloko aldaketak sustatu dituzten estrategiak: elkarriketa, komunikazioa, etxeko lana banatzeko arau berrien negoziaketa, eguneroko lanak eskuordetzen ikasteko prozesua eta, batez ere, egonari handia. Dena dela, emakume bakoitzak ia ia bakardadean bikotekidearekin, gurasoekin, nebekin... borrokatzen dituen estrategia horien aurrean, prozesu horiei laguntzeko estrategia kolektiboak ere prestatu eta jarri behar dira abian. Besteak beste, honako estrategia hauek abian jarri dituzte Lojako erakundeetan: genero-berdintasunerako prestakuntza ematea, gizonak erakundeetan sartu arren emakumeen lidergoari eustea eta gizarteratzeko eta taldean ospatzeko eremuak sortzea, pentsatzeko, sentitzeko eta lanak banatzeko modu berrien erakusgarri izan daitezen.

Erakunde mistoen antolamendu-kulturaren egitura sakona aldatzeko orduan genero-berdintasunerako prestakuntza beharrezkoa baina nahikoa ez bada ere, emakumeek oso ondo balioesten dituzte emakume-taldeak **prestatzeko** eta trebatzeko **prozesuak**. Prestakuntzak lan emankorrerako gaitasun teknikoak hobetu eta lan-merkatuak dituzten aukerak areagotzen ditu. Era berean, gatazkak negoziatzeko eta kontrolatzeko tresnak ere eskaintzen dituenez, harreman pertsonal, familiar eta bateratuek ere egiten dute hobera. Mugikortasuna eta etxetik kanpoko harremanak ere suspertzen ditu, baita topaketarako, hausnarketa partekaturako eta estrategiaren eraketarako guneak ere.

Emakumeek baliabide emankorrak eta diru-sarrerak **lortzeko eta kontrolatzeko** dituzten aukerak hobetu dira. Iragaitza agroekologikorako prozesuetan

inplikaturik dauden emakumeek familiaren eta erkidegoko lurrak eskuratzeko aukera gehiago dituzte, eta familiaren lurren erabilerari buruz erabakitzeke botere handiagoa ere badute. Erakundeari esker, edateko ura nahiz ureztaketa familiarra eta trebakuntza lortzeko aukera gehiago dauzkate. Dena dela, lurraren eta uraren kontrolean benetako aldaketak gertatu daitezke, politika publikoak ezarri beharko dira bete-betean, lurraren birbanaketa eta uraren kontrol kolektiboa gatazkapean dauden gaiak dira-eta. Emakume moduan, oraindik ere gizonen baino aukera gutxiago dituzte baliabide horiek lortzeko eta kontrolatzeko orduan, prestakuntzan izan ezik.

Makinak, intsumo ez-komertzialak eta bankukoak ez diren kredituak lortzeko eta kontrolatzeko aukerak, ordea, hobera egin du, lehenengo kasu bietan jarduketa agroekologikoei esker; eta, azkenekoan, erakundeetan bertan abian jarritako irtenbideei esker –herri-finantza solidarioetako berezko fondoen sorreraren bitartez–.

Denbora-txirotasunaren pertzepzioa gai irekia da oraindik. Batzuek denborak hobeto antolatzen dituztela baieztatzen dute. Hala ere, etxeko zereginen bere horretan dirautenez, nekazaritzako zein abeltzaintzako ekoizpena sustatzen dutenez eta eremu kolektiboen inguruan egituratzen direnez, emakumeentzat oso zaila da denborak kudeatzea. Hori dela eta, lan-karga oro har handitu dela uste dute zenbait emakumek. Faktore horren inguruan dauden iritzi berezietan agerian uzten dute konpondu gabeko arazoa dela eta emakumeen euren inguruko inguruabarren arabera aldatzen dela. Egitate horren interpretazio politikoagoa da esatea oraindik ere emakumeena euna dela denbora-txirotasuna konpontzeko erantzukizuna eta familiak, erkidegoak, erakundeak edo gizarteak bere gain hartzen ez duela. Elkarri laguntzeko sareak, beraz, fronte horiei guztiei aurre egiteko ezinbesteko baliabidea dira.

Ahalegin horren ondorioz, diru-sarrera gehiago dituzte, eta gehiago kontrolatzen dituzte, baina, batez ere, emakumeek eurek bakarrik garatzen dituzten jarduerak ekonomikoetako diru-sarrerak –transformazioa, adibidez–. Horrela, autonomia ekonomiko handiagoa dutenez, erabakiak hartzean negoziatzeko gaitasun handiagoa dute oro har.

Gainditu gabeko erresistentziak, oztopoak eta arazoak dauden arren, emakumeek KAZESen inguruan garatutako egituraketak eragin ona izan du emakumeen emantzipaziorako faktoreetan eta **askatasunetan**. Lekukotasunen arabera, erabakitzeke botere handiagoa dute, eta euren jarrera ere prestatuago dago erabakiak hartzeko prozesua negoziaketa edo elkarrekiko lankidetzara moduan balioesteko, gero eta ezohikoagoak diren mendetasun-jarreraren aldean. Prestakuntza egiteko, merkaturatzeko eta egituraketa zein aliantzak bultzatzeko

orduan etxetik irten behar direnez, murriztapenik gabe mugitzeko askatasun handiagoa dute.

Inolako zalantzarik gabe, KAZESek emakumeei **partaidetza eta agerpen** handiagoa ematen diete **esparru publikoetan**, euren diskurtsoak eta eskaerak aldarrikatzeko.

Erakundeko eremuan, emakumeek harreman-moduetan antzeman dituzte aldaketak, partaidetza eta horizontaltasun handiagoa dagoelako. Zenbait erakunderen arteko lotura eta aliantzak, gainera, KAZESen beraren izaeraren eta azalpenaren osagaia direnez, errazagoa izan da lurraldeko erakundeek topo egitea. Emakumeek agerpen handiagoa dute zuzendaritzako karguetan, eta euren partaidetzak erakundeetako lidergoari beste begirada bat eskaini diola uste dute. Edonola ere, oraindik ere erakunde mistoetan gizonak dira nagusi, eta emakumeak partaidetza politikotik baztertzeko mekanismoek diraute bere horretan.

KAZESeko erakundeetan duten kideztatik, emakumeek hausnarketarako eta ekintzarako eremuetan parte hartu dute (instituzio publikoek bultzatutako partaidetzazko plangintzak, kanpainak, sareak...). Bertan, hain zuzen ere, agenda politikoak eta eraginerako beste tresna batzuk eratu dituzte, probintzia-mailan nahiz estatu-mailan genero-berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin lotuta dauden politika publikoen onarpena sustatzeko. Nolanahi ere, behin eta berriro diote edozein politika publikoren –ez dira bakarrik kontuan hartzen gizonen eta emakumeen berdintasunean ageriko eragina dutenak– eta, batez ere, politika ekonomikoaren diseinuan eta jarraipenean parte hartu behar dutela, haien izaeran eta posizioan berehalako ondorioak dituztela kontuan hartuta.

Zoritxarrez, zenbait faktorek partaidetza hori oztopatzen dute: denboren kudeaketa, gizonen mailan lidergoko postuak betetzeko prestakuntza politikorik eza –eta gai zehatzen arlokoa; ekonomia sozial eta solidarioa, esaterako– eta emakumeen igoera politikorako beharrezkoak diren babesen falta –erakundeena nahiz berdinenena, hau da, emakumeena eurenena–. Hori guztiori dela eta, emakumeek aitortu egiten dute oraindik ere behar besteko hausnarketa, estrategia, eremuak eta formatuak garatu behar direla emakumeen arteko aliantzak sustatzeko eta haien eskaerak erakundeetan bertan kontuan hartzeko.

Laburbilduta, emakumeen bizitzan gehien igartzen diren aldaketek zerikusizuzena daukate KAZESetan duten partaidetzarekin; esate baterako, ekoizpen-ereduan gertatutako aldaketak, merkaturaketakoak, esparru publikoen okupazioa, erakundeko lidergoa, egituraketa eta aliantzak... Hain nabariak ez diren beste aldaketa antzemangarri batzuk, ostera, kultura patriarkala kolokan jartzen

duten arloetan gertatzen dira; esate baterako, zeregin berrien agerpena, beste batzuen hasierako birbanaketa, autonomia ekonomiko eta mugitzeko askatasun handiagoa... KAZESen parte hartzean, aldaketa horiek guztiak gertatzen dira, nahiz eta bigarren taldean beste ekintza batzuk ere ezarri beharko liratekeen (KAZESen maniobra-marjinatik harago), lehenengo taldeko aldatetekin batera jazo daitezkeen. Aitzitik, esperientziak berak ere badiosku berdintasun-maila urriak beste sektore batzuetako aurrerapenen kalterako izan daitezkeela; esate baterako, ekimen ekonomiko alternatiboak abian jartzea.



8. Etorkizunari begira: erronkak eta proposamenak

Aurrekoa ikusita, gure ikerketako galderen erantzunak onak direla esan beharra dago, baina erronkak eta zailtasunak ere badaude. Erronka horiei erreparatzea oso lagungarria izan daiteke KAZESek eraldaketarako daukaten ahalmena areagotu nahi izanez gero funtsezko zer faktore jorratu behar diren zehazteko orduan, baina, batez ere, emakumeen eskubide ekonomikoen ikuspegia kontuan hartuta. 17. taulan, labur-labur azaltzen da zein diren emakume parte-hartzaileek adierazitako erronkak.

17. taula. Gaingitu gabeko erronkak		
Azterketa-taldeak	Azpigaiak	Erronkak
Lanak	Lan emankorra	<ul style="list-style-type: none"> - Errentagarritasun egonkorra - Laneskua - Berrikuntza eta ikerkuntza - Hobekuntza teknologikoa - Eskariaren estaldura
	Ugalketako lana	<ul style="list-style-type: none"> - Lanak egiteko baterako erantzukizuna: gizonena, erakundearena, gizartearena eta instituzioena
	Prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Landa-ingurunekoei eta pertsonak ardurapean dituzten emakumeei prestakuntza jasotzeko eman beharreko erraztasunak - GGKE-ekiko mendetasunaren murrizketa - Prestakuntza gehiago genero-berdintasunaren eta trebetasun emozional zein sozialen arloan
Lanen baldintzak	Ondasun naturalak	<ul style="list-style-type: none"> - Lurra birbanatzeko ekintza bereziak, generoaren aldagai kontuan hartuta - Ekoizle txikien premietara egokitutako ureztaketa-sistemak - Uraren kontrol kolektiboa
	Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasunezko lorpena emakume eta nekazari moduan - Denbora-txirotasuna. Emakumeen lan-karga murrizteko modu zehatzak eta neurri politiko zein sozialak - Elkarri laguntzeko sareen sustapena - Helburu diren biztanleekin antolatutako prestakuntza (kontrola)
	Diru-sarrerak	<ul style="list-style-type: none"> - Produktuei balio erantsia emateko gaitasuna - KAZESeko bertako kontsumo arduratsuen sustapena
	Askatasunak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabakiak hartzeko berdintasuna - Garraiorako aukera - Landa-ingurune mugikortasuna - Absentzien onarpena

Azterketa-taldeak	Azpigaiak	Erronkak
Partaidetza eta politika publikoak	Erakundea	<ul style="list-style-type: none"> - Lidergoan dauden emakumeei eman beharreko berdintasunezko tratua eta babes - Zainketetako baterako erantzukizuna - Prestakuntza politiko eta ekonomikoa - Gazteen partaidetza erakundeetan
	Eragin politikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Zainketak errazteko eta landa-ingurunean jarraitzeko politika publikoak (emankorrak ez ezik, hezkuntza, osasuna, garraioa... eskuratzeko aukera ere bai) - Denboraren kudeaketa - <i>Dirua eduki</i> beharra - Kultura patriarkalean emakumeen artean sustatutako norgehiagoka gainditzeko prozesua

Iturria: Berton egina

Ondoren, emakumeek tailerrean hitzartutako zenbait gomendio izango ditugu aztergai. ESSko erakundeetako bertako jarduketa dute helburu –norberaren ekimenaz eta baliabideez edo kanpoko laguntzaz egindako jarduketa den ala ez kontuan hartu gabe–; baita KAZESetan eskubide ekonomikoak sustatzeko estrategien nahiz aliantzen sorrera eta instituzio publikoak ere. 18. taulan, lan honetan erabilitako azterketa-taldeekin lotzen dira gomendioak.

18. taula. Jarduketarako gomendioak

Azterketa-taldeak	ESSko erakundeetan	Eskubide ekonomikoak KAZESetan sustatzeko estrategiak eta aliantzak	Instituzio eta politika publikoetarako
<p>Lanak (emankorra, ugalketakoa eta prestakuntza)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gazteentzako ekimen emankorren ezarpena - Produktuak kanpoan sustatzeko laguntza - Emakumeek eta gizonek etxeko eta zaimketetako lanean eduki beharreko erantzukizunaren inguruan sentsibilizatzekeo kanpainak - Gaiei buruzko aholkularitza eta prestakuntza integral handiagoa, tokiko eta taldeko errealitatea kontuan hartuta, ekoizpen-arloa ez ezik, emozioak eta balioak ere landu daitezzen - Prestakuntzetako partaidetzaren ziurtagarria 	<ul style="list-style-type: none"> - KAZEseko kideak izan nahi duten erakundeen sareen edo zirkuituen eraketa - Esperientzien trukea ESS garatzen duten erakundeen artean - Jakitateen trukea oraindik ESS ez dauden erakundeekin ere bai - Instituzio publiko eta pribatuekiko aliantzak, ESS arloko ekimenak eta ekintzailetzak jakitera emateko - Zainketako eta elkarbizitzako faktoreen ezarpena KAZESetan bertan 	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko ikerkuntzan eta berrikuntzan laguntzeko neurriak - Finantziario-terro bereziak eta emakumeen erakundeentzako pizgarriak, nekazaritza, abeltzaintzako eta artisauntzako jarduerak garatzen dituztenean - Elkartegitzaren kulturaren sustapena biztanle guztien artean - Lan emankorren eta ugalketako lanen erantzukizun sozialaren inguruan sentsibilizatzekeo prozesua
<p>Lanen baldintzak (ondasun naturalen, baliabide emankorren, diru-sarreraren eta askatasunen lorpena eta kontrola)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Familietan eta erakundeetan emakumeen eskubideak eskatzeko prozesua - Erakundeetan parte hartzen dutenen talentuaren balioespena - Emakumeen babeserako eta jabeakuntzarako estrategiak - Gizonekiko aliantzak 	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabide emankorrek birbanatzeko eragina, genero-desberdintasunaren aldagaita kontuan hartuta 	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabide emankorrek lortzeko erraztasunak: lurra eta ura - Ekintza onerako neurriak ezartzeko baliabideen esleipena, KAZES genero-berdintasunaren ikuspegitik garatu ahal izateko
<p>Partaidetza eta politika publikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Oro har parte hartzeko aukera eta erraztasunak - Gazteen sarreraren eta partaidetzaren sustapena antolamendu-prozesuetan - Gizonen sentsibilizazioa, erakundeetan inplikatu daitezzen 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen sentsibilizazioa, lurraldeetako erakundeetan sartu daitezzen - Erakundeen sustapena eta sendotasuna, gure eskubideak eskatzean elkartuta egon daitezzen - ESSren printzipioak kontuan hartzen dituzten erakundeen zabalakundea komunikabideetan 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen antolamendu-egiturak sendotzeko prozesua - Emakumeen interesen araberako aurrekontu-lerroak - Programek eta proiektuek emakumeen bizi-kalitatean duten eraginaren ebaluazioa

Iturria: Berton egina

Zehaztutako erronkak (17. taula) eta proposatutako gomendioak (18. taula) batera irakurtzean eta beste prozesu batzuen behaketaren zein esperientziaren ondorioz sortutako berezko hausnarketak egitean, badugu hainbat bidetako trazatu konplexua marrazterik, ESS sustatzen duten eragileek (oinarrizko erakundeak, KAZESen inguruan egituratutako erakundeen sareak, instituzio publikoak, laguntzarako erakundeak...) euren jarduketa-mailaren arabera jarraitu dezaten.

Lan emankorra

Ekoizpenaren ikuspegitik, agroekologiaranzko prozesuetan inplikaturik dauden emakumeen jarduerak hazteko aukerak ditu, oraindik ez delako dagoen eskari guztia estali. Nolanahi ere, gaur egun ez dute euren finketarako errentagarritasun egonkorrik bermatu. Ekintzaitzen errentagarritasuna ziurtatzeko, emakumeek unibertitateak eta instituzio publikoek sektoreko **ikerkuntza eta berrikuntza** sustatu ditzaten proposatzen dute, besteak beste. Horrela, bada, hobekuntza teknologikoen ondorioz, ekoizpenaren kopurua eta kalitatea areagotuko dira, batetik, eta emakumeen lan-gainkarga murriztuko da, bestetik. Berrikuntza hori, gainera, esperientzien nahiz jarduera egokien trukerako ikastaroan bereganatutako oinarrien ondorioz ere sortzen da, eta KAZESeko eragileek eurek bultzatu dezakete.

Eskariari erantzuteko, laneskua ere eduki behar da, landa-inguruneetako arazoetako bat gazteen emigrazioa denean inolako abagunerik ez dutelako. Erakundeek, beraz, **gazteen partaidetza sustatu** behar dute bertako jardueretan eta egituretan, gazteen euren interesak kontuan hartuta; esate baterako, enpleguaren premia. Horretarako, gazteak protagonista dituzten ekimen emankorrek ezarri beharko dituzte.

Era berean, errentagarritasuna handiagoa izan dadin, ekonomia sozial eta solidarioko jardueren eta produktuen **zabalkundea eta sustapena** bultzatu behar dira komunikabideen bitartez nahiz instituzio publiko eta pribatuekin lotutako hitzarmenen bidez. Esate baterako, aliantza horien adierazgarri da Lojako Sare Agroekologikoaren, Lojako Udaleko Gobernuaren eta kontsumitzaileen artean dagoen harremana, Bermerako Partaidetzazko Sistemak eratzeko edo finketarako bisitaldiak antolatzeako orduan. Kontsumitzaileekin ezarritako komunikazio hori arina denez, badago haien premiak antzematerik, elkarrekiko laguntza behar den modukoa izan dadin.

ESSko sare eta mugimenduei begira, lan emankorra sustatu ahal izateko, ezinbestekoa da harremanetarako eta trukerako eremua zabaltzea, oraindik ere ESSko ekoizleek ustezko garapena dutelako kontsumitzaile arduratsu moduan –ESSko *protsumitzaileak* direla esan genezake–. Ekoizpen solidarioa

anitzaz denez eta, sarritan, sakabanatua ere badenez, KAZESak trukeerako eremu moduan egituratzen badira, zenbait faktore landu beharko dira, lurraldeko fluxu ekonomikoaren ezagutza, esaterako⁵⁰, fluxu horiek aldatu ahal izateko. Horretarako, tokiko kontsumoa eta zirkuitu labur bezain jasangarriak suspertu beharko dira, eta harreman hurbilak sortu beharko dira eragin-gaitasunik gabeko gizabanakoen isolamenduaren aurrean. KAZESetan parte hartu nahi duten erakundeek **sareetako egituraketa** eta jarduera horietatik hurbil egon arren oraindik ESSren barruan ez dauden erakundeekin ezarritako **jakitake-elkarrizketa** ingurunean aldaketekiko konpromisoaren eta partaidetzaren printzipioekin bat datozen hedapen-estrategiak dira.

Instituzio publikoek antolatutako emakumeen zeregin emankorra sustatu nahi badute, nekazaritzako, abeltzaintzako eta artisautzako jarduerak garatzen dituzten emakumeen ekintzaitzak suspertu behar dituzte talde horientzako **finantziario-lerro berezien** bitartez. Bestetik, ezin dugu ahaztu sarritan politika publikoaren bidez bultzatzen direla emakume horien elikaduraren burujabetzaren eta agroekologiaren aurkakoak diren jarduerak –esportaziorako monolaborantza sustatzeko neurriak, transgenikoak...–. Hori dela eta, arreta handiko begirada eskaini behar zaie sustapenerako politikei, eta, zoritxarrez, politiken euren **behaketa kritikoa** ere egin beharra dago aldi berean, ESSko ekimen ekonomikoaren kalterako izan daitezkeenean.



⁵⁰ KAZESetan bertan trukea sustatzeko asmoz, lurraldeko fluxu ekonomikoaren ezagutza bete-betean landu dute Brasilen. Izan ere, fluxu horien egoeraren diagnostikoa egin dezaketzen tresna telematikoa diseinatu dituzte. Ondorio horietarako, ikus *Solidarius* Truke Solidarioetarako Sistema: <<http://www.solidarius.net>>.

Ugalketako lana

Gaur egungo baldintzetan garatutako lan emankorra beharrezko baliabidea da emakumeen autonomia ekonomikoa bermatzeko orduan, baina berez ez du bermatzen emakumeek behar dituzten aldaketak gertatuko direnik. Alde horretatik, emakumeen lana ez da nahikoa. Ezinbestekoa da **gizonek, instituzioek eta gizarteak baterako erantzukizun handiagoa** edukitzea, **lan emankorrei eta ugalketako lanei erantzuteko orduan**. Norabide horretatik aurrera egiteko, ez dira gizonak erruduntzat hartu behar, harago doan hausnarketa kolektiboa egin behar da eta ugalketa sozialerako ereduak jarri behar dira kolokan: *“Gaur egungo errealitatea ez da gizonen errua. Gizonek horrela pentsatu eta jokatu dezaten, mendeetako presioa jasan dute. Kapitalismoa hedatzeko manipulatutako gizonak. Natura gizondu eta gizona bera emakumearen gainetik jarri zuten [...] Gizarteak gizon asko ere zapaldu ditu”*.

Erantzukizun hori onartzeko, **kultura eta jokabideak aldatu** behar dira. Aldaketarako prozesu horiek sustatzeko, bizi-proposamen alternatiboko protagonistak diren ESSko erakundeek sentsibilizatorako kanpainak egin ditzakete gizonek eta emakumeek etxeko eta zainketetako lanetan eduki beharreko erantzukizunaren inguruan, baina, batez ere, bertako kideen artean. Horrela, are koherentzia handiagoa egongo da diskurtsoaren eta praktikaren artean.

Ildo beretik, ESSko sareek eta mugimenduek oso kontuan hartu behar dituzte KAZESetan zehatz-mehatz ekonomikoak ez diren dimentsioak. Horrez gain, euren ekimen eta topaketetan, modu sistematikoan txertatu behar dituzte harremanezko eremuak diren zirkuituetako zainketaren eta elkarbizitzaren faktoreak.

Halaber, instituzio publikoek lan emankorren eta ugalketako lanen erantzukizun sozialaren inguruko sentsibilizazioa bultzatu behar dute, baita bizitzako faseetan **biztanleak zaintzeko baliabideak eskaintzen dituzten politika publikoak** ere. Hartara, eragile bakoitza –gizonak, emakumeak, erkidegoa, gizartea, GAD, estatua– dagozkion zainketez arduratuko da, bere maniobra-marjina agortuko du eta orain arte ia-ia emakumeen eskuetan bakarrik egon den lana birbanatuko du.

Prestakuntza

Prestakuntza eta, batez ere, **genero-arloko prestakuntza** lan-prozesuei eusteko ezinbesteko baliabidea da, jabeakuntzaren bidetik eutsi nahi badiegu. Beraz, arlo horretako erronketakoa da landa-ingurunekoei eta pertsonak ardurapean dituzten emakumeei prestakuntza jasotzeko erraztasunak ematea eta GGKE-ekiko mendetasuna murriztea.

Emakume antolatuek **ikuspegi integrala** eskaintzen duen prestakuntza jaso nahi dute. Hain zuzen ere, tokiko eta taldeko errealitatearekin eduki behar du zerikusia, eta, ekoizpen-arloa ez ezik, faktore emozionalak, trebetasun sozialak eta balioak ere hartu behar ditu kontuan, prozesu horietako funtsezko zutabeak dira-eta. Prestakuntza **modu ofizialean** aitortu beharra dago, emakumeek denbora eta baliabideak inbertitzen dituztelako bertan. Horretarako, koordinazio handiagoa egon beharko litzateke hezkuntza formaleko instituzioekin (ikastetxeak, unibertsitateak eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuk).

Erakundeetan generoaren arloko prestakuntzak nolako balioa duen kontuan hartuta, prozesu zabalagoaren osagaia izango da, baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzeko orduan eta berdintasunezko partaidetza politikoa erdiesteko orduan emakumeek erakunde mistoetan zailtasunak dituztela egiaztatu ondoren. Erakunde misto batzuetan, diskurtsoa aldatzen dute generoaren arloko prestakuntzaren ondorioz, eta zuzendaritzako postuetan sartzeko nolabaiteko erraztasunak ematen dizkiete emakumeei. Hala ere, ez dute **antolamendu-kulturaren egitura sakona** zeharo **eraldatzen**. Lehenengo aldatetak epe luzerako prozesuaren osagaiak direla esan beharra dago, eta, modu eutsian zein aldian-aldian, azterketa eta barruko komunikazioa egokitu behar dira, harik eta egitura sakon hori ukitu eta erasan arte. Horretarako, ez da nahikoa ideiak eta jakintzak igortzen dituzten ohiko prestakuntza-prozesuak garatzea, erakundea berdintasunaren alde aldatzeko prozesu bereziak jarri behar direlako abian eta elkarreragin handia izan behar dutelako bertako kideen artean.

Bestetik, lehen esan dugun bezala, erakundeek **bertako emakume kideen jabekuntzarako prozesuak babestu** ahal eta behar dituzte **familietan**. Horretarako, gizarteratzeko eta ospatzeko eremuak eskaini behar dituzte, lanaren banaketa sexuala hausten duten zeregin berrien bidez saiakuntzak eta saiakerak egiteko eta, berdintasunaren printzipioan oinarrituta, elkartasunezko nahiz errespetuzko jokabideak sustatzeko.

Horrez gain, emakumeen ustetan, jabekuntza lortzeko, taldea indartu eta babestu egin behar da. Halaber, instituzio publikoek **elkartegintza-kultura** bultzatu beharko lukete biztanle guztien artean, nagusi den globalizazio-ereduak sustatzen duen indibidualismoaren aldean.

Ondasun naturalen, beste baliabide emankor batzuen eta diru-sarreraren lorpena eta kontrola

Ondasun naturalak, lurra eta ura eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera izatea nekazarien mugimenduaren aldarrikapena da, eta indar handiagok sartu behar da ekonomia sozial eta solidarioarako mugimenduen agendan, bere printzipioak

eta interesak bat datozela kontuan hartuta. Gaur egun, gainditu gabeko erronka da **lurra birbanatzeko neurri bereziak** benetan ezartzea **generoaren aldagaia kontuan hartuta**. Horrela, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunezko birbanaketa ere ziurtatu daiteke, eta, hasteko, jabetzari buruzko datuak bildu daitezke sexuaren arabera sailkatuta. Institutuzio publikoen ardurapeko neurri horiek ez dira abian jarriko, erakundeek eta mugimenduek eraginerako estrategia argirik ez badute.

Uraren kasuan, Lojako ESSko eragileek ura eskuratzeko aukera gehiago eduki ditzaten, zenbait obra egin beharko dira azpiegituretan, baina, batez ere, **ekoizle txikien premietara egokitutako ureztaketa-sistemak diseinatu eta jarri beharko dira abian**. Sistema horiek erakundeen euren ahaleginari esker abian jarri badira ere, ez da horretako laguntza publikorik egon.

Horrez gain, nekazarien interes estrategikoa ere bada **uraren kontrol kolektiboa** edukitzea pribatizaziorako presioen aurrean. Ekuadorko legeriak kontrol horretarako atea ireki die erkidegoei, uraren eta ureztaketaren zerbitzuak emateko aukera eskainiko dielako erkidegoko erakundeei⁵¹. Aukera hori, ostera, jardun zehatzetan finkatu behar da oraindik.

Ikuspegi agroekologikoa ezartzean, intsumo komertzialekiko mendetasuna murriztu da. Beste baliabide emankor batzuei dagokienez, emakumeek baliabide horiek lortzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago dituzten arren, oraindik ez da berdintasunezko egoera lortu gizonen aldean. Oro har, oraindik ere baliabide emankor eskuragarrien berdintasunezko lorpena eta kontrola aldarrikatu beharra dago familietan nahiz erakundeetan.

Nekazarien erakundeek, mugimenduek eta sareek badakite baliabide emankorrak birbanatzeko eraginari eutsi behar diotela oro har. Berriro ere, generoaren aldagaia kontuan hartu beharra dago, baliabideen eskuragarritasunari eta banaketari buruzko diagnostikoa egiteko orduan.

Kreditua eskuratzeko aukera modu berezian aipatu beharra dago. Antolamendu-prozesuei esker, emakumeentzat askoz errazagoa da kreditua herri-finantza

⁵¹ Ekuadorko Lurralde Antolamendurako, Autonomiarako eta Deszentralizaziorako Kode Organikoko 282. artikulua (COOTAD): “282. art.– Ekonomia mistoko enpresak.– Eskualdeko, probintziako, metropolialdeko edo udaleko gobernu autonomo deszentralizatuak zerbitzugintza publikorako edo beste jarduera edo ekintzailtza batzuen garapenerako kudeaketa eskuordetu ahal izango diete ekonomia mistoko enpresei, betiere, bazkidea enpresa publikoak arautzen dituen legearen araberako lehiaketa publikoaren bidez hautatzen bada. Uraren eta ureztaketaren zerbitzu publikoak, ordea, erakunde publikoek, bateratuek edo aliantza publiko bateratupean elkartutakoek bakarrik eman ahal izango dituzte”.

solidarioen arloan eskuratzea eta kontrolatzea. Hori, ordea, ez da finantza-sistema formalean gertatu. Azkenean, horrek ez du esan nahi emakumeen ekimen ekonomikoak behar beste kapitalizatu ez direnik, bankari bermeak eskaintzeko moduan. Gure ustez, kasu honetan estrategia ez litzateke izango emakumeak bankarizatzea –finantziazioa eskuratzea bitarteko hutsa da eta ez berezko helburua–, **ekintzaitzak sendotzea** baizik, harik eta emakumeei autonomia ekonomikoa eskaintzeko behar bezain egonkorrak diren epe luzerako errentagarritasuna eta diru-sarrerak lortu arte. Hori dela eta, produktuei balio erantsia nola eman ahal zaien zehaztu eta kontsumo arduratsua bultzatu behar da KAZESetan bertan, lehen esan dugun bezala.

Denbora biziari eusteko funtsezko baliabidea den arren, ez zaio behar besteko arreta eskaini. Gaur egun, denbora-txirotasunpean daudela uste dute emakume askok. Nabarmendu beharra dago denboraren erabilerari buruzko inkestak egin direla Ekuadorren, eta gizonen zein emakumeen artean dauden desberdintasunak antzemateko aukera eskaintzen dute. Orain, **denbora-txirotasuna desagerraraztea** izan behar da politika publikoaren helburua, txirotasunaren beste adierazpide batzuen aurka borrokatzen den neurri berean. Horretarako, modu zehatzak eta neurri politiko zein sozialak ezarri behar dira, emakumeen lan-karga gutxitzeko. Neurri horiek abian jarri bitartean, lan-karga globalak birbanatzeko moduak ere bilatu ditzakete erakunde eta erkidegoetan, eta elkarte zein erkidego arloko irtenbideak ere bultzatu daitezke; elkarri laguntzeko sareen sustapena, esaterako.

Trebakuntzari dagokionez, prestakuntza bera eskaintzen duten erakundeen mendetasunaren ondorioz, emakumeek ezer gutxi kontrolatu ditzakete eurengan eragina duten edukiak, metodologiak eta faktore logistikoak. Kasu honetan, tokian-tokian sustraituago dauden eta partaidetzazkoagoak diren prestakuntza-formatuetan aurrera egitea da erronka, emakumeen talentua eta jakitateak balioetsi eta agerian jarri daitezzen.

Askatasunak

Askatasunen arloan, KAZESen inguruan egituratzean **emakumeek autonomia ekonomiko handiagoa** erdiesten duten neurrian, familian **negoziatzeko botere handiagoa ere badute**. Aldi berean, trebetasun berriak bereganatu dituztenez, ez dute lehen besteko mendetasunik erabakiak hartzeko orduan. Norabide horretan aurrera egin bada ere, ez du esan nahi erabakiak hartzeko orduan berdintasunik dagoenik arlo guztietan eta emakume guztientzat: berdintasuna erdietsi gabeko helburua da oraindik.

Bestetik, KAZESek emakumeen mugikortasun handiagoan ageriko ondorioak baditu ere, oraindik ere **garraioa** oztopoa da emakumeentzat, baina, batez ere, landa-ingurunean –horren ondorioz, zaila ere bada produktuak merkaturatzea–.

Emakume batzuek mugikortasun-murriztapenak dituzte oraindik senarrekin eta gizon kideekin dauzkaten harremanetan. Oso kontuan hartu behar dugu mugimendurako baimena ukatzea indarkeria-mota dela eta erakundeek bete-betean lan egin behar dutela hori **prebenitzeko eta desagerrarazteko**. Sentsibilizazio orokorra ez ezik, **emakumeen babeserako eta jabekuntzarako estrategiak** ere ezarri behar dira, eta **aliantzak egin behar dira gizonekin**, zenbait erakundetan sustatzen ari diren bezala.

Partaidetza eta politika publikoak

Erantzukizun-postuetan emakume gehiago badaude ere, horrek ez du esan nahi izatezko parekotasuna dagoenik partaidetzaren eta boterearen erabileran. Oraindik ere, erakundeek eta mugimenduek **lidergoan dauden emakumeei berdintasunezko tratua eta babesa** eskaintzeko erronkari aurre egin behar diote, euren zereginen eguneko garapenean oztopoak eta erresistentziak aurkitzen dituztelako, zakarrak nahiz zoliak. Berriro ere, emakumeen partaidetza eta lidergoa benetakoak izan daitezen, zainketetako baterako erantzukizuna onartu beharko da.

Emakumeek zeregin horretarako prestakuntza jaso nahi dute **prestakuntza politiko eta ekonomikorako** prozesuen bidez. Gainera, badakite desberdintasunean bertan hainbat aldagaik dutela zeresana eta emakume moduan dituzten interesak epe luzera jasangarriak diren beste bizi-prozesu batzuekin daudela lotuta. Bestetik, berriztapena, sarrera berriak eta **gazteen partaidetza aktiboa** ere sustatzen dituzte erakundeetan.

Erakundeen eraldaketa hori funtsezkoa da, erakundeak honako hauxe direlako: batetik, emakumei partaidetza politikorako aukera ematen dien plataforma; eta, bestetik, politika publikoetarako abiapuntua diren jarduera alternatiboen bidezko saiakuntzak egiteko lekua.

Instituzio publikoek zeresan handia dute emakumeen eskubide ekonomikoen eta eskubide guztien erabilera bermatzeko partaidetza politikorako eskubidearen gauzapena sustatzeko edo oztopatzeko orduan. Emakume nekazariak honako hauxe eskatzen diete instituzio publikoei: **emakumeen antolamendu-egiturak sendotzea, zainketak hornitzeko politika publikoak** diseinatzea eta ezartzea, lehen esan dugun bezala, eta **landa-ingurunean geratzeko politika publikoak** abian jartzea (emankorrek, bai, baina beste batzuk ere bai: hezkuntza, osasuna, garraioa... eskuratzeko politikak...). Tokiko politika publiko horiek ezartzean generoaren ikuspegia kontuan hartzen bada, **emakumeen interesen araberako aurrekontu-lerroak** ere ezarri beharko dira. Era berean, politikaren jarraipena ere egin beharra dago, **programek eta proiektuek emakumeen bizi-kalitatean duten eraginari buruzko ebaluazioen bitartez**.

Nolabait esateko, ekintza horiek guztiak garatzeko arduraldia eutsia izan behar da epe labur, ertain eta luzeari begira, eta emakumeen borroka-esperientzia iraunkorarekin bat etorri behar da: *“Daukaguna balioesten badugu eta antolatutako inurrien antzera jarraitzen badugu, eskubide ekonomiko aurreratuagoak eduki ahal izango ditugu emakume moduan”*.

Azkenean...

Azken hamarkadotan, arlo ekonomikoa nagusi izan denez, ekonomia solidarioako mugimenduaren estrategia izango da giza premiak helburu dituen sistema ekonomiko barneratzailea proposatzea. Izan ere, batzuetan, zehatz-mehatz ekonomikoa (edo ekonomizista) den arlotik harago ere badoa ESS, eta harremanak, balioak... bateratzen dituen bizi-sistema moduan proposatzen da. Dena dela, sistema ekonomikoak biziaren jasangarritasunaren helburuari behar bezala erantzun diezaion, ikuspegi feminista kontuan hartu beharko da ekonomia sozial eta solidarioan. Erronka hori, hain zuzen ere, printzipioetan zehaztu beharko da, eta jardueretan bertan ezarri beharko da zehatz-mehatz, Jubetok eta Larrañagak adierazten duten bezala⁵²:

“ESren printzipioak erraz-erraz txertatzen dira EFren helburu eta proposamenetan, baina beti ez dira berariaz azaltzen. ESren printzipioetan generoaren berariazko ikuspegi hori ez agertzea ez da ezohikoa, alternatibotzat jotzen diren teoria gehienetan gertatzen delako gauza bera. Garapen teorikoek, Gaitasunen Ikuspegia, esaterako, eta beste praktikoago batzuek, bizimodu onaren proposamenak, adibidez, EFren helburu gehienak partekatzen dituzte, baina ez dute berariaz egiten, unean uneko erreferentzietan eta orokorretan izan ezik. Ahanztura hori ezin da halabeharrezkoa izan. Beraz, baliteke genero-berdintasunaren aldeko borroka gai txikitat jotzea bertan. Ikusi dugun bezala, ESK eta EFK helburu berberak partekatzen dituzte paperean. Orain, ordea, printzipio horiek benetako ekimen solidarioetan ezartzea izango da erronka”⁵³.

Horren arabera, gure ustez behar-beharrezkoa da ESSren zentzu politikoa berreskuratzea genero-harremanak aldatu ahal izateko, ESSn defendatutako berdintasunaren printzipioa eta berezko helburu den partaidetzaren printzipioa kontuan hartuta. Horrez gain, emakumeen interes praktikoak eta estrategikoak kontuan hartzeko baliabidea ere bada.

⁵² Aipatutako testuan, ES Ekonomia Solidarioa da; eta EF, Ekonomia Feminista.

⁵³ JUBETO RUIZ, Yolanda eta Mertxe Larrañaga Sarriegui (2014): “La economía será solidaria si es feminista. Aportaciones de la economía feminista a la construcción de una economía solidaria”, in JUBETO RUIZ, Yolanda *et al.*: *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*, REAS Euskadi, Bilbo.

ESSren gidariak diren eta KAZESetan ezartzen diren printzipioen irakurketa feminista egiten denean, argitu egin beharra dago birbanaketaren esangurak era guztietako premietan duela eragina, besteak beste: baliabide emankorren birbanaketa (ura, lurra, haziak...), mozkinen birbanaketa (diru-sarrerak, bai, baita onura sozialak, aitorten sinbolikoa... ere), haien ekoizleak diren emakumeen eta emakume nekazarien jakintzaren eta aitortenaren birbanaketa, lan-kargen zein aisialdi-aukeren birbanaketa eta agendan lehenetsitako ordezkari politikoaren zein aldarrikapen politikoaren birbanaketa.

Orduan, Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioek *Sumak Kawsay*ra ekonomia-zerbitzura egoteko xedea beteko dute, eta bertan, emakumeen, gizonen eta naturaren arteko oreka globala lortu beharko da. Hori eratzeko, gainera, honako hauxe erdietsi beharko da: pertsonen jabeak lortzea, haien erakundeak sendotzea, aliantzak egituratzea, bizia zaintzen duten aukera alternatiboak abian jartzea eta biztanle eskatzaileen zerbitzura dauden politika publikoak ezartzea.





Bibliografia

- AGENJO CALDERÓN, Astrid eta Cristina Santillán Idoate (2012): *Los derechos económicos de las mujeres: una economía sobre la vida. Discursos y prácticas en Nicaragua, El Salvador, Bolivia y el Estado español*, ACSUR-Las Segovias, Madril.
- ART – Lurraldeko Sareen Egituraketa (2013): *Prioridades para el desarrollo integral. Loja. Ecuador*, ART-PNUD, Quito.
- BATZAR KONSTITUZIOGILEA (2008): *Constitución de la República del Ecuador*, Montecristi.
- CANAVERI, Alicia (2003): *Para comprender la equidad de género. Mirando el pasado y el presente*, CDIMA, La Paz.
- CECADEM (2010): *Derechos económicos de las mujeres en igualdad de oportunidades*, Emakumeen eta Familien Prestakuntza eta Garapenerako Zentroa, La Paz.
- CORAGGIO, José Luis (2010): “La economía popular solidaria en el Ecuador” (2015eko uztailaren 6an egindako kontsulta). Hementxe dago ikusgai: <http://coraggioeconomia.org/jlc/archivos%20para%20descargar/La_economia_popular_solidaria_en_el_Ecuador.pdf>.
- ESCOBAR, Rubidia, Landa, Ana eta Laura Romero (2007): *Estrategias del movimiento de mujeres para la promoción y apoyo a las iniciativas económicas de mujeres*, Tokiko Garapenerako Talde Feminista, San Salvador.
- FRÍES, Lorena (2005): “Los derechos económicos, sociales y culturales desde una perspectiva de género: desarrollo y evolución” in *Articulación Regional Feminista: Análisis y contribución feminista a los derechos económicos, sociales y culturales*, Plural editores, La Paz.
- FUERTES MEDINA, Patricia (2004): *Desafíos de género hacia la inclusión financiera. Estudio del impacto de los Bancos Comunes del Movimiento Manuela Ramos en Puno y San Martín 1997-2003*, Manuela Ramos, Lima (2014ko otsailaren 5ean egindako kontsulta). Hementxe dago ikusgai: <<http://www.manuela.org.pe/wp-content/uploads/2004/05/57389016-Desafios-de-genero-hacia-la-inclusion-financiera.pdf>>.
- GARGALLO, Francesca (2013): *Feminismos desde Abya Ayala. Ideas y proposiciones de las mujeres de 607 pueblos en nuestra América*, América libre, Buenos Aires.
- GPL – Lojako Probintziako Gobernua: *Agenda de igualdad, no discriminación y buen vivir de las mujeres de la provincia de Loja*, GPL, Quito (2014ko azaroaren 27an egindako kontsulta). Hementxe dago ikusgai: <http://www.prefecturaaloja.gob.ec/documentos/cooperacion/agenda_de_igualdad.pdf>.

- GURIDI, Luis eta Yolanda Jubeto (2014): “Fundamentos conceptuales y principios de la economía social y solidaria” in JUBETO, Yolanda, Luis Guridi eta Maite Fernández-Villa (ed.): *Diálogos sobre Economía Social y Solidaria en Ecuador. Encuentros y desencuentros con las propuestas para otra economía*, Hegoa, Bilbo.
- HARAWAY, Donna J. (1995): *Ciencia, cyborgs y mujeres: La reinención de la naturaleza*, Ediciones Cátedra, Universitat de Valencia, Emakumeen Institutua, Madril.
- HUANACUNI MAMANI, Fernando (2010): *Vivir Bien / Buen Vivir. Filosofía, políticas, estrategias y experiencias regionales*, Integraziorako Nazioarteko Institutua (III-CAB), La Paz.
- JIMÉNEZ, Jhonny (2014): “Movimiento de economía social y solidaria del Ecuador. Circuitos económicos solidarios interculturales” (2015eko abuztuaren 6an egindako kontsulta). Hementxe dago ikusgai: <http://www.economiasolidaria.org/files/CIRCUITOS_ECONOMICOS_SOLIDARIOS_INTERCULTURALES.pdf>.
- JUBETO, Yolanda, Sandra Dema eta Mertxe Larrañaga (2010): “Emakumeen eskubide ekonomikoak”, *Feminismoak garapenerako agendan Topaketako oinarritzko agiria*.
- JUBETO RUIZ, Yolanda eta Mertxe Larrañaga Sarriegi (2014): “La economía será solidaria si es feminista. Aportaciones de la Economía Feminista a la construcción de una Economía Solidaria”, in JUBETO RUIZ, Yolanda *et al.*: *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*, REAS Euskadi, Bilbo.
- meSSE, UPS (2013): *Economía Solidaria Patrimonio Cultural de los Pueblos*, Ediciones Abya Yala, Quito.
- MOLINA MAMANI, Florencio (2013): *Cosmovisión andina*, Latinas editores, La Paz.
- NAZIO BATUAK (1966): “Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna”, 2200 A Ebazpena (XXI), 1966ko abenduaren 16koa, Batzar Nagusia.
- ___ (1979): “Emakumeen aurkako Era Guztietako Bereizkeriak Desagerrarazteko Konbentzioa (CEDAW)”, 34/180 Ebazpena, 1979ko abenduaren 18koa, Batzar Nagusia.
- OCHOA, William *et al.* (2015): *Diálogo de Saberes para la Economía Solidaria. Guía pedagógica MESSE*, meSSE, Quito.
- PALACIOS GARCÍA, Rafael A. (2013): “Derechos económicos y sociales de las mujeres” in DEL RÍO MARTÍNEZ, Amaia eta Sandra Dema Moreno (koord.):

- Voces y saberes feministas. Hacia una agenda de cooperación emancipadora*, Hegoa, Bilbo, 43-64.
- POMA, José eta Lorena Salcedo (2016): “Diagnóstico de la economía social y solidaria en la provincia de Loja, particularmente en los sectores agropecuario y financiero”, in GURIDI, Luis, Maite Fernández-Villa eta Yolanda Jubeto (ed.): *Políticas públicas territoriales para la Economía Social y Solidaria en Loja*, Hegoa, Bilbo.
- RAZETO, Luis (1988): *Fundamentos de una Teoría Económica Comprensiva*, Ediciones PET, Santiago de Chile.
- REDE MULHER DE EDUCACAO (1996): *Relações de gênero no ciclo de projetos*. Hemendik hartua: Moreira, T. (ed.), Sao Paulo, 1996.
- VALLADARES-TAYUPANTA, Lola (2005): “Las ciudadanas: sujetos ausentes de las políticas de Estado” in Articulación Regional Feminista: *Análisis y contribución feminista a los derechos económicos, sociales y culturales*, Plural editores, La Paz.
- VEGA, Silvia (2013): “El orden de género en el sumak kawsay y el suma qamaña. Un vistazo a los debates actuales en Bolivia y Ecuador” in *Iconos*, 48. zk., Quito, 73-91.



Eranskinak

I. eranskina

Tailer honetako jarduerak: "Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioan elkartzeko esperientziak eta emakumeen eskubide ekonomikoetan izandako eragina"



1. ariketa. Gu geu KAZESen

Gure partaidetzapeko KAZES irudikatu.

- Nor dira KAZESen esku hartzen duten eragileak? (pertsonek, erakundeak, enpresak...)
- Zein da haien zeregina? Zer egiten dute? (ekoizti, prestatu...)
- Nork du harremana norekin?



2. ariketa. KAZESek nola aldatu duen gure bizitza

Zertan hobetu da nire bizitza KAZESen nagoenetik? Zer zeregin betetzen dut bertan? Hona hemen KAZESek nola aldatu duen gure bizitza:

Lanean	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpenean (teknologia edo jarduera berriak eskuratzeko aukera ere hartu kontuan) - Lan-baldintzetan (duinak dira? diruan, lan-kargan...) - Prestakuntzan - Merkaturaketan (garraiorako eta mugikortasunerako aukerak ere hartu kontuan)
Eskuratzeko aukeretan eta askatasunean	<ul style="list-style-type: none"> - Lurra, ura... eskuratzeko aukera - Norberaren diru-sarrerak eta haiei buruzko erabakia (autonomia ekonomikoa) - Eskubideak - Elkarri laguntzeko sareak

Etxean	<ul style="list-style-type: none"> - Denboren erabilgarritasuna (lanen baterako erantzukizuna) - Familia-harremanak (familiaren babesa) - Autonomia pertsonala - Mugikortasuna (etxetik irteteko askatasuna)
Politikan	<ul style="list-style-type: none"> Partaidetza... - Eremu publikoetan - Politika publikoen aldaketan - Taldearen antolamenduan (eskaerak) - Lidergoetan



3. ariketa. Lanean egiten ditugun jarduerak

- KAZESek zer neurritan eusten dio zereginen banaketa tradizionalari edo emakumeei zer neurritan eskaintzen die zeregin berriak egiteko aukera gehiago (garraioa, merkaturaketa)?
- KAZESi esker, ekonomiako sektore berrietan sartu ahal izan gara? Emakumeena izan ohi ez den lanik erdietsi dugu?
- KAZESi esker, zuzendaritzako edo lidergoko postuetan gaude erakundeetan / ekintzailletzetan?

Hurrengo taula osatu:

Egiten jarraitzen dugun zereginak	Geure gain hartu ditugun zeregin berriak	Egiteko aukerarik eduki arren egiten ez ditugun zereginak

- Zer egin da emakumeen lan-karga handiagoa izan ez dadin? Zer ez da egin?
- Gure ugalketa-lana gehiago balioesten da KAZESen gaudenetik?
- Gizonen eta emakumeen artean, zer neurritan banatu dira ugalketa-zereginak KAZESen parte hartzen dugunetik?

Hurrengo taulan antolatu erantzunak:

KAZES baino lehen...	KAZES baino lehen, senarra (auzokideak...)	KAZESen ostean...	KAZESen ostean, senarra (auzokideak...)



4. ariketa. Autonomia ekonomikoa eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera

KAZESek emakumeen premiari aurre egin dio, diru-sarrerak lortzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago eduki behar dituztela kontuan hartuta?

Nire erakundearentzat, baliabide emankorrak lortzeko eta kontrolatzeko aukeraren matrizea bete eta lorpen edo kontrol hori honelakoxea den adierazi bertan: oso handia, handia, txikia edo oso txikia.

Baliabide emankorrak	Lorpena		Kontrola	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Lurra				
Ura				
Makinak				
Kreditua				
Enplegua				
Diru-sarrerak				
Garraioa				
Prestakuntza				
Intsumoak				
Denbora				



5. ariketa. Emakumeen eskubide ekonomikoetarako politiken inguruko gomendioak

- Familian bertan / bikotekidearekin esku hartzeko gomendioak.
- ESSko erakundeetan esku hartzeko gomendioak.
- KAZESeko erakundeen artean eskubide ekonomikoak sustatzeko estrategien eta aliantzen inguruko gomendioak.
- Instituzio publikoetarako gomendioak (gobernu autonomo deszentralizatuak).

II. eranskina

Inkestetarako gidoiak

1. Emakumeen jabeakuntzaren adierazleei buruzko inkesta: baliabide emankorrak eta diru-sarrerak eskuratzeko aukera (erabiltzeko gaitasuna)⁵⁴

X bat jarri aukeratutako itemetan

Zenbat lur erabili dezakezu zeure nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenerako?	1. Guztira m ² :	
	2. Baratzeak m ² :	
	3. Animalia txikiak m ² :	
Nork darabiltza eskuragarri dauden ekipamendua edota makinak? (Traktorea, ibilgailua, motoaitzurra, ureztatzeko ekipamenduak, prozesatzeko ekipamenduak...)	1. Senarrak	
	2. Biok	
	3. Nik neuk	
	4. Gizonezko beste senide edo auzokide batzuek	
Zer lan egiten dituzu aparte (emankorrak)? (Zenbait adierazi, hala badagokio)	1. Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena	
	2. Merkataritza	
	3. Inoren konturako ordainpeko lana (zein adierazi)	
	4. Beste batzuk (zein adierazi)	
	5. Ez dut lan emankorrik egiten	
Hilean zenbat diru gastatzen duzu zeure eta familiaren premietarako?	1. Gastu pertsonalak	\$
	2. Familian	\$
Azken urtean, zenbat diru jaso duzu zure izenean dagoen kreditu moduan?	\$	
Hona hemen joan den hileko diru-sarrerak	\$	

⁵⁴ Hemen agertzen diren galdera edo item batzuk azterlan honetan daude oinarrituta edo bertatik hartu dira: FUERTES MEDINA, Patricia (2004): *Desafíos de género hacia la inclusión financiera. Estudio del impacto de los Bancos Comunes del Movimiento Manuela Ramos en Puno y San Martín 1997-2003*, Manuela Ramos, Lima (2014ko otsailaren 15ean egindako kontsulta). Hementxe dago ikusgai: <<http://www.manuela.org.pe/wp-content/uploads/2004/05/57389016-Desafios-de-genero-hacia-la-inclusion-financiera.pdf>>.

2. Emakumeen jabekuntzaren adierazleei buruzko inkesta: baliabide emankorren eta diru-sarreraren kontrola (erabakitzeko gaitasuna)⁵⁵

X bat jarri aukeratutako itemetan

Familian bertan, nork hartzen du lurraren erabilerari buruzko erabakia? (Lurrean zer landatuko den, zenbat lur erabiliko den jarduera zehatz baterako, lurra salduko den ala ez...)	1. Senarrak	
	2. Elkarrekin, baina bere iritzia da benetan garrantzitsua	
	3. Elkarrekin, biok	
	4. Neuk bakarrik	
	5. Beste senide batzuek (aita, neba...)	
	6. Lurraren jabeak (maizterra)	
Nork hartzen du erabilgarri dauden makinak edota ekipamendua erabiltzeko, erosteko edo saltzeko erabakia? (Traktorea, ibilgailua, motoaitzurra, ureztatzeko ekipamenduak, prozesatzeko ekipamenduak...)	1. Senarrak	
	2. Biok	
	3. Nik neuk	
	4. Gizonezko beste senide edo auzokide batzuek	
Baratzean egiten ditudan zereginak...	1. Senarrak banatu eta lagundu egiten diot	
	2. Bion artean banatzen dugu, elkarrekin	
	3. Neuk erabaki eta antolatu egiten dut	
Etzetik kanpo lan egiteko...	1. Senarra da lanera joateko baimena ematen didana edo etxean geratu behar naizela erabakitzen duena	
	2. Neuk erabakitzen dut	
Nork erabakitzen du zenbat diru gastatu eta zertan?	1. Senarrak, beti	
	2. Senarrak diruaren zati handienari buruzko erabakia hartzen du; eta nik, gainerakoari buruz	
	3. Biok, elkarrekin	
	4. Diruaren zati handienari buruzko erabakia hartzen dut; eta senarrak, gainerakoari buruz	
	5. Neuk, beti	

⁵⁵ Ibid.

Nork erabakitzen du zertan erabiliko den zuk zeuk eskatu duzun kreditua?	1. Neuk eskatu arren, senarrak hartzen du erabakia	
	2. Biok, elkarrekin	
	3. Nik neuk	
Nork hartzen du zeuk irabazitako diru-sarreraren erabilerari buruzko erabakia? (Zenbat gastatu, zertan gastatu, zenbat inbertitu, zenbat aurreztu...)	1. Senarrak	
	2. Biok, elkarrekin	
	3. Nik neuk	

3. Emakumeen jabeakuntzaren adierazleei buruzko inkesta: baliabide murriztapenik gabe mugitzeko askatasuna⁵⁶

X bat jarri aukeratutako itemetan

Etxetik bakarrik irteteko askatasuna duzu...	1. Beti	
	2. Batzuetan	
	3. Inoiz ez	
Nolako maiztasunaz joaten zara bileretara, batzarretara, prestakuntzetara, martxetara, azoketara...?	1. Inoiz ez	
	2. Hilean behin baino gutxiagotan	
	3. Hilean behin	
	4. Astean behin	
	5. Astean zenbait aldiz	

⁵⁶ Ibid.

4. Diru-sarrerei buruzko inkesta

Data:

Sexua: E / G

Ekintzaitzaren/erakundearen izena:

1. Zer jardueratik datoz zure diru-sarrerak? Zenbatekoa adierazi

Jarduera	Hileko diru-sarrera \$		Argibideak
Nekazaritza eta abeltzaintza			
Manufaktura eta artisautzak			
Merkataritza			
Zerbitzuak			
Enplegua			
Giza garapenerako bonua			
Beste batzuk			
Guztira			
Maila:	0-100		
	101-200		
	201-400		
	401-800		
	800etik gora		

2. Nola banatzen da gastua?

Jarduera	Hileko diru-sarrera \$	Argibideak
Nekazaritza eta abeltzaintza		
Manufaktura eta artisautzak		
Merkataritza		
Zerbitzuak		
Garraioa oro har		
Elikadura		
Jantziak		

Hezkuntza			
Osasuna			
Etxebizitza			
Beste batzuk			
Guztira			
Maila:	0-100		
	101-200		
	201-400		
	401-800		
	800etik gora		

3. Soberakina adierazi \$ _____

4. Proiektuko jarduerak zer neurritan gehitzen dituzte diru-sarrerak?

Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikaskuntzen Institutua, unibertsitate-institutua eta elkarte zibila da, eta giza garapena sustatzea dauka helburu, dimentsio politikoak, sozio-ekonomikoak, kulturalak, ingurumene-koak eta genero-arlokoak kontuan hartuta.

Hegoa Institutuko jarduera honako arlo hauetan garatzen da: irakaskuntza eta ikerkuntza, garapenerako hezkuntza, aholkularitza teknikoa eta kontsultoretza. Era berean, gai horietan espezializatutako dokumentazio-zentroa ere badauka, eta informazioaren zein komunikazioaren teknologia berrien bitartez dago eskuragarri.

Amerika Latinoko Intercooperation Fundazioa Ekuadorko fundazioa da, eta berdintasunezkoagoa den gizarte barneratzaile bezain jasangarria eratzea dauka xede, jakintza eta berrikuntza mobilizatzen dituzten esperientzien, ikuspegien eta metodologiaren bidez. Laguntza tekniko espezializaturako eta gaitasunen sendotasunerako zerbitzuak ere eskaintzen ditu, eta garapenerako programak nahiz proiektuak sustatzen ditu.

Kultura Arteko Zirkuitu Ekonomiko Solidarioa (KAZES) ekonomia sozial eta solidarioko produktuak eta zerbitzuak eta bertako jakitateak zein esperientziak egituratzeko eta trukatzeko eremua da. Horrez gain, arlo ekonomikotik harago doan harreman-eremua ere bada, eta, bertan, zenbait faktore dira garrantzitsuak; esate baterako, zainketak eta elkarbizitza. Emakumeak KAZESeko protagonistak direnez, badirudi euren jabeak lortzeko estrategia izan litekeela emakumeak bertan antolatu izana. Egia ote da? Emakumeen jabeak izateko, ohiko jarduerak ekonomikoak baino eraginkorragoak ote dira ESSko jarduerak eta haien egituraketa?

Liburu honetan, Ekuadorko Lojako emakume-talde batekin egindako hausnarketaren emaitzak azaltzen dira. Emakume horiek nekazarien erakundeetan eta mugimendu sozialetan parte hartzen dute, eta KAZESen bertan bizitako esperientziak izan dituzte aztegi, emakumeen eskubide ekonomikoetan daukaten ekarpena kontuan hartuta. Horrela, ateratako ikasbideak ESSko jardueretan eta jarduerak indartzeko eta sustatzeko politika publikoetan ezarri ahal izango dituzte, zainketetako lanak eta ekonomia feministaren proposamenak kontuan hartuta.

Finantziak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes



**GARAPENERAKO
LANBIDEITZAREN
EUSKAL AGENTZIA**
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**